

EUSKALTZALEEN BILTZARRA

EUSKALTZAINDIAREN ITZALPEAN

Arantzasun, 1956-IX-14, 15 eta 16 garrenean

Adierazita zegoan bezala irailleko 14-garren eguerdi inguruan etorri ziren batzarkide geienak. Bazkalondoan, 4 1/2-etan asi ziren bilkurak eta Aita Villasantek ongi etorria eman zuen. Maiean daude: Aita Villasante, maipuru, Aita Damaso Inza, Julian Elorza, Pierre Lafitte, Nazario Oleaga jaunak eta Alfonso Irigoyen jauna sekretario bezala. Urrengo saialdian aldatu egin dira maiekoak eta zenbait gizon prestu ta ohoregarrik izan dute lekua: Maipuru Nazario Oleaga ta Luis Mitxelena jaunak, Aita Franzisko Etxebarria, Aita Santiago Onaindia, Manuel Lekuona, Antonio Arrue, Angel Irigaray jaunak, eta Arantzazuko komentuko Aita guardiana azken-otordu dotorean.

Barandiaran-go Joxemiel jaunak iganderarte ezin etorri ditekeala gaztigatu du.

Batzartokian liburu-erakusketa eder bat jarri dute Arantzazuko frantziskotarrak. Zenbait gizalditako euskal-liburuak, beren biblioteka aberatsekoak. Gazte-genteak batez ere, ikus dezala euskal-literatura uste baiño aberatsagoa dela. Itxaropenak eta Euskaltzaindiak ere jarri dituzte salgai dauden liburuak.

ONGIETORRI - ITZAK

Jaun-andreoi: Agur.

Ongietorri bikoitza euskal jardun oietara etorri zeraten guztioi.

Bikoitza esan det. Aurrena, Euskaltzaindiaren izenean, eta urrengo Arantzazuko frantziskotarrenean dalako.

Dakizutenez, Euskaltzaindiak eratu ta antolatu nai izan ditu euskal jardun auek, eta herealdiko atsegin ta eskerronez ikusten du bere deiari egin diotzuten arrera eta erantzuna. Biotzetiko *eskerrik asko* bat, bada, Euskaltzaindiaren partetikan danoi.

Eta beste bat, Arantzazuko frantziskotarren izenean. Ohore aundia Euskaltzaindiak egin diguna, gure txoko malkartsua euskal jardun auetarako aukeratzean; eta zuek, ainbeste lekue-tatik etorri zeraten euskaltzale ta euskalariok egiten diguzutena. Milla esker, bada, San Franziskoren semeokandik, eta guztiz ere Arantzazuko komentuko Aita nagusiaren izenean.

Jardun auek zergatik edo zertarako? Euskal urduritasuna sentitzen degun guztiok elkartzeko, edo bata bestearekin al dan neurrian urreratzeko. Denok degu yoran berdiña, kezka ta oiñaze berdiña, gure mintzoaren kezka ta oiñazea, alegia. Euskera ondamenetik gorde ta begiratu, euskera bizirik atera nai degu guztiok. Ez naiz ni emen asiko, danok buruz dakizkigun atseka-bezko arrazoiak berritzen: euskera gainbera datorrigula, atzerakak dijoala, erriak gero ta gutxiago itzegiten duela, ta abar. Baiña beste aldetik, itxaropenezko bide eta arrazoiak ere ba-dira. Azken urte auetan euskal liburu ta aldizkari mordo polita sortu zaigu, eta gure izkuntzaren alde lan egin nai dutenak ugaritzen dijoaztela dirudi. Zorionez, ba-dira gaur eguneon ere euskaltzaleak, euskal idazleak, euskeraren adiskideak. Eta saiatzen dira, bakoitzak al duena egiñaz, bakoitza bere saillean gogotik ekiñaz. Baiña agi denez, saiaketa guzti oiek ba-dute utsune agiri bat, gaitz ezagun bat: bakoitza bere aldetik ibiltzea, alegia. Bakoitza, bizi dan txokoan sarturik ari da lanean, albokoaren berri jakin gabe.

Denok degu xede berdiña, baiño xede ori lortzeko ibilli bear den bideaz edo egin bear diren egikizunezaz, danok ez gera iritzi bateko. Batek euskera garbia bear degula, besteak berriz uste du, gaurko egokera ontan, euskera ulerterreza ta erritarra zaila bearrezko; urliak, euskera kultur-tresna bear degula biurtu, eta orretarako idea goratuetarako mintzabide egin; onek, gizon eskolatuen eta ikasien maillako liburuak falta zaizkigula esango dizu; ark, berriz, erri xearen maillako lanak baizik eztitu ondo ikusten. Eta egin bear litzakenaren gaiñean aburu berdintsuak izanda ere, aburu oiek egi biurtzeko orduan, garaiean, sarri-askotan bide ezberdiñak daramazkigula ikusten da. Zer gertatzen ote zaigu, ba? Esan deguna: elkarrengandik berezita bizi oi generala. Elkar ezagutu gabe, elkarrekin itzegin gabe, bakoitza bere aldetik, orra.

Orregatik bear zan onelako billera bat euskaltzaleen artean egin, elkar ezagutzeko, elkar berotzeko, asmoz ta jakitez jarraitzeko. Elkarrekin egotetik, bata besteakin itzegitetik beti sortu oi dira mesede ta etekin aundiak: urruti xamar bizi ziranak, edo bizi zirala uste zutenak, elkartu, urbildu edo bata bestearen usteak hide erdira ekarri. Eta danok iritzi bateko biurtzen ezpagera ere (batzuetan komeni ere ezta egingo), beintzat ardiskidetu ta elkar-ganatu egingo gera, ta aurrerantzean lagun urkoaren usteei lotsa ta begirune geixeago erakutsiko diegu.

Gure euskal jardunetako egitamu edo programa bi partetan partitua dator, Euskaltzaindiak dituen bi xede edo egikizunen araura, au da: iker-sailla (sección filológica) eta jagon-sailla

(sección tutelar). Beste itez esateko, jakintzari bere partea eman nai izan diogu, eta praktikari ere bai. Egia esateko, bi parte auek eztira bata besteaganik alhenduta, ezta gutxiago ere. Jakintza, egiazko jakintza izan da batiere praktika onaren iturri, gidari eta bide-erakusle ziur eta jatorra. Orregatik gure Euskaltzaindiak, euskera gordetzeko eta lantzeko sortua izanarren, ba-du bere zeregiñen artean euskera sustraitik jakin eta bere edadura guztian eta al dateken osoen eta ondoen arakatzeko ardura. Guk ere, bada, jardun auetako egingoan jakite utsari, ots, iker-saillari, bere parte eman nai izan diogu.

Iker-saillaren gaitzat onako au jarri degu: toki jakin bakoitzeko mintzoaz monographi bereziak egiteak nolako garrantzia duen eta monographi oiek nola edo zer moduz egin. Itzak, aditza, leku-izenak, folklore-gaiak, fonetika edo gramatika-legeak, orra or toki jakin bateko mintzoak eskeintzen digun alor zabala. Eta berau aztertetik argibide aundiak letorkez itzen esanai zeatza finkatzeko, iztegia bera osatzeko, ta abar. Monographi oiek euskera biziaz ezezik, illaz ere egin ditezke, eta erosoago, euskal idazti zaarretako izkuntzaren murrizte edo soiltzeak egiñaz, idazti batean itz bakoitzak edo adizkera bakoitzak zer valore edo esanai tinkoa duen ondo azertuaz. Eta lan onetarako, euskal liburuak ezezik, euskerazko izen edo itzak dakarzkian edozein liburu edo dokumentu zarrek ere balio digu. Gogoan dut, oraindik asko eztala, Lacarra jaun jakintsuak bere itzaldian esan ziguna: beñola euskaldun izandako tokietan (esate baterako, Nafarroako Monasterioetako paper zaarretan edo artxibuetan) izugarrizko ondasunetgia datzala, gure izkuntzako illungune asko ta asko argitzeko, baldin eskritura oietako leku-izen, giza-izen eta beste euskal itzak norbaitēk bildu ta azertuko halitu.

Gure idazle ta idazti zaarretan ere berdin, bein aituko eztegun ondasuna datza. Etxeberrri Sara-koak zionez, liburuak beti izan dira izkuntza gordetzeko kutxa batzuek bezala. Baiña gure idazle zaar beneragarriokin zer gertatu zaigu? Guk orain ontzat dugun bezalako iztegi eta joskera eztarabiltela-ta, bazertu izan ditugu, zokoratu, eta ala, gure izkuntza oiñarri sendo gabe utzi izan degu, liburu zaarretatik letorkioken oiñarri gabe. Lotsagarria auxe! Mundu guztiko erri landu aurreratuak, aspaldiko literatur ugaria daukatenak, beren izkuntzetan idatzi diran lehen dokumentuak arduraz eta arreta aundiz bildu, gorde ta azertzen saiatzen diran bitartean, gu, euskaldunak, zaarrik oso gutxi daukagunok, daukagun apurra ere, maitekiro gorde bearrean, ajolakabe alperrik galtzen badegu, zer esango da gutaz? Bein baiño geiagotan esan dana, erri arlote bat, zentzunik eztuana gerala, bere

etxeari funtsezko oiñarririk ipintzen ezetakian erria... Gaur eguneon ontan ere zentzatzuz goazela dirudi. Azken urteotan gure literatura zaarreko bi liburu bikain berriz argitaratu dira: Axular eta Mogel; eta Betolazaren dotriña zaarra eta aspaldiko beste dokumentu batzuk ere argitara eman dira. Landukioren iztegia eta Aita Añibarrorena ere, Jainkoa lagun, laister argitaratzeko dira. Esan bearrik eztago, euskera sustraitik ezagutzeko tresna baliotsuak dirala oiek, milla albiste ta berri jakingarri jakiteko iturri gozo ugariak.

Gure Jardunetako Programan, bada, bai folklorea, bai toponimiaz, bai toki jakin bateko euskera-modua aztertzeaz edo euskal idazle aspaldiko baten izkera arakatzear sartu dira lanak, lantxoak eta txostenak. Maisu diranak eta Maisu izan gabe lan oietan saiatzen diran ikasleak itzegingo digute, eta uste dugunez, onik asko aterako dugu danok lan oetatik. Azpeiti erriko edo Arantzazu auzoko euskera-modua ikertzen dabiltzanai entzun ondoren, apika batek baiño geiagok esango du bere kolkorako: Jaun oiek zoko oietan egiten dutena, neronek ere egin nezake hizi naizen edo ondo ezagutzen dudana arako bazter artan. Ain zuzen, orixe litzake ondorerik ederrena: baten lanak bestearentzat pizgarri eta kilikakor izatea.

Iker-saillaz gaiñera, ba-du Programak jagon-saillari dago-kion zatia ere. Zati onetan, euskeraren bizitzarekin urbildik zeri-kusi duan puntu bat edo beste sartu da. Esate baterako, Elizak eta eliz-gizonak euskerari eusteko zer dezaketen. Elizak euskeraren biziari eusteko duen indarra denak aitortzen dugu. Orregatik, gai ontaz lan bat sartu dugu. Jakintza-zeregiñetan euskerak duen utsuneaz, utsune orren sustraiatz eta gaitz ori erremediatzeko egin ditekenaz, mintzoko da beste bat. Izan ere, askotan esaten degu euskaldunak: Ai, euskal ikastola balego! Baiña bein baiño geiagotan pentsatu izan det: euskerazko eskola balego, zer egingo genuke? Oraindik *Geografia* adierazteko erabili bear den itzaz ez gera bat etorri, gramatika-arazoetan denok onarturiko terminologia bat eztaukagu, eta kultur-alorreko sail guztietan beste aibeste gertatzen zaigu. Esparru berezi onetan euskerak duen moztasunaz, eta bidea urratu ta aurrera joateko egin ditekenaz lan bat sartu da, bada.

Gero, beste Kongresuetan oi dan bezala, komunikazioren batzuk jasoko balira, maiburukoen baimenaz eta astia baldin badago, oiek ere onetsi eta irakurriko dira.

Urrutiagotik etorri diranei agur ta aipamen berezia zor zaie-ta, Berger, alemanitar izkuntzalari jakintsua agurtu nai dut emen bereziki. Himalaya-aldeko *burushaski* deritzan izkuntza-kontuan

espezialista dugu jaun ori, eta mintzo orrek euskerarekin senidetasuk ote daukan aztertzen dabil, eta orretarako euskera ere ikasia eta menderatua dauka. Mugaz beste aldeko euskaldunen mandatari bezala etorri zaigun Lafitte euskaltzain jaunari ere gure agurrik beroena.

Eta, jaunak, etzaituztet geiago aspertu nai. Berriz ere eskerrik asko danoi, eta ongi etorriak izan zaitezte! Zuenean zaudete!

L. Villasante, O. F. M.

Mitxelena jaunaren eskabidez Julian Elorza jauna ohorezko maipuru izendatu da, txalo franko entzun delarik. Maipuruak Altuna jaunari ematen dio itza.

AZPEITIKO EUSKERA AZTERTUZ

Ni baño len, nirea baño mintzo jakitunago ta itzalgarriagoak gai ontaz bereaz aritu zaizkizuen ezkeroz, ezin dizaizueket gauz berri asko adirazi. Monografi-gaiaz esan ditekene, alde ta toki batekoa naiz bestekoa izan, nai ta naiez izan bear bait-du ortxe-antxe antzekoa. Elburu bat dute, lanpide berdiñak dituzte, tresna ta lankiñak ere geienetan kidekoak: lan-sailla bakarra izango da ez-berdiña, alor joria onek, ta ark kaxkarragoa. Baña nik gaur, ain zuzen, ez-berdiña degun alorra ez-baña tresna ta laneko asmoa agertarazi nai nizuen. Beraz nai-ta-naiezkoa dezute egonarri pitiña, len entzundako zenbait gauz, berriztatzen ba'dizkizuet ere, sumindu ta aserretu ez zakizkidaten.

Orain dala egun batzuk Irigoyen'dar Alfonso Jaunak lantxo au zuen aurrean azaltzera deitu nindunean, kezka batek ia eragin zidan atzera: alegia, oraindño asmo ta egiteko bat ("facteon" lioke Kikeron'ek) besterik ez dan nere arlo au, asmo ta egin-bearrekotzak ez-baña, egin'tzat eta betetakotzat artuko ote zenidaten. Asmo ta amets bat baño zerbait geitxoago azaldu naiago nizuen, eta bearbada zuetan bat baño geiago ere, nere lantxo au onezkero ori baño geiago zalakoan zeuden. Ikastaroan arkitzen naiz —ikas-

taro luzea gurea, dakizutenez—. Salamanka'ko ikaslanak datorren urtean amaiturik ere, bost urteko bidea eman bearrean naiz oraindik. Alare nere lan oni ez diot ain epe luze ta aspergarria ezartzen. Sei urte auetako tarte ta opor-egunak arturik, bi-iru urtean burutu nezakela uste det. Baña, berriro esan, gaurko ontan asmo ta langaia, ortik at ezer gutxi eskeiñi dezaizueket zoritxarrez.

Zer asmotan naizan? Irakasle bikain ta adiskide zintzo dedan Tovar Jaunak idaroki zidan, "tesis doctoral"-orretarako, beste ifungo lanik baño egokiagoa nuela, nere erriko euskelgia azterkatu ta ikertzea; errez ta laister egin nezakean lana zala; euskeraren ezaguera sakonago eta zabalagorako guztiz bearrezko genula; berak lagundu eta zuzendu ere zuzenduko zidala lana. Igazko kontuakin ari natzaizue. Baña artean ni karrera'ko ikaslanen zama-pean nengon ta gauz aundirik egin ezin, nai ta ere. Itzak, esaerak, Azpeitiarrak dituzten bere bereziak biltzen asi nintzan. Ibillera motela zan ua. Era artan ez nuen urte askotan ere lana amaituko.

Auek onela zirala, len aitaturako nere Irakaslea su ta ke ari zitzaidan, asmoa artu ta etsita egon ez-ezik, lenbaitlen ekin bear niola lanari; Ipar-Ameriketakoak bere izkuntz-lanetarako oraindik orain asmatu ta atera duten "espectógrafo" deritzaion makiña erosi zula, ta, nai ba'nu, nere tesis ontarako ere eskumenean jarzen zidala. Erriari elkar-izketa zenbait artu nai ba'nizkio ere, antxe neukela magnetofonia. Nik eskatu al nezakena baño geiago, ta edozeñek opa lezakean aña zan ua. Alako aukera goxua ezin nezakean joaten utzi.

Ortik beraz, astirik detanerako asmoak auexek ditut: Azpeiti'n itz egiten dan euskera sakon ta zabal —zabal baño sakon naiaigo nuke— aztertu; monografi-lan baten gai'tzat Azpeiti'ko euskera al bezin osoro landu.

Ugariegi ta amaigabeko lana dirudi. Gai ontaz aztertu ditezken sail ta zati denak asmoan artu ezkeru, urteak eta urteak aritu-ta egundo bukatzen ez dan lana dirudike. Norbaitek erri bateko itz-txorta, esaera,... besterik ez ba'litz ere, oiexek denak bildu naiko ba'litu, amar urte igaro-ta ere oraindik zerbait berri entzutea babiliteke. Toki bateko itz-bilkera, epe luzeko arloa da. Zerbait mugatu ta estutu obe dala uste det. Askoei ez litzaike biotza ain errez okilduko ta garra biziagoz ekingo liokete lanari. Nik beñepein onelako zerbait egingo detalakoan nago. Alegia, nere ustez bearrezkoena dan eta illabete batzutan egin ditekera lanari eutsi. Bearrezkoen ori zer dan?

Fonetike ta morfologi legeak al dan sakonen ta al dan ugarien ta al dan erri geienetan, (bi edo irutan bakarrik ez) bildu, eratu, elkar-lotu, ta argiratu. Euskera'ren ezaguera zabala orrexek eman-

go liguke. Ortik ikasiko genuke emengo edo ango euskeraren arauak nortzuk diran eta edonungo euskerarenak zein bestetzuk liraken. Euskerari dagozkion Fonetike ta Morfologi zeintzuk diran, eta euskelgi batenari dagozkionak zein bestetzuk.

Au laister egin ditekena da, edo geiegi ba'litz, bestea baño askoz laisterrago bai beintzat. Esate baterako, iñork aztertu nai duen erriko lau edo bost laguni izketaldi luzetxoren bat magnetofoz artu. Basterik azpa'da ere, gaia aski ba-luke edonork orrekinxe bakarrik, ariz jaso dituan izketa oriek axolaz ta arretaz begizaturik, erri ortan egiten diran itz-mozketak, vocal-elkar-lotzeak, aditz-kerak ezagutu ta ikasteko. Adibidez, edozein azpeitiarrekin izketan asi ordukoxe, oartu dezake edonork gauza ikusgarri ta bereziak ba-dituztela. Bakarren bat aitatzearren: *aditz-gaian* ez det uste beste Gipuzkoa'ko erri askotan esaten dutenik: "gaur ez *gatxitrik* mendira": *gaur ez goazek* esango luteke geienak, ta gerok ere *ez goatxitrik* esan bear genuke. Orra or itz batean bi jakingarri. *Gatxitrik* ori nolabait argitzearren, beste guk esaten degun ua artu bear da gogoan, elkarrekin zer-ikusirik duten jakiteko: ez *gatxitrik ikusi* esan oi degu.

Aditz-gaian beste zerbait pitxi ba-ditugu. *Oso pozik nitxitian* (= nintzan) entzun nion lengo betean amari. Eta arixe berari *lanean asi gitxitian*. *Ika* mutillari esanak dira bi oiek: neskari esanak ba'lira, ze esanik ez *nitxitiñan* eta *gitxitiñan* litezkelak. Ez al dira ikusgarri ta entzungarriak?

"Txí" soñu ori askotan agertzen zaigu Azpeiti'ko aditz-moduan: adibidez, *itxi zatxit* (=zaizkit) (emen, jakiña!, plural da) *erosi zitxian* (=zizkikan); *ez natxiok ondo* (natxegok); *ez gabiltxitrik*, baita *ez gatxebiltzek* ere; ta lenengo notifiarentzat *ez natxebillek*.

Emendik errez atera diteke erri bateko aditz-modu osoa. Ta plural adirazteko erabiltzen diran artizki-motak ere bai. Azpeiti'n, adibidez, lau ez-berdin erabiltzen dira gutxienez; nork bere iritzira ez, jakiña!, batzutan bat eta bestetan bestea baizik. Aurrena esan dizuet len: "txi" ori: *itxi zat atea* — *itxi zatxit atepak*. Nunai eza-guna dan "it" bestea; *jan dek* — *jan dituk*. "Zk" irugarrena, dativo bat agertzen danean Gipuzkera osatuan irakasi oi dana; *eman diot* — *eman dizkot* (ez, "eman dizkiot"). Ta azkenik "zt"; bear luken itz osoa nolabait moztua dagolako; adibidez, *emaiiek* esan oi degu, *emaidak*-ordez: ba *emaiizek* esango degu, *emaizikidak*-ordez.

Ez dizkizuet zeatz-meatz Azpeiti'ko bereizi guziak atera nai. Baña oraindik beste zerbait, bai: Azpeitikoak bereak ditun bezela, beste nunaikoak alakoxeak edo beste era batekoak, baña ark ere

bereak ba-ditula ikusi, eta nik eta beste batzuk erri batzutan asi degun lanaren antzekoa egitera, zuzperlu ta berotu zaitezten. Euskera oraindik jorratzen asteke gaude, ta euskera bere osotasun guzian ezagutzen dunik ez da ia iñor. Ez ta berealakoan izango ere, onelako lanak an-emenka guziok egin, eta euskera osoro ta zearo ezagutzen laguntzen ez ba'diogu.

Aditz-gaian bertan, alegia; *esaten ba'yok* esan oi degu, ta Azkoiti'arrak —norbait aitatzearren— “esaten baxok” esango luteke. Baita *ekarriyok*. Beraz *esan ba'diok* ez; *esan ba'yok*. Eta “adiós” esan bearrean ere *ayo*.-D-k ta ik elkarren ondoan arkitzer diranean ematen duten otsa dala usteko du norbaitek. D-rik ez danean ere, alabaña, agertzen da ots orixe bera: *ogiyé urdaye, ardiye* eta abar. —Beste ontan berriz, *yek* ez-baña *iek* esan oi degu, ots “esaten ba'iek”. Errez ikusten da zergatik liteken: “esaten ba'iek” ortan, ez dira berez “d” ta “i” elkarren ondoan: berez *esaten ba'didak* bear luke; ta vocal artean *d* galdu ondoren, bitu dira *i* ta *a*, *guk i* ta *e* egiten ditugunak: *esaten ba'didak* > *esaten ba'diak* > *esaten ba'diek*. Orregatik ez da *y* soñurik sortzen.

Geyo esan oi degu, “geiago” esan bearrean.

Eta atziki -*ago* ontaz, beste zerbait. “I baño lenuo etorri nauk ni” esango dizue edozein azpeitiarrek. *Lenuo* ori, zer da ta nondik dator? Atziki -*ago* *guk* -o batean kixkur -arazten degu. *Ederro* ta ez *edeirago*. Beraz “lenuo” orren azken -o zer dan ba-dakigu: *Lenuago*. Ta *u* ori? “hipercharacterización” esaten zaiona daukagu emen: alegia *len* esan bear litzakena, *lenago* ta ortik *leno* egin degu *guk* “antes” esateko. “Len etorri naiz” esan ditekena, “leno etorri naiz” esan oi degu. Ta *len* orren comparativo “lenago” danez, *guk leno*-rena *lenago* ta ortik *lenoo*, ta ortik *lenuo* egiten degu. Gero *geroago* = *geruo* (Azpeiti'n); orren antzera ere *lenuo* sortu izatea ba-diteke.

Beste edozein Gramatika-zatitan ere ikusgarri eta jakingarriak. *Jun* ta ez *joan*. *Ber* ta ez *bear*. *Oindik* ta ez *oraindik*.

Bizkai-aldetiko kutsua ere ba-degula uste det, noizbait Mitxelenar Luis Jaunak, nere adiskide jatorrak, ezezko-antza eman ba'dit ere. *Dute* ez baño *debe* esan oi degu *guk*. Adibidez “Biyer datozela esan *debe*”. Mitxelenak zidanez amazpigarren mendean “debe” esan oi zan Gipuzko geienean. Alaxe izango zan. Baña *bage* ere *gabe* -ren orde, giputza al da? *Guk* Azpeiti'n *bage* esan oi degu, emen azpeitiarrak izan ta iñoiz oartu ez izatea litekena dalarik ere. “I etorri *bae* re osauko aituk bai” esan oi degu.

Ta toki-izenetan naiz giza-izenetan, pitxi baño pitxiagoak. Emakumeen izenak, gizonarenari -*sa* (*guk* -*si*) erantsirik ate-

ratzen zirala ba-dakizute. Ba emen ogei ta bost urte baño geiago dituan azpeitiarrrik ba'da, nai ta naiez daki "Abranixi" zein zan. Izen orrek zer esan nai ote zun, ez nekin nik noski orain urte batzuk, eta bein jakinmíñez aitari galdegin nion: Zu, zer dala-ta esaten genion "Abranixi" atso zar ari? "Jox!, erantzun zidan, bere senarrak Abraham zulako izena". Ta itxusiago ba'da ere beste izen au, "Motxordosie" zeritzaion —guk beñepein txikitan ala deitzen genion— beste emazte bat, ba-zan Azpeiti'n.

"Olkiñekue", "Amalaunekue", "Irentzaillekue", "Kapaingue", ta "Kapain-txikiyenekue", "Galtxanekue", "Txanboliñekue" ta abar, gerok ezagutu ta oraindik bizi diranak dira. Au ez al da euskera sustrairraño ezagutzeko arrobi joria?

Alderdi zaillak eta lana nolabait nasten dutenak ere ba-ditu arlo onek. Beste nunai bezela, Azpeiti'n ere ba-da bertako ez dan arrotz pilloa. Oiek ez dute denak euskeraz berdin egiten. Erri batetik bestera, askotan basetxe batetik bestera, izan oi dira nola edo alako alde txikiak. Beraz erri batean ontako monografi bat egiterakoan, erri ortako izkera zein dan eta beste edonundik ekarritako mintza-kera zein dan erabaki bear alde z aurretik. Izkera zerbait osoa da, eta okerrak diruditen esanak ere, zer-edo-zergatik sortuak dira eta beste zerbait osatu ta argitzen dute.

Bukatzer a noa. Noizbait egingo dedan lanaren zatiak ageri nai izan dizkizuet txikian Fonetike, Morfologi, aditza, toki-izen giza-izen... izango dira aztertuko ditudan saillak. Bearrezkoenak, nere ustez, eta neke gutxienekoak edozein monografitan oixek dira: etekin aundi ta izerdi gutxi.

Ta besterik ez. Nerea antzeko lantxo bat egiteko erabakia zuanari, asmo on ori kendu ez baldin ba'diot, pozik naiz; eta onelako asmorik ez zuanari, asmos ar-arazi ba'diot, oraindik pozikago Orixe iritxi nai nun itzalditxo ontaz. Milla esker!

ALTUNA'TAR PATXIKO, S. J.

Mitxelena jaunak akats batzuek erreparatu dizkio Bizkaiko euskerari buruz mintzatzen denean. Alegia, zer den dialektua eta nola formatu diren aztertu bear litzake.

Aita Agirretzek adierazten du askotan poztu egiten garela bereizkuntza ta pitxiakatik eta poztu bearrean zergatik ez garen tamaltzen. Mitxelenak erantzun dio medikuak geixoak

osatzeko lan egiten duela eta eztela poztutzen, erremedioak bi-llatu baizik, baiña orretarako medikuak geixoa ezagutu egin bear du.

Aita Kandido Izagirrek du itza.

OIÑATIKO LIÑAGIN-IZTEGITXOA (1)

Ateetan

Batu ditudan itz geienak beren artikulua kin daude ta, itz auek zela bukatzen diran ezagutzeko, ikusi lenengo zela aldatu oi diran Oiñatin itzak artikulua ezarritakoan: *buru-burua*, *beroberua*, *argi-argixa*, *erre-erria*, *uxaka-uxakia*. Bergaran ta Antzuelan bezelaxe. Marratxoen tartean agertzen diran guztiak, itzez-itza ta otsez-ots, Oiñatiarren aotik irakurri diran bezelaxe artuak daude.

Liñua ereiñ

“Liñua eraiñ, ereiñ, ériñ” esaten dute Oiñatiarrak. Agorreko ilberan, San Lino inguruan, ereiten zan liñua.

“Ereiñ” azia banatzen danean bakarrik esaten da. Azia zuloan ipinten danean “sartu” esan oi da: “artua markuan sartu, artua potolaka sartu, arbixa sartu”. Ala ere batzuk artoa ereiten dute, baita arbia ere. Baiña liñua danak “ereiñ” egiten zuten.

San Migel urriko...

Bada esaera bat: “San Migel urriko, liñua orri biko”, batek bakarrik esan dit ontara. Beste danak: “San Migel urriko, liñua iru orriko”. Liñuak, bear bezela etorriko bada, San Migeletarako ondo erneta egon bear duela esan nai du. Bizkaian, Azkue Jau-naren iztegiak dionez, beste ontara ematen dute esaera au “San

(1) Lan au gero egiterik ez da izango. Onegatik orain osotzeko gogo aundiakin nengoan; baiña esku-artetik atera didate mamitu baiño len. Dagonean gelditu bearko du ba.

Gai onezaz ogetabost bat laguni entzun diet banan-banan. Ala ere oraindio zeetasun asko zeuden galdegiteko, itzak ere gauzakin batera azaltzen ta izkututzen baitira.

Frantzisko urriko, liñoa iru orriko". Baiña Oiñatin, beren Zaindaria San Migel dalako-edo, danak "San Migel urriko" esaten dute.

Emakumezkoak

Liñu-lan guztietan emakumezkoak izaten zuten eskubiderik onena. Ez omen zuten nai izaten liñua lur onenean ereitea, "liñu-makillia" zakarregia egin etzedin; ezta lur txarrenean ere, kaxkarregia geratu etzedin... "bittarteko lurrian, erdizpuerdiko lurrian".

Berrogei urte

Baserri danetan ta urtero ereiten zan liñua, garia egondako "sail txikin bat". Ogei-ogetamar bat libra-ari iruten zan etxe bakoitzean. Saltzekorik beññere ez; batzutan Altsasura joaten ziran "ari-geixak" ekartera. Orain dala berrogei bat urte utzi zuten liñua ereitea.

Umeak arranakin

"Txori-maluak" ipinten ziran "liño-saillian", txoriak atera etzezen. Batzutan umeak egoten ziran zaitzen, txoriak izutzeko "arran" bat artuta. Beste lanik etzun izaten liñuak eldu edo "orritu-arte".

Liñua atera

Liñua ebai beññere etzan egiten. "Bagillen azken-aldera, San Juan-ostian, etaa, atara" egiten zan. Liñua egondako lurrean ar-torik etzan egiten edo azitzen. Onegatik esaten omen zan: "Liñonduan artoik eitten bada, i urrengo urtian be etxian". Baiña neguan mutillak lanerako kampa joan bearra izaten zuten. Orregatik esaten zitzaian "negu-mutillak".

Gorgoria

Ateratako liñua lenengo "karramaan karramaatu" egiten zuten "gorgoria" kentzeko. Gorgoria (erderaz *gárgola*) barruan "liñaxixa" eukitzen zun "ponpoillotxo" bat izaten zan. Gorgoria ere "idagurtu ta galbaatu" egiten zan azia gordetzeko.

Txirtazixa

Liñabera-aziaren izena “txirtazixa” entzun det. Lenengoan pentsatu liteke, itz ontan, liñuaren lenagoko izena-edo agertzen dala. Baiña “liñaberia euzkittan dana irakurten da” esan zidan amonatxo arek. Ez ote da izango eguzkitan “txirt-txirt” otsa egiten duelako “txirtazi” izen ori?

Liña jaikixak

Karramaatutako liñuakin “liña-jaikixak ein ta lotu” egiten ziran. Jaikixa ta sortia bat omen da. Baiña beste gauzetan ez dute esaten bedar-jaikixa, ira-jaikixa; “bedar-sortia, ira-sortia” baizik. Inolaz ere gero jotzeko diralako esaten zaie “jaikixak” (en sentido pasivo) liño-sortai. “Jaikixa” (en sentido activo), “ota-jaikixa, ezten-jaikixa” otea ta eztena jotzeko tresnai esaten zaie emen bertan.

Liña posura

Jaikiak “liña-posura” eraman ta amabost bat egunean, abarrak azpian ta arriak gaiñean ipiñita, ur garbitan eukitzen ziran, liñuaren azala ta tarteko belarrak ondo usteldu-arte. Ur otzegia ez omen zan ona izaten. Andrak ikusten jaikiak noiz zeuden ateratzeko moduan.

Etzeikixa

Gero beste amabost egunerako-edo zalaian “me-me-mee, ondo gixisaatuta”, zabaltzen zuten emakumeak. Sartzeko eran zegola zerizkiotenean jaikiak “liño-gixitxo bategaz lotu” ta barrura jasotzen zituzten. Lokarri onen izena “etzeikixa” zala esan zidan Oiñatiko batek. Antzuelan *etzekixa* ta Urretxuan *etzeikiya* gari-azaoa lotzeko lastozko lokarriari esaten diote. Beste Maringo batek, berriz, *etzeikixe* ogetalau eskukarako liño-sendorra zala; ta Koruetako batek *etxaikixa* berrogetamar eskukarakoa zala. Iru-ditzen zait itz onek sinifikatu biak ondo eraman ditzakela: “etzeiki” (en sentido activo) lokarria; eta *etxeiki* (en sentido pasivo) sendorra.

Liña-joillia

Ondoren “liña-joillaak mazaatu” egiten zuten. Liña-arriaren gaiñean liña-mazuakin jotzen zun gizonezko batek, aldiko jaiki bat, zuztar-aldeko “ipurdikixak” ondo kenduaz ta gaiñerakoan ere bigundu bat emanez, jaikiari eusten zion emakumeak ondo zegola eritzi-arte.

Liña - Eskua

Ta “itzutaak eitten zian”. “Itzutia” = “eskutia” esku-barruan artzen zan “gixixa” izaten zan. Gari-“azauai itzutia emun” esaten da. Zortzi itzuta ipinten ziran alkarren ondoan, ta aien gaiñean “kurtzetara” beste zortzi: au zan “liñaesku-erdixa”. Ta “32 itzutaakiñ eitten zan liña-eskua”. “32 esku izaten zan liña-eskua”.

Langilleak, bakoitzak aldiko liña-esku bat artuaz, lana berdiñago egin zezaten omen zan liña-eskua.

Trangaarixak

Urrengo “trangaakin trangaatu” emakumeak egiten zuten, liña-eskutik aldiko “eskukaratxo” bat artuaz; ta gero berriz ere “kurtzetara” lagatzen ziran “eskutaatxuak”. Trangatu-aurretik “euzkittu” egiten zuten liñua; ta eguzkirik ezpazan labean “igar-tu” oi zuten.

“Trangolak” bost ol izaten ziran. “Eldu-lekuakiñ” izaten zana “ol bikutza”; aren tartean sartzen zana “tranga-miña”; ta aldamenetakoak “tranga-belarrixak”. Oiei eusteko, “tranga-as-tuak, trangoiñak”.

Liño geiago zanean “trangaarixak” ibilten ziran etxe batetik bestera trangolak bizkarrean edo guardian artuta. “Azkenengo trangaarixak ein gittuanian...” Lan au kanpokoakin egiten zanean esan oi zan “trangaarixak eiñ”.

Kirriskixa

Orduan kentzen zitzaion liñuari “zarramarraik” aundiena. Trangan kentzen zan liño-azalari batzuk “kirriskixa” deitzen zioten: “liñua dana kirriskittan fuan da”; beste batzuk “kirriskia”: “liñua kirriskiatzu geratu ra”. Oraindio beste batzuk, “kizkixak” ere bai.

Berriz ere “kurtzeska” lagatzen ziran eskukadatxoak.

LIÑAGIÑAK

Illuntabartxuan

Beste egun batean “liñaiñak” edo “liña-lantzailaak” batzen ziran, aldiko, etxe batera. Auzo-uneko andrak eta neskak eta mutil batzuk (iru, sei edo bederatzitik ere bai, ogei-ogetamar bat lagun). Ta “illuntabartxuan” joaten ziran, aparria egiteko pitxar bana esne eramanez.

Astindu ta igortzi

Emen Graxiano bertsolariak idatzitako itz batzuk liñagiñen lana esateko: “Lenengo liño trangatua, txirikordatan jarrita, liño-arrien gañian batek eitz, ta mutillak mazuakin jo, ondo berotu-arte. Ta neskak sillatan jarrita, aldiko eskuta bat, ondo lantdu-arte igortzi, astindu jira ta buelta, kizki danak ustes kendu-arte. Eta bat edo bi egoten dira errestilluakin, bestiak landutakua, tresna aietan, iru klasetan jarteko”.

Itzak zela erabilli oi diran: “Liñagiñera fuan...; liñaiñeko ze oi akabautakuan...; liñaiñak ziranian...; aurtengo liñaiñak ein ttuu; liñaiñetan entzun neen; liñagintzai oi artara izaten zan; liñaintzaia danian izaten dia errestillaarixak”.

Esku soillez

“Liñua apainddu” gutxik esaten dute Oiñatin. Geien-geienak: “Liñua landu, liñu-lantzeia, liña-lantzeia, liñua gosaaketia”. Ortarako etzuten erabilten ez ezpatarik, ez suatsik. Emendik ondoan, Urretxuan, *suatsak* ta *suasleek* izaten ziran ta *suastu* ere sarri aitatzen da an. Lan ori Oiñatin esku-soillez egiten zuten.

Errestillaarixak

“Txarrantxia” Bergara aldera bizi diran Oiñatiar batzuk esaten dute. Baiña Oiñatikoz izena: “arrastillua, errastillua, errestillua” da. Ta “errestillau”.

“Errestillu nasaixa ta errestillu estua” izaten ziran.

“Lenengo errestillu nasaixan orrasketan zian ari-geixak. Ta errestillu-kizkixetan geaketan sana, karraskia (ari-gei zakarrena),

ira ebateako jipoiak eitteko izate san. Gero ari-gei onena errestillu estuan berriz orrastu, ta errestilluan geldiketan sana amelua (ari-gei bigunagua) izate san; ta eskuan geaketa sana kirrua (ari-gei gosuena)”.

Fillarea egiteko ari-gai fiñagoa nai zutenean, kirrua berriz ere orraztu ta “kirratxak” edo “kirratxa” ateratzen zuten. Au izaten zan danetan fiñena. Gauza bat meia zala adierazteko: “kirratxa baiña meiagua da” esan oi zan. Azkue Jaunaren iztegiak *fillari* jartzen du. Baiña Oiñatin ta inguruetan itz ori ez da ortara entzuten: “fillara-arixa, fillara-orraatza, fillara-arilla, oiñ ezta fillaraik eitten, oiñ eztao fillaagintzaik” esaten da. Beraz itz ori Oiñatin ta inguruetan *fillara* da.

Errestillu nasaian kentzen ziran liñuaren puntako zakarrak “karraska gixixa, burgatxa, burdatxak, mortotxak” izaten ziran. Batzutan soka-zarrak eta egiteko gordetzen ziran; baiña geienetan botatzeko edo erretzeko izan oi ziran. “Ori kukuai frakaak eitteko” esaten zitzaien umeai.

Txirikordatu

Gero kirrua bigurtuaz “kordatu, txirikordatu, kopetaatu, kirrua eiñ” danetara esaten zan ta dana da bat. Beti bikondan egiten zan ori. “Txoriburu kirruai erdi-erdixan etaaten xakon”. Koskor edo buru ori-kirrua kordatzerakoan ateratzen zan. Baiña “txoriburu” esaten zitzaien ariaren sendo-uneai ere: “Oik dittun txoriburuak!”, edo-ta: “Or tropoillo ein dozu”.

Ta txirikordak bata besteakin naastu etzitezen lotu egiten ziran, punta biak alkarrekin “txingurtuaz” edo “txingurkatxo” (biur) bat egiñez. “Txirikordia” ziran karraskea ta amelua, apartau-aurretik, luze-luze zeudenean ere. Ta “arixa dana txirikordatu xat” (=bata besteakin naastu zait).

Amelutaak

Karraska ta ameluakin egiten ziran mordotxoai “amukua” deitzen zitzaien, baita “amelutia, amelutaak” ere; baiña “amelutia” geienetan kardaatutako ardi-uleari esaten omen zaio. “Amukua” zan aurreko egunean irun gabe goruan lagatako “mutxaka”ren izena ere: “amukua irun lenengo”, esaten zitzaien gatzetxoai.

Lan auek geienetan "su-argixaz" egiten ziran. "Batek abarrak, aldiko gutxi, suari emunas, argi erañ. Beste danak inguruan jarrita ikusteko. Argi-eraillia aiskuamente" mutiko bat izaten zan.

Sorgin-afarixa

Ari-gai danak antolatutakoan, aparía. Gaueko ordu batak aldera. Etxean zerbait apalduta joaten ziranentzat bigarren aparía. Izenak: "Sorgiñ-afarixa, lapur-afarixa (batzutan disfrazau egiten ziralako), liña- afaixa, liñaiñ-afaixa, liñaiñ-errondia..." Ta ondoren izaten ziran "errondaarixak".

Emen berriz ere Graxianoren itz batzuk: "...Eta lan ori aka-batzian egiten san sorgiñ-afarixa: gastañerriak eta katillukada bat edo bi edo iru esne, seiñek senbait gura. Orduan batek atan-bora jo ta seiñek obeto egiñ dantza askatua. Gero bakoitza bere etxera, bidian seiñek lekaixo ederkixago egiñas, bata bestiari eran-zunaz".

Orain, ostro-arte ontatik aterata, Azkue Jaunaren iztegian agertzen ez diran izenak bakarrik aitatuko ditut:

Liñu-makillia	Liñaintzaia
Txirtazixa	Errestillua
Jaikixa (en s. pas.)	Errestillau
Gixi-saatu	Errestillaarixak
Etxeikixa	Kirratxa
Liña-joillaak	Burgatxa
Ipurdikixak	Kirruña (kirruak egiten zitu- tuna)
Euzkitu (en s. act.)	Txingurtu
Igartu (en s. act.)	Txingurkatxo bat eiñ
Tranga-miiña	Tropoillo eiñ
Tranga-belarrixak	Amelutia
Trangaarixak	Mutxakia
Trangaarixak eiñ	Su-argixa
Kirriskixa	Argi-eraillia
Kirriskia	Lapur-afarixa
Kirriskaatzu	Errondaarixak
Liña-eskua	Fillaagintzaia
Eskukara = 32 esku	Irakurri (en intrans.)
Liñaiñak	Ponpoillotxua
Liñaiñak eiñ	

Iztegi ortan ez dauden beste itz batzuk, edo beintzat emengo sinifikatuakin ez daudenak:

DORNU-GORUA. Batzuk erabilten zuten Oiñatin, aria lenago egiteko.

IRULAAK. Ardi-ulia maratillan iruten dutenai bakarrik (besteai “gorulaak, gorulaarixak”) esaten zaie Oiñatin. Gizonezkoak izaten dira.

GORUGIÑAK. Goruak egiten zituztenak. Zaratea ateratzeko irulau perdigoe edo arta-ale biribillena goruburuan sartuta egiten zituzten.

TXURRUKIA. Ardatzak alde batetik eukitzen dun gurpiltxo edo txirrikatxo. “Ardaz-txurrukia” ta “ardatz-txurkia” esaten da. “6 edo 8 ardatzekin” edo “ardazkarakin” egiten zan matasea.

KUKU-ARIXA. Neskatilla ikasigabeak lenengotan egiten zuten ari zakarra zan; edo-ta arigai oso zakarrakin egiten zan aria (“ori kukuai frakaak eiteko”). Burla egiteko bakarrik artzen zan izen ori.

TIRTARIXA. “Ari onek tirtarixak, tirtari-unaak, dako” = Ariaren “miar-mankaak” edo “me-unaak”; andik, biurtuezkero, “tirt” eteten zan aria. Itz onek badu Oiñatin ere “iru aizpa *titilitotola*, asmau-eziña eukaiñen, ipuiña: *Tirtarixa tirteten...*”

EZKERRA, EZKER-BIURRA EMUN; EZKER-BIURRA ARTU. Fillarea iruteko bear izaten zan.

TXINGOLA, TXINGULA ARTU DAU. Ariari geiegi biurtutakoan egiten zaion korapilloa. “Bigur larregiak emuten xaona da txingula”.

TXINGOLDU edo “dana *txinguldu* da”.

KISKUR-BIURRA, KIXKIR-BIURRA, KIXKIL-BIURRA, TXIL-BIURRA ARTU DAU (Aurrekoarena esan nai du). Ta “txilbiurtu” ta “txiliburra kendu”.

FILLAA-ARDATZA. Bi berdiñak erabilten ziran fillarea egiteko. Beste ardatza baiño aunditxoagoak izaten ziran, ta “kantxo bana” izaten zituzten.

IKOOTZA, IKOOSKIXA. Matasea egiteko tresnea. Au makillatxo bat izaten zan, goenean ta barrenean bi ziri sartuta, matasea kentzeko goeneko ziria ateratzen zala. Eskukoa zan. Tresna au aitatzeko “ikootza” bati bakarrik entzun diot; beste da-nak: “ikooskixa”.

DORNU-IKOOSKIXA. Matasea egiteko bueltako makinatxo. Batzuk izaten zuten. *Matakuzkiya* esaten zaio Urretxuan beroni,

ta *matakuzkittu*. Oiñatiko Askasubi baserrian ere "matakus-kixa" esan zidaten.

IKOOSTU (geienak), IKOOSKITTU. Matasea egitea.

MATASAATU ere esaten da "arixa".

IKOOSKAA, IKOOSKARA batekiñ eiten zan matasia". Beste ba-tek: "40 *kirrukiñ* eitten zan matasia".

Ikoosterakoan aria bere bidetik eraman ez ta "tropil sor-tu daiñian: zaldixa artu dau, esaten da". Baita: "Or saldixa non ein dozun".

ALETXIXA, ALITXIXA EIÑ. Matasea egiterakoan ariaren lenen-go puntea ta gero azkenengoa ere bai matasan lotu bear izaten dira, matasea naastu eztedin. Ori da alitxixa egitea. "Alezaña" ere esaten diote.

AUTZ-ESNETU. Au egiten zan lenengo matasak zuritzeko: ur otzetan autzakiñ euki.

BERDANDU. Urrengo "autzas egosi".

PUXETAATU. Azkenengo "ur goritan egosi iru-lau aldiz".

AUSLANDARRA. Ikatzak kendutako autsa.

AUSLANDARTU. Matasak zuritzeko.

AUSBERAATU. Idem.

AUSTU (matasak). "Matasaak *austeian* egosi"; "matasaak *aus-tiaketia*".

ZERRAITTIA OLGAITTIA, ARILKETIA NEKAITTIA. Esaera au "adilkixak" ekarri baiño lenagokoa omen da. Antxiña ma-tasea silla-adarrean ipiñi ta aren bueltan ibilli bear izaten omen zan aria arillean batzeko. *Zerretie, olgetie, arilketie, ne-ketie*, esaten da Mariñen ere.

EULATZAIA lanbide nekosua".

EUNKETIA. "Euna ixotia".

ZELAIÑEKA eitten zan euna". Zelaiña eunaren luzerako neurria zan: 6 kana.

AMARRETXIA, amarretxezko alkondaria". Kirru utsez egindako eunik fiñena omen zan.

ETXE-EUNAK KALE-EUNAK baiño iraupen" ohea izaten zula esaten dute.

Eunak eun BIALEKU. "Gauza bat gura ta ezin zuzendu: au da bialekua!" Geiagok: "Eunak eun lan".

Amar minutoko atsedenaldia. Aita Fernando Mendizabalek du itza.

LARDIZABAL'EN EUSKERAZ ZERTXOBATT

Iñoren aurrean lenengoz itzegiteak, zueri ez dakit baña neri beintzat' larrialdi ederra eman dit. "Zer esan bear zeat, ba, nik kattakume onek?, nion nere baitan, I ixilik egonda ere' ba-zegok bai an nork itzezin!" Baña beste au ere idaroki zidan ez dakit nungo sorgiñen batek, eta orduan sosegatu nintzan: "Batean punpa, besten panpa, urrengoan zilipurdi ta arrantza, ola ikasten duk zutik ibiltzen". Eta olaxe jarri nintzan oraingoan punpa egitera. Bai punpateko ederra artu ere! Orain ikusiko duzute.

Besterako indarrrik ez-eta, Lardizabal'i buruz zertxobait egi-tea artu nuan langaitzat. Ain zuzen onexegatik: Euskera uts utsa eta ederrena ikasteko' iturrietara jo bear dugulako; eta emen ba-sittu on bat artu ondoren' orduan al izango dugulako euskera gori gori itzezin. Binbitartean' euskera sapat bat egitetik gora ez gera igoko. Ur arrea daukaten osiñak utzi bai' eta iturrietako ur pitxidunetara joan bear dugu.

Iturri auek' Jainkoak bakarrik dakizkianeko aldietatik eus-ker-a darioten iturri auek' erriaren ezpañak ditugu lenengo eta nagusienik; eta gero idazle asabarrak. Ona emen nungo euskera edan bear dugun. Moskortzeko bildurrik gabe edan ere gañera! Ez baidigute kalterik egiñen euskera-ardozko moskorraldi batzuk. Gañera, olako moskorrik' ez du debekatu Jainkoak.

Jo lasai ortik. Euskerazko ardo ori bear dugu euskaldun jator izateko. Ori aztarrikatu, aztertu, atxurtu, laiatu ta goldetu bear dugu gure euskera mardul izan dedin.

Bi iturri dauzkagula, esan dugu, euskera jasotzeko: erria eta idazle asabarrak. Erriak' bere gorrian emango digu izkuntza, ba-soko gauza bat bezelaxe. Gero' etorriko da norbait eta iztegi ba-tean bilduko du basamintzo ori. Erritiko iturri onen ordezkari bezela' Azkue'ren iztegi nagusia artu genezake; baña erriaren itz oro' iztegi ortan daudenik uste izan gabe. Aberastasun askotxo baidauzkagu oraindik biltzeke. Ondoren' liburugillea etorriko da.

Erri xeak baño adimen zorrotzagoa izaten du, eta gauza berriak esan bearra ere bai. Orduan, erria iturburuztat artu badeza ere', basamintzo ori xertatzen asiko da, txukunagotzen eta dotoreagotzen; itz berriak ere asmako ditu bere bururakizun berrien adierazteko. Txertu ta itz berri auek' ez ditu lenagoko iztegiak ekarriko, eta bildu egin bear dira urrengokoan sartu ditezten.

Onelako lantxoren bat egin dut nik emen. Itzak biltze au' ez da zalla. Edonork, eta nik baño obeto, egin dezakezutena da; baño norbaitek egin bearrekoa, eta etekin aundikoa euskerazko iztegi berri batentzat. Bestetarako indarrrik ez neukalako' itzetan bakarrik geldi natzaizute, indartsuago zindezketen beste norbaitek' gañuntzeko alderdiak landuko dizkiozutela-ta.

Lardizabal'en "Testamentu zarreko ta herriko kondaira" artu dut lantokitzak. Baña Jaun au nor dan laburkiro esatea' egoki eritzi zait. "Laburkiro" esan dut, bai "laburkiro" kuantu, ezer gutxi baidakigu bere bizitzaz.

Franzisko Iñazio Lardizabal' Zaldibi'n jaio zan, 1806-ko Uzta-
ren 5-n. Urrengo egunean bataiatu zuten Santa Fe'ren elizan. Lenengo eskola' erri berean artu zuan. Noiz ez dakigula' apaiz izateko gogoia etorri zitzaion, eta Lazkau'ko Karmeldarretan egin zituan bere apaizgaitako lenengo ikastaldiak. Oiek baizeuden Lazkau'n garai artan, gaurregun S. Benitotarrak dauden pralletean. Ez dakit noiz arte egon zitekean Lardizabal prallete ontan. Gerrogo Gaztelerrira joan omen zan, Burgos aldera-edo. Azkenik' Madrillen bukatu zituan bere apaizgaitako ikas-jardunak.

Onezkero' bapo daukazute Lardizabal apaizgoa artzeko. Gero Zaldibi bertako benefiziadu ta erretore izan genduan. Azkenik' 1855'n Zaldibi'n zabaldu zan izurriteak jotakoeri laguntzen ari zala kutsatu, eta dagonillaren 20'n il zan; auzokoen artean min aundia utzia.

Bere tasunei buruz' ez dakigu gauza aundirik. Bere *Gramática Vascongada*-ren itzaurregilleak esaten digunez, aiurri legun eta atsegingarria omen zuan oso, eta txit oneritzia zuten beren lagun ugariak. Odolbizikoa ere ez; neurrizko gizona, xumea, eta besteei onegiteko' biotzaundikoa. Irudimentsu baño adimentsuago agertzen zaigu, eta biotzari baño buruarentzatago idatziaz. Orregatik, ez duzute bere idazkeran' kiskalerazita bere ondoren eramango zaituzten surik arkituko. Gogaitu ere' etzaituzte egiñen. Gauzak poliki poliki eta txukun txukun esan' eta kitto. Etxegarai'k liogu kenez "perfección negativa del estilo" dauka, alegia, utsune guztiak poliki poliki kentzetik datorkiona. Itz batez esanda: "akatsik-gabetasuna".

Bi liburu utzi dizkigu: "Testamentu zarreko ta berriko kondaira" eta "Gramática Vascongada". Gipuzkoako Aldundiak eragin zion bigarren au idaztera. Eta 1855'n, Ernani'ko Biltzar Nagusiek' erabaki au artu omen zuten: "Provintziaren kontu gelditu zedilla liburu ori argitaratzea; eta Aldundiak erriei' berorren zenbakiak banatu zekizkienean, ardura artu zedilla, lenengo erakustaldiko maixuei bana emateko, euskeraren erakustea zabalagotu zedin." (Gorosabel, "Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa", t. I, 398'gn orrialdean).

A. Larramendi euskalzale aundiak idatzitako gramatikaren utsune ta aketsak osatzeko eratu zuan Lardizabal'ek berea. Eta beronen elazketa zuzentzen ari zala atzitu zuan eriotzak. Itzaurrerik gabe utzi zuan, eta Aldundiaren aginduz' Gereka'tar Erramonek egin zion itzaurrea. Giputzerari bakarrik lotzea omen zuan bere asmoa, baña bizkaiera ta naparrera ere' berdintsu azaltzen ditu. Ikusita zeuzkan, bere aurreti, euskera gaietan idatzi izan zutenak: Larramendi, Astarloa, Zabala, Mogel, Mendiburu, Kardaberaz, Ubillos, Agirre, etab... aitamentatik ikusten danez. Gereka'tar Erramonek dionez' oso entzuna omen zan euskera landako Lardizabalen arrigarritzko jakitea. Eta Azkuek' "bere egunetako gramatikalaririk aundiena zala" esaien du.

Balio aundiagoko' ez dakit, baña gramatika baño irakurriago eta ezagunago' ba-du Lardizabal'ek beste liburu bat: "Testamentu zarreko ta berriko kondaira" alegia. Amaikatxo on egindako liburua auxe. Orixe jaunaren esatez' "euskera eder, garbi eta ugaria du Idazteunaren laburtzapen onek". Irakurle asko zituan bein batean, baña gaurregun' urri samar dituala uste dut.

Gramatika baño lenagokoa da; eta Azkue'ren iritiz' ezagun omen da lan ontan noiz gramatikagiletu zan Lardizabal. 548 orrialde ditu len-argitaraldiko lan eder onek. Nik ez dut ikusi, Azkue'k ikusi omen zuan Lardizabal'ek eskuz egin zuena berbera, osorik ezarren. (*Euskera* aldizkarian "Lardizabal'en Testamentu zarreko ta berriko kondaira", 1928, 339'en orrialdean. Emendik aurrera Azkue aita dezagunean' lan ortiko itzak izango dira). Entzun ditzagun Azkue beraren itzak: "Nere betazalak berezi ezin ditezken egunetik, nere iltamu-ondoan, Euskaltzaindiarena izango den liburu onetan bi lan dakuskigu. Or-emenka itz bat marraz erdi-estali ta bere gañean zuzendurik (geienetan okerturik) egeretzen da. Birridazketa auek Lardizabal'ek berak egiñak direla argi-argi ageri da. Noiz egiñak dira ordea? Nere ustez gramatika-arazoan sartuta gero, euskera ikertzen asi ezkerokoa dirudi birlan onek. Lenengo izkera erriarengandikoa da, bigarreanean itz eta izkera-azterzaile baten lana dakust, edo beintzat dakustalakoa

nago. Ona emen gerta kari batzuk. Lenengo, idaztaldian erriak bezela zion Lardizabal'ek: "irten nai izan etzueneko" (144-18), "buru izan bear zuela-ta" (159-8), "izan nai bazuten" (185-5), "biar il bear dezu" (198-12) (Eskuzko liburuaren orrialde-lerroak dira auek). Bigarengo idazkeran onelaxe aldatu zituen esakera eder oriek: "irten nai izan etzaneko" (140-18), "buru izan bear zala-ta" (150-36), "izan nai baziran" (174-27), "biar il bearko zera" (158-28). (Orrialde ta lerro auek' 1885'an Tolosan argitaratutako liburutikoak dira. Nik' ez daukat liburu ori eskura eta 1855'an argitaratutakotik aitatzen ditut). *Nai izan*'ek eta *bear izan*'ek beti eskatzen dute auxiliari transitivo beren kideztat naiz *irten*, *izan*, *il*... naiz beste edozein aditz intransitibo dutenean, baita kide au izen bat denean ere. Ikusi ontarako "Morfologia Vasca", 144-33.

Lenengo idaztaldiko beste esakera askoeri ere' egin omen zien bere ikutuxoa. Gañera' Lardizabal'en kondaira irakurtzen asi dediñak' belaxe oartuko du Azkue'k dioneko beste ura ere. Alegia, Lardizabal' erabateko oso-zalea dala. Ona adibide bezelako batzuk. Itzaurrea irakurtzen asi besterik ez eta amaseigarren errenkadan, guk *itzkuntza* idazten duguna, arek' *itzkuntza* idatziko dizute; itz orren muiña' iz ez baña *itz* dalako. Eta berebat *eriotz-pean* (2-36). Jarraitu irakurtzen eta itzaurreko bereko emeretzigarren lerroan onako au ikusiko duzute: "zeron begiakkin guztia zekusaten". Eta atzerago' (14-2) "bere gauza guziakkin bialdu zuen"; eta orrialde berontako seigarren errenkadan: "Aberastasun andiakkin".

Ba-zekian askorentzako mugitza' -*ak* zana, eta ez dio orixe iñola ere kenduko, datorrena datorrela -*ak* orren ondoren. Beste auetan ere: "Jose'ren anaiaren joanera" (54-28), eta "bere ganbaraetan arkitzen zuten" (54-32). *Anzia* ta *ganbara* itzei ere' ez die iñoiz ere -*a* ori kenduko. Gañerakoa' berebat. Osozale dana' ondo agertuta dagoela uste dut.

Orain galde au: Nungo euskera-mota dauka Lardizabal'ek bere liburuan? Giputzera ia erabat; baña ez da arritzeko liburu ortan Bizkai ta Naparroako euskeraren usaia aditzea. Gogora dezagun bere gramatikan' giputz, bizkai ta naparrerak daukatela toki, ta ez gelegi arrituko kutsu orrek. Gañera, Lardizabal'ek' jaio ta bizi, apaizgaitaroa ez gañetikoa, Zaldibi'n egin zituan. Zaldibi'ko euskerak, berriz, ba-du tankera piska bat bai naparrerakin, onen muga ondoan dagoelako, eta nik ez dakit zergatik baña bizkaierakin ere ba-du beste antz piska bat. Au dala-ta, ez gaitu arri-tu bear euskalki oietako itzak' gutxi-asko berdin eukitzeak. Iñundik ere onelako batzuketatik zion Azkuek "Bizkaiko zertxo auetatik bat edo beste Zaldibian berean ere ikasi zitezkean"-a. Baña eun-da

geiago alditan derabilen *gitxi* bizkaitar ori' etzuan Zaldibi'n ikasi, edo beintzat gaurregun ez da esaten.

Beste ezer baño geiago' Fr. Bartolome'ren liburuetan ipintzen du Azkue jaunak, erdal-kutsuko batzuen gañera, bizkai-kutsuko oien iturria. Eta ondoren' agiri batzuk ezartzen ditu.

Benaparroa'ko esakera gutxi batzuk ere ba-daude. Baña, Basussarry'ko erretore Larregi'ren "Testamentu zarreko ta berriko kondaira" begien aurretan euki izan zuala jakin ezkerro, arritzeko ez da gutxi oiek baño esakera ta itz geiago artu ez izatea. Ona batzuk: "baratza zaia *zalakoak*", el tenido por hortelano (508-18); "*betetzer* zanean", cuando estaba a punto de llenarse (501-8); "*il-izer* uzten zutela", dejándole a punto de morir (567-2). Azkue'k aitaturikoak dira iru adibideok.

Beste au ere' etzuan Zaldibi'an ikasi Lardizabal'ek. Mugitzetan' *e* zale badira ere, aditzetan' *a* zale dira zaldibitarrak, beste goierritarren antzera. Orregatik diot etzuala Zaldibi'n ikasi ori. Beti "duena, dituen, dituela, dakarzkiena, zuen", beti *e* erabiltzen du. Adibideok' itzaurretik ateratakoak dira: oiekin nasin, ordea, beste onako auek ere erabiltzen ditu: "diralarik, *zan, dana*". Ola-koetan beti' *a* ipintzen du.

Idiki dezagun beste barruagoko orrialde bat, 377'gna. esate baterako. Emen ere' nasin arkituko ditugu: "zegoan, zuen, zuela, *zala* nauenaren, zeukan". "Zeukan" ez baña "zeuken" esaten genduan, ba, Zaldibi'n! Bere gramatikan ere ez dauka erabateko berdintasunik. Epentesitar letra orren aurretik *u* datorren guztietan *e* ipintzen du: "zuen, *nuen*" bezela. *I* danean ere' geienetan bai, baña beti ez: "dakarkiena, nerauskian" bezela. Beste letra guztiak datoztenean' *a* ipintzen du beti: "zegoan, zeukan, *zala, diralarik, dana, tab...*"

Erderakadak ere ba-ditu banaka banaka; baña bere egunetako ta aurreagoko idazleekin neurtzen badugu' alde aundia ikusiren diogu sail ontan beste idazleetatik.

Legezkozat zeukan ezkerro' ba-dirudi *zeñe* -jende ori' parra parra arkitu bear dugula *Kondairan*. Ez, ba. Erabili, bai, baderabil; baña Larramendi'k eta Kardaberaz'ek-eta bezin ugari ez. Somatzen zuan, nunbait, euskerazko soñekoz jantzita egonarren' euskaldun euskaldun etzana esakera ori. Ona adibide bat: itzaurreko orrialde oso osoan' bakar auxe besterik ez dakar: "(Kondaira onek) Jaungoikoaren obra miragarrien berriak ugari eman-go dizkizute, *zeñak* ikusita, zuen biotzak arrizkoak ez badira, artuko dute, ain Ongille onarekin leialak izateko *gogo*, nere nekearen saririk naiena izango *dana*". *Zeña'* sarriegi ez baderabil ere' adibide ortan agertu dan azkeneko kera ori' bai, maiz samar

erabiltzen du: “*gogo*,... *naiena izango dana*” ori, alegia. Frasea luzesamarra danean batezere’ askotan erabiltzen du relativoa azken kera ortara. Relativodun esakuntzaren aurrekoa lenengo ezarri, eta relativoduna ondoren botatzen du. Baña Euskeraren izakerak’ lenengo eramaten baidu relativoaren ezaugarria *-n*, eta gero ezau-garri orrekin ezer ikustekorik daukan itza edo esaera, Lardizabal’en esaera orrek ere’ gordetzen du ordena au. Ortarako’ *-a* atzizki bat erasten dio relativodun aditzari, zintzilika bezela utzitako fra-searen ordezkari izan dedin. Au argiago ikusteko’ esakun motx batean jarriko dizutet nik, esakun luzeetan bakarrik, Lardizabal’ek egiten duan ori. Esate baterako’ “*nik ikusi dutan gizona*” esan bearrean’ “*gizon, nik ikusi dutana*” esaten du arek. Lenengo *gizon* ori, mugitzik gabe’ zintzilika bezela dago; eta orri palta zaion *a* azkenean joango dan aditzak eramango du: “*gizon(a), nik ikusi dutana*”. Esaera’ laburra danean, emen bezela, itxusi samar ematen badu ere relativoa orrela erabiltzeak, ez du orren itxusi ematen esakuntza’ luzea danean. Ona berriz len aipatu dugun esakun bera eta zerok ikusiko duzute gogor egiten danentz: “...zuen biotzak arrizkoak ez badira, artuko dute, ain Ongille onarekin leialak izateko *gogo*, nere nekearen saririk *naiena izango dana*”.

Zeren ere erabiltzen du noizpeinka: “*barkatu zaiezu, ene Aita, zeren ezdakiten zer egiten duten*” (459-24). Baña *zeña baño gutxiagotan* erabiltzen du.

Non ere bai, banaka banakatxotan: “*Betel’era joan zan, non Jainkoak berriz ere itz egin zion*” (46-14).

Zergatik ere ikusi diot bein gutxienez: “*Balaan’ek... erantzun zion: zergatik merezi dekan*” (102-3).

Nola ere bai: “*Jainkoak eskua nola actua ez daukan*” (102-30).

Azkenik, erdal-kutsuzkoen artean *maite izan -en’ordez’ nai izan* erabiltzen du batzutan erderazko *le quiere* bezela: “*ainbeste nai zion emaztearen iltzea*” (46-25).

Erdal-kutsuzkoen ondoren bestelako batzuk esango ditut. Gaurregun, erriak konjugatzen eztituan aditz batzuk’ parra parra erabiltzen ditu Lardizabal’ek, guk *ekarri* ta *jakin* bezelaxe: “*ikusi, jarraiki, iraun, etzin edo etzan*”. Urrengo auk’ gutxiagotan erabiltzen ditu: “*entzun, irakin, erasan, jardun, izeki ta itxeki*”. *Erasan* aditzari buruz’ zera esan bear dut, bi esanai ematen dizkiola: bat’ “*esan arazo*”: “*bildurrak erasaten* ziela pentsatu, eta erantzun zien” (73-29); eta bigarrena’ “*esan*”: “*zertako ekarri ginduzun Moises-i zerasaten*” (100-4).

Erran lapurtarra ere’ konjugatu zuan arako artan: “*zerbait derragan Job santu pazientziazko maisuaren gañean*” (254-34).

Itzak dirala-ta' zer esango dut? Auxe: itz asko dauzkala Azkue'ren iztegi nagusiak ez dakarzkianak; batzuk' Larramendi'ren iztegitik jasoak dirala inñundik ere: "lurruspe" (26-19) aitzulo edo koba esateko.

Berak ere asmatuko zituan, noski, sail aundi ortatik batzuan batzuk benik. Oni bear bezela erantzuteko' bere aurreko idazleak-eta ikusi bear, zein zeñena ta zein guztiena dan jakiteko. Itz-biltze ontan jardun izan naizen bitartean' eritzi ontara eldu naiz: Azkue'ren iztegi nagusiak ba-ote-zekarzkian begiratzan nituan itzetan' batzuk argi zeukaten beren esanaia, beste batzuk, berriz' ez. Bai, ba; ulertzen ez nituan itzak, bat edo beste ez gañetikoak' bazekarzkian iztegiak; olako edo alako bazterretan esaten zirala, baña erritiko itzak ziran. Eta ekarri ez dakarzkian itzak, berriz' ulerterrexak dira geientsuenak.

Buru burutan sartu bearrekoa da auxe, inñoz edo noiz itz-asmatzen norbait asi baledi.

Lardizabal'en ortografiari buruz ere' esan dezagun zertxobait. Erderazko itzai, edo erdera-euskeratuai' erdera berean daukaten ortografia ematen die; eta arritzekoa ere ez da bere gramatikan arau berori ematen duala jakin ezkeru.

Izen bereziak edo propioak, bakoitza' beren izkuntzetan diran bezela idazten ditu. Eta bestelako izen arrontak, erderakoen senide diranak, bakoitza' beren berezitasunekin. Esate baterako' *v*-gaz idazten ditu beti: "salvatzallea, vertute, virjiña, servitziari, etab..." Ba-ditu gañera beste itz batzuk *v*-gaz idazten dituanak ere: *vizi* eta beronen itz derivatu guztiak. Orañarte, beñepein' euskalduntzat neukan nik itz ori, baña Lardizabal'entzat inñundik ere' latinhezko "vita" edo grekozko "byos"-tik dator. Emen aldamenen dauzkagun Jaun agurgarriok emango digute azken itza. *Viotza* ere *v*-dun egiten du arako artan: "*viotza* zabaldu zion" (47-16). Makurren bat ote? Ez dakit; *v* gabe idazten baidu itz berori bestetan, eta berorren derivatuak ere bai. *Vide* ere' *v*-gaz idazten du bein edo bestetan; "gauza on asko arturik *v* iderako prestatu zan" (27-6).

Gauzak bereiztea ere' nai izaten zuan gure Lardizabal'ek. Eta inñundik ere joera onek eraginda, ots berdiñeko itzak' bestedindu edo berezitu egin nai ditu. Esaterako, "ura" itz-otsak' esanai bi dauzka: bata' irugarren mallako izenordezko edo prononbrea; eta bigarren' itxasoko osin aundia betetzen duan gauza busti ori. Nola berezi bi auek? Lenengo izenordezko-edo dalako ori' *h*-dun egiten du, eta bestea' batere gabe utzi: "ordu *hura* ezkeru" (5-24), eta "zigorra jaso, eta ura jotzearekin..." (73-37). *Hume* itza ere' ez dakit zergatik baña, beti *h*-dun egiten du: "eta bitarte onetan

hume ta humeen hume asko ezagutu zituen" (12-14). Berezi-nai onek eraginda-edo' onako auxe idatzi zuan; Abraham-en aotan jarriaz: "eun urteko agureak *semea* izan, eta Sara larogeita amarrekoak *aur-egin*" (18-11), *seme* ta *aur* itzekin joku polit ori egiñaz.

Beste gauzatxo bat ere oartzen dugu kondaira irakurtzen asi ta berealaxe. Ezezko edo ez tun diran ia esakera guztietan' onelaka idazten du Lardizabal'ek: "ekarri *etzuten*", "alako gizonik izan *etzan*", "igerri *etzioten*" (377-11). Esaera finala danean' *n* konjuntivo bat erasten diogu aditzari azkenean, tasun ori adierazteko. Eta indar aundiagoa ematearren' onela esaten ditugu ez tun esaera oiek: "etorri *ez dedin*, eman *ez dezaion*, jota bota *ez dezaten*", etab... Beste konjuntivoekin ere' berdin gertatzen zaigu: "ikusi *ez dutanean*, ekarri *ez dutelakoan*, etorri *ez danarren*, ikusten *ez badut*", etab... Baña esaera oiek berezitasun ori gabe daudenean' ez dugu esaten: "etorri *ez da*, eman *ez dio*, ikusi *ez dut*", etab... aparteko tokiren batean izan ezik. Baña kera ori arrontzat artu' iñola ere ez. Guk arrontki' beste onela esaten dugu. "*Ez da etorri, ez diot eman*", etab... Lardizabal'ek ordea' ez. Onek, konjuntivo ori' euki baleukate bezela erabiltzen ditu beti bere aditzak ez tun esaera ia guztietan.

Olako gauza txiki batzuk gora bera' "esku oneko itz-jostun agertzen zaigu Zaldibiko euskalari bikaiña", Azkue'ren itzekin berekin esateko. Jainkoak demaizkigula olako idazlari asko.

Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak ondo artu! Agur!

Iztegitxoarekiko oar txiki bat jarri nai nuke emen. Len esan dutanez' Azkue'ren iztegi nagusiak ez dakarzkian itzak biltzea da nere xedea. Baña, ba-daude itz batzuk iztegi orrek ba-dakarzkianak ekarri; nik arkitu diotan esanaiarekin, ordea' ez, eta orregatik ekarri ez balekarzki bezela jarri ditut. Adibidez: *adierazi*. Azkue'k "interpretar" esanai bakarra jartzen dio. Emen berriz' ba-dauzka beste aukerak ere: "significar, darse a entender, manifestar", eta onela besteak.

Gaiñera' gaurrengungo ortografia jarri diot. Ez baidauka ete-kiñik onelako lan batean, Lardizabal-ek berak bezela idazteak. Ola ta guztiz ere' berezitasun nabarmenenak gorde ditut, itzen agergarriak ezartzekoan. Esate baterako' ikus *vallera* itza. Itz-saillean' mintzatzen dan bezelaxe' "ballera" idatzi dut; baña gero, agergarrian' "vallera" idazleak berak bezela.

Besterik' 126 orrialde bakarrik ikusi dizkiotala eta gaiñera-koak astia izan dezadan beste baterako utzi ditut.

AZKUE'REN IZTEGIAK EZ DAKARZKIAN ITZAK

ABERE-ZAI, ganadero, cuidador de ganados (38-26).

ABUZTU, cosecha (53-34). "Zazpi bei gizenak eta zazpi galburu beteak abuztu oneko zazpi urte, eta zazpi bei argal, eta zazpi galburu zimurrak abuztu gabeko beste zazpi urte adierazten dituzte".

ADIERAZI, significar (53-36). "...beste zazpi urte adierazten dituzte".

ADIERAZI, dar a entender, manifestar (23-8). "Bere poza adierazteko".

ADIERAZO, comunicar, anunciar (13-23). "Faraon-i adierazo zioten...".

ADIERAZO, darse a entender (11-12). "Eta batatak besteari ezin adierazoz ipiñi zituen".

ADITUA, entendido, perito (54-6). "Jose bera baño obeago ta adituagorik...".

ADITZERA, señal (85-28). "Naigabearen aditzerarik ematea debekatu zien".

AGERIKO, manifiesto, claro (16-7). "Siñale agerikoakkin adierazo zuen".

AGERKERA, aparición, visión (66-9).

AGINTE, mandamiento, precepto (82-35). "Jainkoaren legeko amar aginte...".

AGUR-ONA, veneración (107-25). "Jainko egiazkoari zor zaion agur-ona".

AIEKATU, enclenque, enfermizo (39-14). "Argal aietatik bakarrik nabarrak sortu ziran, eta oiek ere txit argal-aiekatuak, eta gaitz-etsiak".

AIERKUNE, odio, rencor (48-16). "Anaien aierkuneari errekin geiago emateko".

AITABITOREA, Abraham (17-27). "Abran-ek esan nai du Aitabitorea".

AITORMENA, profesión, fe (14-3). "Jainko egiazkoaren aitor-mengabea" (Faraon).

ALDATU, trasladar (2-27). "Jainkoak zerura aldatu bear zuen bitartean".

ANSIATUA, contristado (56-25). "Aita ansiatuak, bada, azken-agurra egin zien".

ANZIÑAGO, antaño (17-23). "Anziñago arekin egindako... promezak berriztu nai zituela".

APAIZ-ANDI, sumo sacerdote (120-33). "Apaiz-andia buru zala, egiten zuten batzar nagusia".

APAIZATZA, sacerdocio (93-35). "Kore-k apaizatza Aaron-i kenduta, beretzat nai zuen".

APAIZ-NAGUSI, sumo pontifice (84-15). "Apaiz nagusi edo Aita santu zutela".

AZARO, simiente (31-20). "Emen artu zituen lur-erloutan aza-roak erein eta abuztu onak izaten zituen".

ARDI-MOZKETA, esquila de las ovejas (39-31). "Laban ardi-mozketan zan aldian".

AR-EMETU, preñarse (38-40). "Ar-emetzeko denboran".

ARKUMEKI, carne de cordero (72-1).

ARLOSA, tabla de piedra (79-14). "Atzanean eman ziozkan, bi arlosatan ezarrita... bere amar aginduak".

ARMADUN, armado (43-11). "Andik laster ikusi zuen Esau lareun gizon armadunekin zetorkiona".

ARRI-MUNTO, túmulo (?), un montón de piedras (41-6). "Arri-munto bat ipiñi zuten bi alderdien muga izan zedin".

ARTUBIDE, ingreso (?) (118-35). "Eta beste artubide asko-ekin batean, berrogei ta zortzi erri... bere-bereak zituen".

ARTU-EMAN, administración de bienes (51-33). "Etxeko gora beera, eta artu-eman guziaren kontua eman zion".

ASKIDE, abundancia, multitud (17-28). "Eta Abraham-ek askide edo askotza bitorearen Aita" (esan nai du).

ASKOTZA, multitud, abundancia (?) (17-28). "Abraham-ek askide edo askotza bitorearen aita" (esan nai du).

ASMAZIO, testimonio (?) (78-12). "Ez dezu zure lagun urkoagatik gezurrezko asmazio edo testimoniorik esango".

ATZERATU, alejar, retirar (8-30). "Baña onduaz Jainkoaren eskua atzeratu bearrean, beren gaiztakerian aurrera zijoazen".

ATZIENDA, ganado (79-31). "Sortu zuen abere guzietan gaitz-antz gogor bat, zaldi, idi, bei, asto, gamelu, ardi, eta beste atzienda guztiak il zituena".

AUKERA-ANTZ, distinción (48-4). "Berezitze edo aukera antz au anaiak gaizki eraman zuten, eta gorroto artu zioten".

AURKEZTU, presentar (13-24). "Faraon-i adierazo zioten nola emakume eder bat agertu zan, eta bereala aurkeztu zioten, ezkondu zedin".

AURRIK-EZA, esterilidad, carencia de hijos (17-2). "Asi zan farra Sarai-ri, bere agortasun edo aurrik-eza arpegian emanaz, egiten".

AZELOAN, al acecho (64-37). "Orduan arreba, azeloan zegoana, joan zitzaion eta esan zion".

AZITZE-SARIA, sueldo de las ayas, precio de crianza (65-6). "Aur ori artu eta azi ezazu: azitze-saria nik neronek emango dizut".

AZKEN-AGURRA, despedida (56-25). "Aita ansiatuak azken-agurra egin zien, osotoro Jaunaren eskuetan jarririk".

AZKEN-DIOSAL, despedida (28-21). "Guraso eta alabak elkarri azken-diosal gozoa egiñik, Eliezer eta Rebeka, mirabe asko ondoren zituztela, etxetik irten ziran"...

BAITAERE, también (13-15). "Eta badira diotenak, Sarai Abran-en illoba zala; baitaere Abran eta Sarai ama biren humeak baziran ere, aita bat zutela, eta sabel batekoak ez izan ezker, ezkondu zitezkean"...

BALLERA, tribu (?) (33-11). "Erriak serbitu eta vallerak adora zaitzatela"...

BANAIATU, extender, esparcir (119-2). "Berrogei ta zortzi erri, beren barrutiakkin Kanaan guzian, or-emen banaiatuak edo zabalduak, bere-bereak zituen".

BARKAZIO, perdón (100-19).

BATASUN, pacto, alianza (10-19). "Zerua odeiez estaltzen da-nean, ostrellaka agertuko da, eta zuekkin egin dedan batasunaz oroituiko naiz".

BEERATU, descender, disminuir, abajarse (9-23). "Eta egun oiek igerotakoan, aize aundi bat irten, eta urak piskaka beeratzen asi ziran".

BEINTZAT, por lo menos (13-17). "Beintzat, jakintsu askok diote, artarako baimena Jainkoak eman izango ziela".

BERDE-DUNA, de color verde (9-31). "Eta olivo-adar-osto berde-duna mokoan zuela itzuli zan".

BEREGANATU, acarrearase (10-24). "Noe-ren iru semeen artean bat izan zan, bere aitaren eta Jainkoaren madarikazioa bereganatu zuena".

BEREZITZE, distinción, preferencia (48-3). "Berezitze edo aukera-antz au anaiak gaizki eraman zuten"...

BEREZKO ARGIA, ley natural (12-17). "Berezko argiak edo lege naturalak erakusten ziena egiñaz".

BEREZKO OITURA, costumbre natural (?) (18-28). "Abraham txit biotz aundikoa zan... eta aldi ontan ere berezko oitura egin zuen".

BERRITZEA, renovación (110-7). "Zirkunzisia eta pazkoaren berritzea".

BERRIZTU, renovar (46-14).

BERTISTE, esmeralda (85-24). "Bi bertiste edo esmeralda".

BETEA, completo, perfecto (1-25). "Seigarren egun onetan egin zuen gizona, bere lanen atzena eta guzietan beteena"...

BETERO, completamente, del todo (43-28). "Jakob eta bere etxekoak izan zutenarekin ain betero sartu zitzaiozkan gogoan, non, biotzik obenarekin begiratu zien".

BIDAJE, viaje (87-6).

BILLOSTASUN, desnudez (4-22).

BIOTZONEKO, generoso, misericordioso. (72-32) "Errege gogor artan dakuskete, ver paturen begira dauden, Jaunaren dei biotzonekoak ezertan artzen ez dituztenak".

BIOTZGOGORDUN, cruel (34-25). "Anaia biotzgogordun aren eskuetatik gordetzeagatik esan zion Jakob-i".

BITARTETZA, influencia, intervención (26-15).

BITOREA, triunfador (?) (17-29). "Abran-ek esan nai du, Aitabitorrea, eta Abraham-ek askide edo askotza bitorearen Aita".

BIZITZA-GAUZA, víveres (105-12). "Errietan arkitutako abere, bizitza-gauza, eta gañerako guziak artu zituzten".

BIZI-GABEKOA, inanimado (1-17). "Bostgarrenean Jainkoa gauza vizi gabekoetatik vizikorretara igaro zan".

BIZIKARI, (ser) viviente (1-20). "Seigarrenean lurrari agindu zion, abere eta lurgañean dabilzan beste vizikari guziak eman zitza".

BIZIKORRA, viviente, animado (1-16). "Gauza vizi gabekoetatik vizikorretara igaro zan".

BIZITU, vivir (11-16). "Nor bere bazter jakiñean vizitu bearrean arkitu ziran".

BIZTANLE, habitante (114-29). "Lau errietako viztanleak"...

BLASFEMATZALLE, blasfemo (85-35).

BOSTGARRENA, la quinta parte (51-2). "Datozen zazpi urte-tan izaten diran laboreetatik bostgarrenesk erosi"...

BURU-EMAN, dar fin, llevar a cabo (11-17). "Ordea lanbide oni buru-eman baño lenago".

DENBORAZ, con el tiempo (9-19). "Kutxan gordeai bakar bakarrik bizia utzi zitzaien, denboraz mundua berriro bete zezaten".

DESBERDINTZA, diferencia, desigualdad (5-30).

DESLEIALKERI, infidelidad (51-9).

DESLEIALA, deslealtad (22-23). "Edozeñek ikusiko du, one-lako desleiala zein bildur izatekoa dan".

DESPITA, contienda, riña (14-22). "Artzaien artean despita eta elea batzuek sortu ziran".

DOAITSU, dotado (1-28). "Seigarren egunean egin zuen gizona, bere lanen atzena, eta guztietan beteena,... eta doaitsuena, bere Egillea ezagutzeko eta maitatzeko gai bera bakarrik dalako".

DOATSUERA, felicidad, bienestar (63-31). "Pake ta doatsuera andian vizi ziran".

DONARIO, marcha, paso (86-34). "Guztiei zegokien donario ederrean zijoazten".

DONTZELLATASUNA, virginidad (97-27). "Dontzellatasuneko vizimodua".

EAULKI, decir (115-24). "Gezur ura arpegira eman zien; baña erantzun zioten, bildurrak eaulkierazo ziela".

EDONTZIZAIA, copero (52-25). "Erregearen edontzizaia".

EGIN-ASMO IZAN, querer hacer (50-5). "Baña Jainkoak Jose-
ren bitartez gauza andiak egin-asmo zituen".

EGINERA, proceder (27-25). "Rebeka-ren egiñeratik ezagutu
zuen uraxe zala..."

EKIN, atacar (3-20). "Etsaiak kriatura bi aien leialtasunari
ekin zion".

ELIZAKO GURASOAK, Santos Padres (1-10).

ELIZAREN GURASOAK, Santos Padres (2-12).

ELKAR-ARTZEA, pacto (17-23). "Anziñago arekin egindako
batasun edo elkar-artzea, eta egin ziozkan promesak berriztu nai
zituela".

ELKAR-ARTU, unirse, juntarse para algo (20-7). "Uriko zar-
gazteak elkar-arturik, etxea ingurutu zuten".

ELORRILARRA, arbusto, maleza (5-14).

EMANERAZO, hacer, producir (1-18). "Urai, arraiak ema-
nerazo ziezten".

EMAZTE EGIN, casarse (31-34). "Jainkoaren servitzari bat
emazte egin bearrean"...

ERAENMENTU, gobierno, acción de gobernar (123-9). "Is-
rael-ko Juezen eraenmentua, edo gorberrua".

ERAKUTSI, enseñanza, doctrina (103-1). "Balaan-en erakutsi
gaiztoa".

ERANTZUERA, respuesta, contestación (94-32).

ERANTZUPIDEA, correspondencia (1-9). "Guziz esker-gabea
eta dollorra izan bear da alako erantzupidea ain Ongille oparoa-
rekin gordetzeko".

ERDIRATZEA, repartición, división (106-1). "Moises-ek ira-
bazitako lurren erdiratzea".

ERPIN, elevado (100-20). "Leku erpin batean".

ERRAÑ-GAI, la novia del hijo (28-39).

ERRAZKERI, comodidad defectuosa (moral) (87-7). "Ala ere
baziran zenbat alper eta errazkeriari on-eritzita, gitxik nekatzen
zituenak"...

ERRAZTUNA, anillo del dedo (51-2).

ERREGE-ETXE, casa real, palacio (61-14).

ERRI-BURU, capital (121-4). "Erri-buru onetan bildu oi ziran"...

ERRI-ONDO, alrededores de un pueblo, arrabales (35-3). "Luzan zeritzan erri-ondoan gelditu ziran".

ERRO, consecuencia (6-5). "Adan-en bekatuak laster erroak eman zituen"...

ERROAK EMAN, traer consecuencias (6-5).

ERRUKIMENTU, misericordia (21-20). "Jaunaren errukimentuan zuen uste osoa".

ESANA, propuesta (49-6). "Ruben anai zarrenak etzuen esan au ondo artu".

ESETSI, perseguir (31-23). "Asi ziran esetsi edo persiguitzen".

ESKEÑI, promesa (46-14). "Aitasaba Abraham-i egindako eskeñi guztiak berriztu ziozkan".

ESKEÑI, oferta, ofrecimiento (18-29). "Bere eskeñi oparoa ontzat artu, eta erantzun zioten, ziona egin zezala bada".

ESKER ONAK EMAN, dar gracias (10-4). "Artu zituen mesede andiakgatik esker onak emateko".

ESKRIBUZ, por escrito (8-15).

ESLEITUA, elegido, escogido (77-18). "Jaunaren erri esleitua".

ESPA, queja (14-5). "Argatik Abraham-i ainbeste espa agertu ziozkan".

ESPADASUN, queja (87-25).

ESTALIA, bóveda, techo (1-9). "Firmamentu edo gañean daukagun estali urdin ori".

ESTU, tajante, terminante (4-13). "Debeku estu hura autsi naiago izan zuten".

ETXE-LAN, trabajos domésticos (30-32).

ETXEJAUN, jefe de familia (11-27).

ETZIÑA, afectuoso, benévolo (43-26). "Ain aier zitzaionaganao txit etziña".

EZ-ADITUA, inaudito (116-29). "Jarri zan mesede ez-aditu onegatik Jaunari eskerrak ematen".

EZAGUERADUN, conceder (12-16). "Jainko egiazkoaren sinismena, eta ezagueradunak ziran".

EZARRI, grabar (79-14). "Atzenean eman ziozkan, bi arlosatan ezarrita,... Israelitarrai itzez esandako bere amar aginduak".

EZDABAIDA, discusión, disputa (14-34).

EZERTAN ARTU, hacer caso (8-32). "Jainkoaren esan eta keñadarik etzuten ezertan artzen".

EZIN ERAMANA, el no poder sufrir a uno (6-21). “Abel-en ezin eramanak ematen zion damuak”...

EZIN ESAN-ALAKO, indecible, que no se puede decir (4-14).

EZTAI-GAUA, noche nupcial (37-5).

EZUR-UTS, raquitico; lit. hueso puro (53-15).

GAIÑEZTU, rebasar (48-22). “Bi amets oiek senideen gorrotoa gañeztu zuten”...

GAITZ-ANTZ, enfermedad, clase de enfermedad (69-30). “Ukatu zionean sortu zuen kanpoko abere guzietan gaitz-antz gogor bat”...

GAITZ-ETSI, de mal augurio, desahuciado, tocados de enfermedad (39-15). “Argal aietatik bakarrik nabarrak sortu ziran, eta oiek txit argal-aiekatuak eta gaitz-etsiak”.

GAITZ, malicia (6-25). “Abel, berez paketsua eta gaitz gabea izanik”...

GAITZ-PENTSATU, pensar mal, sospechar (?) (6-25). “Abel, berez paketsua eta gaitz gabea izanik, gaitz-pentsatu etzuen”...

GAIZKI, mal, falta, pecado (113-6). “Israel-ek gaizki bat egin zuela”...

GAIZKI-EGINA, falta (4-34). “Adan-ek lanbide gaizto artatik garbitu naiez, gaizki-egina emazteari ezarri zion”...

GAIZKI-ESALE, blasfemo (85-37). “Gaizki-esale au Moises-i eraman zioten”...

GAIZTO, perjudicial, pernicioso (8-2). “Ugoldeak gero utzi zion koipe gaiztorik etzeukan”...

GAIZTO/TU, pervertirse (2-16). “Besteak, Jainkoa bera bezela izan nai izan ziralako, gaiztotu ziran”...

GELDITZEA, parada (115-32). “Eguzkiaren gelditzea”.

GIZENTASUN, fertilidad, prosperidad (34-5). “Lurreko gizontasunean... zure bedekazioa izango da”...

GOGOR, grande (?) (109-24). “Apaizen oñetatik arri gogor bana artu”...

GOGORKIRO, duramente, ásperamente (55-6).

GORAGOTU, aumentar (6-20). “Zenbat geiago esan ainbat aren indarra goragotzen da”...

GORDELARI, guardián, custodio (116-1).

GORPUTZ-ILLA, cadáver (26-5).

GOZAGAITZKERI, sinsabor (31-12). “Esau-ren gozagaitzkeriak atsekabe andia ematen bazioten ere”.

IBILLIA, andanza, curso (de los astros) (1-15). "Laugarrenean eguzkia, illargia eta izarrak egin zituen, oien ibillietatik egunak eta gauak,... zuzendu zitezen".

IDOLOZALE, idólatra (26-13).

IGAROTZEA, paso (108-30). "Jordan-go ibaiaren igarotzea".

IGES, huida (39-36). "Jakob-en igesa".

IGESLARI, fugitivo (125-23).

IGOTZEA, subida, ensalzamiento, ascenso (53-30). "Jose-ren igotzea".

ILKINTZA, matanza (46-4). "Sikem-goai egindako ilkintza ta kalteak ordaindu zitazkiketeen".

IL-OZTU, matar (42-7). "Ama eta semeak il-oztu ez ditzan".

INDARRA, poder, capacidad (1-20). "Eta nork bere aztzeko sortzeko indarra eman zien".

INDARREAN, en vigor (16-24). "Lege au bere indarrean egon zan".

INGURATU, acercarse (47-18). "Ordurako Esau beste semea ere inguratu zitzaion".

INTZENSU-ONTZI, incensario (85-17).

IPINERA, institución, erección (87-30). "Sanedrin-en ipinera".

IRAKURGAI, capítulo (1-4). "Lenengo irakurgai".

IRAZEKI, ardiente, abrasado (23-29). "Mortu irazeki onetara ziranean".

ITSATSI, trabarse, enredarse (25-18). "Eta ikusi zuen sasia txikiro bat adarretatik itsatsia".

ITZEGIÑA, lo convenido (94-35). "Eta esan zien, len itzegiña egiteko prestatu zitezela".

ITZ-TRUKATZE, tienda, disputa, desavenencia (14-23). "Ezda zure ta nere artean itz-trukatzerik bear".

IZENDATU, determinar, anunciar (23-2). "Izendatutako denboran".

JABE-EGIN, adueñarse (26-23). "Abraham koba eta inguruko lurraz jabe-egin zan".

JAISKERA, bajada (60-22).

JAKIN, conocido, fiyo (6-35). "Vizi-leku jakin gabeko arrotz bezela"...

JAKIUNDE, conocimiento, ciencia (16-21). "Irakurleen jakiunderako emen esan bear da"...

JAN-GAUZA, comestible (8-2).

JANTZI, poblar, proveer (329-38). "Txit conveni zala Jerusalem gendez jaztea"...

JATENA, comida, cosa de comer (56-16). "Egipto-ra zoazte eta jatena ekarzute".

JATORKI, descendencia (97-1). "Apaiz-izatea Aaron eta bere jatorkiari zegokiela".

JATORRI, descendencia, posteridad (4-16). "Ordukoa da, ondorengo jatorri guzia mendean artu zuen, bekatua".

JAUNTASUN, majestad (78-24). "Jauntasun aundi arekin Jainkoa agertu nai izan zala"...

JAUNTASUN, dignidad (59-11). "Ontaraño Jose-k, nekez berderik, bere Jauntasunari, eta inguruan zeuzkanai bagiratuta, negar gabe iraun zuen"...

JAZARRA, pelea (43-10). "Aingeruarekin jazarra edo pelea izan zuen ezker".

JENDETZA, gentío (73-10).

JOANERA, ida (35-34). "Jakob-en joanera Haran-era".

KALTEBIDE, daño, perjuicio (122-1). "KaltEBide andiak gahera zetorzkien".

KATIBU, cautiverio (53-10). "Eta au ere bere katibuan gelditu zan".

KATIBUTU, embarazar, dificultar (116-2). "Bidea zerbait katibutzen zien".

KEZKA, recelo, sospecha (55-16). "Au guzia egiaz esaten bazuten ere, Jose kezkatan zegoan, eta kartzelan sartu zituen".

KISKALZIO, abrasamiento (21-8). "Erri aietako kiskalzio gogorrak aditu zituenean".

KOIBE, costra (?), residuo (?) (8-2). "Ugoldeak gero utzi zion koipe gaiztorik etzeukan".

KOIBE, pinguosidad, abundancia (?) (33-10). "Jainkoak zeruko intza eta lurreko koipearekin ogia eta ardoa ugari eman dezakizula".

KONTU-ARTZALLE, mayordomo, encargado (27-3). "Bere kontu-artzalle edo mayordomoari agindu zion".

KONTU-ARTZALLE, guardián (6-31). "Zer bada? Ni ere anaiaren kontu-artzallea naiz onen berri emateko?"

KUTSUTUA, manchado (8-20). "Mundu guzia loikerian sartua eta kutsutua zegoala ikusirik".

LAGUNTZAKA, sin compañero (96). "Abere garbietatik iru pareatu aldi, eta bat bakarra edo laguntzaka".

LANBIDE, acción (?) (4-33). "Adan-ek, lanbide gaizto artatik garbitu naiez"...

LAN-EGITE, trabajo (24-12).

LANGAI, acto, acción, proceder (16-34). "Baña on-bearrez artu zuen langai onek, laster bere naigabe ta buruausteak eman zizkion".

LANOTSU, afable (57-12). "Jose-k diosal txit lanotsua egin eta galdetu zien".

LASAI, libre (costumbres) (50-14). "Bere astura lasai gaiztoakgatik Jainkoak il zuen".

LASAIKERI, lascivia, impureza (103-16). "Itsutu eta lilluraturik lasaikerian nastu ziran".

LASATU, deshacerse, desprenderse (103-5). "Eta auzo bildurgarri argandik lasatu nai bazuen"...

LASATZE, desahogo, consuelo (47-8). "Eta bere lasatze guzia Jakob noizbait itzultzearekin zeukan".

LEIALA, lealtad (18-19). "Jainkoak Abraham-en leiala, eta agindua egiteko prestasuna ikusirik".

LEIALKIRO, fielmente (12-32).

LEKUAN-LEKUAN, de trecho en trecho (86-35). "Lekuan-lekuan atsedentxoak egiten zituztela".

LENBIZI, primicia (118-34). "Eta lenbizi edo primiziak zor ziozkaten".

LENEN-IZATEA, ser el primero, primacia (30-26). "Esau-k Jakob-i lenen-izatea saltzen dio".

LENENGOTZA, primacia (32-9). "Rebeka azkarrak,... Jacob-en gañera bedeinkazio au, eta onekin lenengotza ekartzeko modua egin zuen".

LENEN-JAIOA, primogénito (31-13).

LEPOMOZTU, decapitar (53-4).

LIBRATZALLE, libertador (65-26).

LILLURATU, enamorarse (46-25). "Aitaren emazteaz lilluratu zan edo amorioa artu zion".

LOTSABIDE, ignominia (38-12).

LOTSAGARRI, vergüenza, lo que causa vergüenza (4-9). "Beren buruak larrugorrian ikusi eta lotsatu ziran; eta lotsagarri au kendu nalez"...

LUR-EGIN, hacer tierra, establecerse, quedarse como habitante (11-35). "Eta España-n lur-egin zuenean"...

LUR-JO, caer en tierra, postrarse (33-31). "Eta aitaren oñetan lur-jo zuen".

LURRUSPE, cueva (26-19).

MADARIKAZIO, maldición (102-22).

MENDETASUN, cautividad (123-34). "Zortzi urteko mendetasun gogorretik atera".

MESEDE-TOKI, propiciatorio (83-1). "Propiziatorio edo mese-de-tokia".

MINGARRI, doloroso (15-23). "Lot-en berri mingarri au Abraham-i eraman zion".

MIRARI-IRUDI, milagro aparente, pseudomilagro (68-8). "Deabruarekin bat eginda, mirari-irudiak, edo mirari-antzak egiten zituztenak".

MIRARI-ANTZ, pseudomilagro (68-8). "Mirari-irudiak, edo mirari-antzak egiten zituztenak".

MODUZ, debidamente (?) (40-20). "Jakob-ek Laban-i espaiak moduz aditu, eta erantzun zion".

MUNDURATU, dar a luz (46-22). "Aur-miñak artu eta mundura zuen seme bat"...

NAGITXO, perezositamente, muy calmoso (20-26). "Onetan nagitxo zebiltzala ikusirik"...

NAGUSITASUN, superioridad (89-24). "Baña anaiaren nagusitasuna ezin eramanik".

NAGUSITZA, la superioridad, el cargo de superior (93-32). "Datan eta Abiron-ek Moises-i nagusitza berentzat kendu nai zioten".

NAI, querido, ansiado, caro (1-37). "Nere nekearen saririk naiena izango dana".

NAIKERA, placer, comodidad (3-18). "Praradisuko naikera, eta atsegiñak gozaten asi ziran bezain laster"...

NAIKUNDE, placer, delicia (5-22). "Ona, bada, naikunde, eta atsegin guzien leku artatik lenengo gurasoak nola irten ziran".

NASMENA, confusión, mezcla (11-25). "Argatik uriari deitu zioten Babilonia, eta Dorreari Babel-koa, zeñak esan nai dute nasmena edo naspilla".

NASTU, cometer un acto carnal ilegítimo (46-36). "Amorioa artu zion eta Belenera joanik biak nastu ziran".

NEGAR-BIDE, sufrimiento, disgusto (51-22). "Jose ez beste hume guziak aitari negar-bide andiak ematen ziozkaten".

NEGARGARRI, catástrofe (72-19). "Negargarri hura ikusirik,... irteteko baimena eman zien".

NEGAR-OTSA, llanto (59-18). "Jose-ren lantu eta negar-otsa aditu zutenean"...

NEKETAKOA, dificultoso, trabajoso (5-14). "Emaztearen esanari obeto jarritu zitzaion ezker, lurra neketakoa izango zuela".

NOLA-ERE-BAIT, de alguna manera (46-5). "Bere burua nolere-bait gordetzeko".

NORATU, llevar a alguna parte (?); lit., hacer a dónde (64-32). "Kañabera-artean utzi zuen, aurra noratzen zuten, edo zer patu zuen ikusteko, Maria-k kontu artzen ziola".

OBEDITU, obediente (25-13). "Ona emen, Guraso obeditu onek erantzun zion".

ODEITU, nublado (78-18). "Oraindik mendia odeitua zegoan".

OLIO GOZO, perfume (en líquido) (13-29). "Sei illabetetan usan-belar, eta olio gozoz igurtziaz iduki oi zituzten".

ONA, el bien (6-17). "Oraindik esan zion, ona egiten bazuen, bere saria izango zuela".

ON-BEARREZ, para salir del paso (?) (16-34). "Abraham Agar-ekin ezkondu zan; baña on-bearrez artu zuen langai onek, laster bere naigabe eta buruaustek ekarri ziozkan".

ONDADE, bienes, herencia (?) (23-17). "Katibuaren semeak, Isaak nerearekin ez du zure ondadean parterik izan bear".

ONDATU, condenar (2-17). "Infernuko su-leizean,... ondatu zituen".

ONDO-ESAN, consejo (6-19). "Baña, ezin ikusi sartuta dagoan biotzarentzat ondo-esanak alperrik dira".

ONDO-IZATEA, bienestar (104-32). "Bere gende maitea ondo nai zuen ikusi, eta onen ondo-izatea, bazekien, buru eta nagusia-gogoala".

ONDONAIEZKO, bienintencionado, con buena voluntad (8-34). "Baña dei ondonaiezko guziak alperrik ziran".

ONDU, enmendarse, convertirse (8-29). "Baña onduaz, Jainkoaren eskua atzeratu bearrean"...

ONESTASUN, honestidad (10-33). "Eta onestasunari ez dago kion erdi-agerian ikusi zuenean"...

ONETAN, en esto (20-26).

ONEZ EDO GAITZEZ, a buenas o a malas (52-3). "Etxeko-andrea sartu zitzaion, onez edo gaitzez berea egiteko asmoan".

ON-IRITZI, admirar (13-22). "Eta bere edertasun andiari on-iritzirik".

ONKOTUZKOA, de buena conducta, bueno (moral) (12-15). "Asko txit onkotuzkoak, eta Jainko egiazkoaren sinismena, eta ezagueradunak ziran".

ON UTSA, justo, perfecto (?) (19-2). "Sodoma bezain Uri galdu eta gaiztoa ondattetik Jauna, atzeratuko zan, Omar on-utsak arkitu balira".

OÑ, grado, generación (8-11). "Matusalen seigarren oñeko illobarekin vizi izan zan".

OÑ, puesto, colocación (52-39). "Lengo oñean jartzen zereanean, Jose-z aztu gabe errukitu zaitezela"...

OÑERA ITZULI, volver a lo primitivo (16-31). "Jesu Kristo gure Jaunak,... legea bere oñera itzuli zuen arteraño".

OÑ-PETU, pisotear (126-12). "Abuztoak sasoi eta arorik oñean zeuden egunetan, joan, eta guzia oñ-petu eta soiltzen zuten".

ORANAGO, antes, en otro tiempo (5-27). "Oranago zeuzkaten ondasun ezin asen-alakoaz oroitzen ziran".

OSASUNTSU, saludable (8-3). "Jan-gauza guziak gaitz gabeko osasuntsuak ziran".

OTSEMAN, huir (74-12). "Israeldik otsemazute; bada Jainkoa onen alde eta gure kontra degu".

OTZ-OTZEAN, fríamente (37-7). "Otz-otzean erantzun zion".

OXALLA, ¡ojalá! (75-2). "Oxalla il bagiñan!"

PAREATU ALDI, pareja (?) (9-6). "Abere garbietatik, iru pareatu aldi".

PAREKO, igual (3-36). "Jainkoaren parekoak".

PENATU, mortificar (69-13). "Bizidun guziak ezin geiagoraño penatzen zituztenez".

PENSAKIZUN, preocupación (41-18). "berri onek itzutzen zuen eta pensakizun andietan zeukan".

PISKAKA, poco a poco (9-23). "Eta urak piskaka beeratzen asi ziran".

PISU, grave, trascendental (31-31). "Ain gauza pisuan ez utsegiteko".

POZONITU, emponzoñar (69-23). "Ukitu guzia pozoniturik uzten zutela".

POZONIZKO, venenoso (69-20). "Euli andi pozonizkoak".

POZONIZKO, malintencionado (3-30). "Pozonizko galde oni belarriak itxi bearrean".

PREGONARI, pregonero (54-13).

PRESTAGO, más dispuesto (8-33). "Jainkoa castigurako baño barkaziorako prestago zegoan".

PRESTASUNA, presteza (18-19). "Agindua egiteko prestasuna ikusirik".

PROMESTU, prometer (23-5). "Seme... promestutako au izan zutenean".

SANTUTU, santificar (93-37). "Odol onetako guziak santutuak zirala".

SINISGAI, testimonio (82-8). "Elkartasuneko sinisgaia edo testimonioa gordetzeko kutxa".

SOLDADI, ejército (111-22). "Soldadi edo ejerzituko Lenena edo Prinzipea".

SOLDATA, sueldo, paga, jornal (39-4). "Jakob-i soldata emateko garaia etorri zanean".

SOMAZ, fraudulentamente (33-33). "Zure anaia somaz etorri, eta zure bedeinkazioa artu du".

SU-AUTS-AZPI, debajo de la ceniza, subcinericio (18-31). "Suauts-azpian erretako ogiak prestatu zitzaala".

SUI-GAI, el que va a ser yerno, el novio de la hija (20-22).

TXAR, falso, no cierto (17-6). "Uste txar onetatik bereala atera zuen".

UMILKIRO, humildemente (98-23).

UR-ERTZA, orilla (53-14). "Nilo-ko ibaitik irteten, eta ur-ertzean jarri eta jaten".

URGULLERI, soberbia (3-21).

UR-LEKU, mar, lugar de aguas (1-12). "Urai edo ur-lekuari deitu zion itsasoa".

UR-ONTZI, cuenco (?), recipiente de agua (23-24). "Ogi bat eta ur-ontzi bat arturik Agar-i sorbaldan ipiñi ziozkan".

URRINGAI, aroma (83-17). "Mai onetan inzentsua eta beste urringai gozoak erretzen ziran".

USAN-BELAR, hierba aromática (13-27). "Sei illabetetan usan-belar eta olio gozoz igortziak iduki oi zituzten". *Usanbelar* (82-9).

ZATI, miembro (17-37). "Gizona dan edo ez ezagutzen dan gorputzaren zatian ganibitaz ebaki bat egitea".

ZATITU, maltratar, golpear (23-14). "Eta anaia gaztea ezin ikusiak artu zuen, eta noiznai zatitu ta zeatzen zuen".

ZAURI, plaga (68-19). "Egipto-ko amar zauriak".

ZAURI, daño, calamidad (13-33). "Faraon-i eta bere etxeari zauri eta kalte andiak Sarai-gatik sortu zitzaiezen".

ZENBATA, número (73-8). "Egiten zuten iru milloiko kopurua edo zenbatea".

ZENBATEZKO, número (19-20). "Abraham zerraikion galdeak egiten eta zenbatezko gitxitzen".

ZINTZO, fidelidad (51-32). "Morroi onen zintzoa eta eraen onekoa ikusirik".

ZINTZORO, fielmente (90-19).

ZIRZILLU, joyas, pendientes (79-27). "Emazte ta alabaen urrezko zirzillu edo belarritakoak eskatu ziezten".

ZORROTZ, terminantemente (2-32). "Jainkoak zorrotz debekatu zion".

ZORROTZKIRO, terminantemente (22-28).

ZOTZ, vara (66-27). Moises-en "zotza".

ZUZENDU, ordenar, regular (1-16). "Laugarrenean eguzkia, illargia eta izarrak egin zituen,... oien ibillietatik egunak eta gauk zuzendu zitezen".

ZUZENTZALLE, reparador, redentor (?) (5-35). "Munduak bere zuzentzalea eta Salvatzalea izango zuela".

F. MENDIZABAL, O. F. M.

Itzaldia bukatuta buruz jarraitzen du itz egiten. Azkueren iztegia eztauden itzeri buruz adierazten du zail xamarra edo berak ezagutzen etzuen aurrkitzen zuenean bazetorrela iztegia eta errexak ez omen dakarzki geienetan beñepein. Eredu ederra omen da itz-berri asmatzailleentzat edo, nola jokatu bear luke-ten ikusteko.

Baomendu Lardizabalek Larramendiren kutsu piska bat edo, baiña zenbateraiñokoa den esatea zail samarra omen da. *Edergarri* itzez esaten du aldizkari batean ikusi duela *fotografia* esateko, baiña autore onek *joya* esateko erabiltzen omen du. *-Era* sufijoa askotan erabiltzen du Lardizabalek: *ipiñera, joaneran*, etab.

Jaun batek, Bizkaiko kutsuari buruz adierazten du, berak ala dan eztakian arren, gertatu leikela artzaintzan aritzen direnen joan-etorriakatik izatea, artzaiñak denak naaste egiten baitute.

Mitxelenak: Nik uste dut zer ontan gauza oker xamar bat dala, alegia, Lardizabal Zaldibiakoa zan eta badirudi Lardizabalek Zaldibiko izkuntza egin nai zukeala. Eta nik eztut uste ori ala danik. Nik uste dut Lardizabalen oiñarriak lenagoko autoreetan daudela.

Aita Inzak ere esaten ditu itz batzuek, eta azkenean Fernando Mendizabal Aitak bukatzen du.

Gero Luis Mitxelena jaunak itz egin du. Ezagutuerazita zegoan gaia utzi ta beste gai bat arturik jardun du.

Jakintzaren ta estudioen alde mintzatu da.

Badirudi zenbait uste dutenez euskerak etsai bat duela: linguista. Iñork eztu uste, ordea, Donostiko Igeldon eguraldiari begira egoten direnen lepura bota ditekeanik errua, aurten kanpotar ta turismoaren bidez bizi direnentzat egin duen giro txarraigatik. Euskerak zenbait bereizkuntza baldin baditu alde batetik eta bestetik, errua ezta linguistena. Berez gertatu den gauza da.

Nola diren gauzak billatzen ari dira izkuntzalariak. Bearbada jakiteak gizon banaka bati iñoiz edo bein kalte egin badio, erri bateri ez sekula. Gauzak ezpaldin badaude bear den bezala, leenbiziko lana da gauzak nola dauden jakitea.

Agi danez zenbaitek uste du izkuntza bat estudiatzea, alde batetik, eta izkuntza baten alde jokatzea itzez edo eskribuz, bestetik, elkarren etsai ta kontrakoak direla. Bi lanbide oriek zearo berezita egon bear baldin badute ere eztirudi elkarren etsai direnik, laguntzaille baizik.

Katalanen jokabidea jarri du eredutzat eta aiek izkuntzaren bereizkuntzen ezagutzeari opatu dizkioten lanak.

Linguistak bere gauzetan eztira balioarekin ari, baizik gauzak ola dira edo ala dira, ori garbitu nai dute.

Lurralde aundi bat dago, Nafarroa, euskalki ta izkera ezberdiñak dituen eta oso ondo ezagutzen eztitugunak. Etzaio Nafarroako izkerari Gipuzkoa ta Bizkaikoari aifia arreta eman.

Eta gaurkoz bukatu da.

Biaramonetan 10 1/2-etan jarraitu zen eta maipuruak Victoriano Gandiaga Aitari eman dio itza.

ARANTZAZUKO FOLKLORE-GAIEN BILTZEAZ

Yaunak:

Au da Euskaltzaleen biltzar onetarako ezarri deusten sailla. Geienean be, gaurdañoz, gai oni buruz egin izan dodanaren barri emon al neikizue bakarrik orain, lan au asi barria dot ba. Baileiteke, oraingo, emen damotzuedazan yakintza-gai geienak, Barandiaran eta Azkue jaun agurgarrien *Eusko-Folklore* eta *Euskalerrriaren Yakintza* bilduma bikaiñetan batuta egotea, nik ez dakit, eta ez dot euki ikusteko aukerarik. Gaiok artzean, zintzoa izan gura izan dot, bai ipuiñeri, bai esaerari dagokienez, dana berbaz berba yasoez, al izan dodan neurrian. Nik noizik bein esango dot zeozer, neurea dala yakin araziz. Gaiok bilduten A. Villasantek eta A. Bilbaok eta lagundu izan deuste. Oraintxe esango dot bein betirako: Emengo batzuek gipuzka-da ugariz egiten dabela berba. Ez dodaz lan onetan zati bakoitzari buruz batu izan dodazan gai guztiak sartuko larregi baiño geiago luzatu ez naiten. Gaiok Arantzazun bakarrik eta aurton batuak dira.

1 - Arantzazu

a) *Antxiñako Arantzazu.*

“Antxiña iru benta edo etxe bakar bakarrik ei eguan Arantzazun: Arrikruzko bentie, etxe au zan Arrikruz-garaikoa; Gezalzako bentie. Lazaro bizi dan etxie, ta Arantzazu bertako bentie” (Vicenta Ugarte).

“Gezaltzan, Ama Birjiñia agertu baiño lenao, egoten zala komentua esaten euen. Oin be. Elizgaiña esaten xako Lazaron etxe atzian daon tontortxuari”. (Ignacia Erostarbe).

“Ama Birjiña agertu zanean, zazpi etxe zeuden emen: San Juan, Arrikruzten bi, Albixuri bat, Gezaltzan bi eta Errotea, etxea bakarrik, iñor etzan bizi Errota-etxean”. (Felix Ugarte).

“Arantzazuko Ama Birjiñiaren eleiza, Oñatin pentsau eben eitie, eta zurak Oiñatira karreteruak ekarri, eta illunkaran Oiñatin gelditu, eta urrengo goizian Arantzazun agertuten ziala. Ta iñok ikusi ez zeinek ekarten zituan edo zelan etorten zien. Ta Uribarri-beien dago baserri bat Urtiaga deritxona, ta gau baten, gizon bat jarri zan Urtiagako ate ostian ia iñor pasaiten ote zan material orrekin, eta begixa ate zuloan ipiñita begira eguala, entzun eben bidian esaten: *Aida, Zurixa; aida, Gorrixa. Ate ostian dauan orri, galdu bekixo begixa*. Eta gizona tuerto gelditu ei zan”. (Estefania Arregui).

“Ama Birjiñia nola arkaitz artean agertu zan, Gomistegitik Kortakogaiñera asi ziran tronkuak ekarten, karriotan, obra egiteko. Baiña okerrak pasaiten ziran beti. Gero asi ziran Arantzazun egiten, eta an samur egin zuten”. (Félix Ugarte).

“Arantzazutik Gezaltzara eldu orduko, koba bat dago kamiño ondoan. Andik urteteban Gomistegirantz Arantzazuko antxiñako kamiñoak. Gomistegitik Peñakulo zarrera, Gurtzipiziora...” (Félix Ugarte).

b) *Emengo gentearen jatorria.*

“Auzo ontara Uribarritik etorri zan jenterik geiena”. (Félix Ugarte).

“Au, Uribarri-goixa da. Emengo jentia Uribarritik gora etorrixa dala asateuen lengoak”. (María Ugarte).

“Arantzazuko jentia geitu zanian, independenzia eskatu eben gaurko naziño barrixak bezela. Uribarritarrak ez dira oso gustora etortzen Arantzazuko bideak arreglaiters”. (Ladislao Odriozola).

c) *Otsuak ziranean.*

“Otsuak ziran garaixan, gauetan, egurrak pillatu ta suak eiten en”. (Andrés Lizarralde).

“Otsuen bildurgarrixa, sua izan biar dau”. (Graciano Anduaga).

“Su einda, euren ardixakin an egoten zian gauean. Goizian pentsaiten euenen, onezkero eztala etorriko otsorik, bi illinti artu, ola, alkarri pegauta, ta sendarik billauten ezeuen lekuan, putz einda, argi txabola bidea topau eiten eben. Arrikruzko Miel-ipur-

di ta zepuakin otsuak arrapaiten ibiltzen zian". (Andrés Lizarralde).

Otsuak arrapaitea orduan sailla zan. Otsuak egunian eun legua egiten omen ditu. Eta gabian illentixakin ibilli biar otsuen bildurrez". (Graciano Anduaga).

d) *Baltzak Arantzazun.*

"Gure aita jaunak amasei amazazpi urte eukan baltzak Arantzazuko elizea erre ebenien. Gero Sindikan emoten eben mezie. Sindika, granerua zan, amarrenak hatutzen eben an". (Claudio Zurutuza).

e) *Santi Kurtz.*

"Santi Kurtz abadiak be, Karlisten gerratean, emen, Beillotzan, euki eban ostatua. Usaiña artuta eukien baltzak emen egoten zana eta Albitxuriraiño eldu ziran, baiña ona etziran allegau, bestela kiskaldu egingo eben Beillotza". (Claudio Zurutuza).

"Nire aita Santa Kruzen asistentea zan. Santa Kruz de Kanpo (?) ta beste toki askotan ibilli zan berakin. Urbixan, paliza aundixak emon eta artzai bat fusillau eban Santa Kruzek, zelatari zala ta". (Félix Ugarte).

f) *Orain berrogei urte.*

"Gure denporan baserritarrak bizimodu latzagoa. Saldia, artua ta esnie —edo obeto esateko tremesa ta esnie— ori zan gure jana. Oingo denpora ohea. Kafia zelakua zan be jakin barik il ziran orduko zarrak.

Orduan, baserriko neskatillak, meza liburua irakurtzeko lain ikasi ezkeru, naiko zan. Eskribiduten ikasterik, pentseu be ez. Mutillak pitiin bat eskribiduten, soldadu joaten diranean karta batzuk eskribiduteagaitik. Mezatara ta eskolara Uribarrira joaten giñan. Abadie Arrikruzkoeki, agiri ezpaziran, itxoin egiten ostien eta orregaitik urtian imiñia garixe (iru zelemiña) emoten xakon, eta beste peseta bat diruan. Ori San Agustiniñen egunian izaten zan. Arrikruzkoak Urtiagaiñen agerketan ziranien, azkeneko kanpaia jo, ta antxintxika joan biar gero, ta abadia barrez". (Vicenta Ugarte).

g) *Orduko jantziak.*

"Gizonezkuen jantziak lenao praka zurixak ziran eta alkon-daria be zurixa ta txapela azula eta elizarako txaketa azul motx-motx bat. Eta emakumienak: gona gorrixak, abarka-kaltzak zurizurixak, txaketa zuri bat ganiñen ta pañuelo zurixa buruan". (María Ugarte).

h) *Emengo bizi-modua.*

“Emengo bizi-modua izan da etxeko lanak, mendi-ganauak eta ardixakin; ta libre dauan jentea dana ikaskintzaa. Arta zui-
ketan da liñugintzan ibiltzen zian lenao. Gero sorgiñ-afaixa eiten
euen: emakume bakoitzak ekarteuan pitxarkada esniakin eta gaz-
taiña erriakin afaldu ta antigualeko kanta zarrak kantau ta pan-
dero zar bat baeuen jo ta dantzalditxu bat egin ta bakoitza bere
etxietara”. (Ladislao Odriozola).

II—Egualdixak

“Guri asko ardura deusku egualdixen gora-berak”. (Andrés Lizarralde).

a) *Kuarta tenporak.*

“Kuarta tenporetan igerketan dogu, batez be, etorriko dan
egualdixa.

Kuarta tenporetako azkenengo gabaz egiten daben aiziak arek
irauten dau urrengo iru ille-betea. Kuarta tenporak iru egune-
kuak izaten dia. Eta gero atzeneko egunian, zapatuan, egoia gel-
diketan bada, iru illabeteko aizea egoia”. (Jesus Kortabarria).

b) *Aize-zainketan.*

“Lenago, Gabon gabaz, aize zainketan egoten ei zian, Gabon
gabeko aiziak ba, arek irauten euela Martsorarte ta, urrengo kuar-
ta tenporak arte irauten euela ta. Batak sorta abarra suai emuten
iutsan eta beste anaixak, etxaburura joan ta, keia zainketan iuen.
Keiak bera eiten baeuen, txalo jo: —*Ontxe etxaukoi kuidaurik!*
Eta gora eiten baeuen: —*Ontxe galdu gaituk!* Orduan ego aizea
agertzen bazan, txalo jo ta sukaldea etortzen zan aizea zainketan
euana eta geo botakada bat ardo edaten euen. Nik siñisketan dot
gaiña ori, zeatik ganauentzako jan gutxi izaten euen ba, eta arek,
sikeran egualdi onen esperantzia emon. Lengo areik ostikada asko
artuta bizi zian emen”. (Francisco Zurutuza).

c) *Beste igar-bide batzuek.*

“Lenaukuak, laiñuak Aizkorri aldera xoiagak eta eurixe ein
bixok, eta igarri eiten otsain”. (Francisco Zurutuza).

“Izarra joaten dan kontrako aizea etorten da urrengo egu-
nean: izarra nortera joaten bada, norteko aizea urrengo egunean;
surrera joaten bada, surreko aizea urrengo egunean”. (Juan Miguel
Elorza).

“Ganau guztixak egualdixai antz emoten xaue. Mendixan, egualdi ona badator, alperrik izan eurixa, beti eiten dau gora. Eta txarra badator, bera etorten da ganaua”. (Ladislao Odriozola).

“Goizeko ezkurrixa (edo ozkarrixa), illuntzeko iturrixa”. (Maria Ugarte).

“Anbotoko seiñoria ikusten danian, laster izaten da eurixa”. (Maria Ugarte).

“Barikuko trumoiak, zortzi eguneko ekaitza”. (Ladislao Odriozola).

d) *Illegunak.*

“Illegunak, igarteko egunak dira. Agostuaren lenengo amabi egunak izaten dira. Agostuko lenengo eguna Ilbeltzai tokaiten xako. Agostuko lenengo eguna nolako, Ilbeltza alako. Agostuko lenengo eguna ona eiten badau, Ilbeltza ona eingo dau. Ta gero, Agostuko bigarren eguna Otsailai tokaiten xako, irugarrena Martixai ta ala saillian. Oneik dira Agostuko illegunak. Oneik esan eiten diran gauzak dira”. (Ladislao Odriozola).

III - Oiturak

a) *Gabonez.*

“Gabon gabeko illintixa arteixan ipinten da urrengo urteartian. Zertarako eztakit, baiña kostunbre zarra da-ta eifñ eiten dogu, arteixan gaitzik izan ezteifñ”. (Ignacio Vergara).

“Nativitete egunian, aguardientia opillakin, orixe izaten ei zan. Ta gure gurasuek esateuen oingo gazteak beste gauza on asko jateko baiño ilusiño geixau eukiten euela orixe artzeko”. (Estefania Arregui).

b) *Idulenzia egunez.*

“Idulenzia egunean —Bariku edo Ostiral santu eguna da— azitarako artua aletu, arjorik izan ezteixen. Idulenzia egunean artua aletu ezkeru, ezta arjorik izan be eiten. Bestela artuak Urri inguruan ba, ar orrek ebaita jausi egiten dira.

Idulenzia egunean esnia daukain ganau danari pitintxu bana kentzeko lenagoko kostunbria, esne utsitu ezteixen. Familixak danak probaiteko, ardixai be bai, lenagoko usaixua da”. (Juan Miguel Elorza).

c) *Etzaixua.*

“Etzaixua gaitz bat da, buruko arra. Eiten xakon ardixai, akabau eiten danian, aren burua, arteixan erdi-erdixan sartu ta geixago eitala izaten gaitz ori esaten daue. Gue amandreak, ardi bat akabau zanian, neurtu txabolía ta erdi-erdixan burua enterrau eban ta geixau etzan izan gaitz ori. Ondiok an dao potolotxua”. (Juan Miguel Elorza).

d) *Ganauen gaitzak kentzeko.*

“Ganauen gaitzak kentzeko, kare letxeria ta zotala botaeiten xate ormai. Bei bat gaixotuten danian a osaketako, San Juan bedarra ipinten da beian bai, ta aren lurruna artu daixela”. (Andrés Lizarralde).

“Ganadurik gaixotzen danian, San Juan bedarren lurruna, liñasixa egosita sartu, eta, katuan uliakín, urdai-gizena emoten xate”. (Ladislao Odriozola).

e) *Beste oitura batzuek.*

“Ganaua neurtzekuan, eiten da, kordela artu, ta, tak, tak, guutzia egin kordelakin, ta mun egin kordelai, ta *nee begizak ezteixola gaitzik ein* esaten da”. (Juan Miguel Elorza).

“Trumoiak diranean, San Juan bedarrak sutara bota ta erre, ta Santo-kristoa bentanara atara eiten dogu, oreixak pasaeitiaití, okerrik ein ezteixen, guri lenagokoak erakutsita”. (Andrés Lizarralde).

“Gaixak —garitxoak— sendaketako, txakur aundiaz edo iortzi gaixa, Aita-gure bat errezaú, diruakin gurutze bat egin ta Kurtzipizioko ermitara botaten da. Orregaitik dauko ango Santo-kristoak *Kristo de la verruga* izena”. (Julián Madinabeitia).

“Katu bat kanpotik ekarten bada, gelatxuan —laratzean— iru buelta emon sakuan, edo buztanetik elduta, etxean gelditu dein eta etxekua izan dein”. (Ladislao Odriozola).

“Lenao katillu batekin ur bedeinkatua, Pazko ura edo, botaten zan arteixan ta ituan. Etxeko aita jaunak eiten zituan orrek bedeinkaziñuak.

Ardixak ume-ondokua bota daixen sagar-biboren ura egosita emoten dostegu.

Txala jaixoten danian, lenengo Ebaikotzean eiten xako etxe-ko señalia.

Amairu lagun mai baten jaten jarri ta batek aldeiten ikusita nago ni, puntu txarra dala ta”. (Ladislao Odriozola).

“Txitak ataraiteko arrautzak dones ipiñi biar dia, emeretzi edo ogeita bat edo, bein be ez pares”. (Rosalito Odriozola).

“Pastorearen lutua da ardiari txintzarria kendu”. (Julián Madinabeitia).

IV—Esaerak

“Batek lan asko daukanean: *Bai, badaukot neuretzako ain lan. Ein biot labe-sua, ein biot puxetia, ta Bitoixatik biajia ta iru ardatz goruetan*”. (María Ugarte).

“Aize aundixak, arbolak ausita eiten dituanean, lenaoko eseria da: *Ba... il da eskribau, letrauen bat edo gizon gaiztoen bat il da. Ori kondenau da. Oin beste mundutik aik biaketan ditun aiziak dituk oneik*”.

Lenaoko zarrak txoixa bentanara etorri ezkerok: *Ene, emen aingerua! Au aingeruen bat edo purgatoixoko animen bat da. Onek badakar zerbaiten abixua*.

Bentana biko argixakin edo itzal bi batek eiten ebenian, *au nobedade txarra da* esaten eben. Batek itzal bi ein ezkerok txarren bat etorriko da, edo ondoren txarren bat ekarriko dau”. (Ignacia Erostarbe).

“Muskerrak ainka ein ezkerok, zazpi erriko kanpaiak jo ein biar izaten diala esaten eben lenao”. (Ladislao Odriozola).

“Ebaikotzean sekula ez dala moztu bear azazkalik be esaten da”. (Rosalito Odriozola).

“Ebaikotzean jaixotakuak, zelebren samarrak izaten ei dia. Moldakaitzei, *zu be Ebaikotzean jaixotakue izango zea*, esaten doste.

Ardixakin Mendiko etxabolara juteko beintzat Ebaikotza ez, Martizena ta Ebaikotza ezziala onak esaten dauc.

Ezkondur, Ebaikotzean ez, ta illen amairuan bez”. (Ladislao Odriozola).

“Oillarrak gabeen ordua eldu baiño lenago joten badau: Ene, nobedadeen bat bada munduan edo zerbait pasaiten da, okerren bat pasaiten da oillarrak ordu orretan joteko. Oillarrak beti joten dau bere orduan: Eguerdixan amabitan, illunkaran be bere orduan bai, eta goizaldeko ordubitan”. (Ignacia Erostarbe).

“Oillarrak ordutik kanpora jo ezkerok, ba, famelixa artian, ba, nobedade txarren bat izaten dala esaten da. Ta oillarrori ganea zaldu, kendu eiten da orrixen billurrez”. (María Igartua).

V — Bildurgarrixak

Oarra: Beste munduko *genio*, *espíritu*, *manes* ta olakoeri emen *bildurgarrixak* deituten iake.

“Oingo aldian bildurgarrixak lenao asko izaten zian”. (Luis Zurutuza).

a) *Sorgiñak*.

“Gabian berandu ibilli ezkeru sorgiñak urtetan euela, ori sarri entzuten gen. Orrek emoteuen bildur ori, ta etxera erretiraiteko bildur geitxuago egoten zan, sorgiñak arrapau exeixen”. (Estefanía Arregui).

“Ogei ta amar bat urte izango dia. Gure nagusiena Arabatik etorren gabaz. Eta an Gezaltzako lizunian, puxetia joten ei egozan sorgiñak eta etxera etorri zanean, ordubietan, ondio lo zaozai? Puxetia joten dabiltz Gezaltzan”. (Ignacia Erostarbe).

“Emen, esateuen, sorgiñak erropak joten ibiltzen ziala goizetan ta egun sentian ezkutau eiten ziala. Eta erreka orrei sorgiñ erreka esaten xako”. (Jesús Kortabarría).

“Sorgiñak erreketan ibiltzen zian erropak garbitzen”. (María Arregui).

“San Juan errekiari puxeta-leku esten xako sorgiñak bertan puxetia joten ebelako”. (María Santos Maiztegi).

“Gezaltzako lizuna baiño goratxuago dago sorgiñen puxeta-arrixe. Lapitza da, kuadrada, erreka erdixan dago. An joten ei dabe puxeta lizuneko sorgiñak”. (Simón Arregui).

“Arren, *demonios*, esan da, igurtzi bat emon-da joaten zian sorgiñak, *sasi guztixen ganetik*, *odei guztixen azpitik* esate ebengan”. (Rosa Igartua).

“Baserri baten egozan andra gizonak eta kriadu bat. Andra gizonak sorgiñak ziran. Mutilla, beti, gauero, lotara bialketan eben. Egun baten gogoak emon eutsan zainketako zer egiten eben. Urunakin zuri-zuri ein bixek, andria ta gizona, katuen moduen jarri ta gizonak andriari: —*Zuk zer gura dozu, lañuen ganetik edo azpitik?* —*Nik azpitik*. Gizonak: —*Nik ganetik*. Orduan bixak tximiñixan gora igo eta geixago iñok etzituan ikusi. Eta gero gizona otzak gogortuta eta andria narrakin ebaita. Urrengo goizien lengo moduan danak ezer pasau ezpalitza bezela”. (Simón Arregui).

“Sorgiñak asko izaten ei zian. Bein baten bik, batak etzala sorgiñik eta besteak bazirala. Baxoian ezetz esan ebana gabaz bere etxera eta alako bide ertzeko zelaixan dana sorgiña! Ingu-

ratu eben gizonori eta ez *giñala ta ez giñala, jakin bagiñala*, kantetan otsain. Gero sorgiñok zenbat ziran kontaiteko, bestela ez otsailla joaten itxiko. Eta kontau ei zituan eta eun da herrogeitamar”. (María Ugarte).

b) *Anbotoko Señorie.*

Oarra: Beste sorgiñak ez euken bakoitz-izenik baiña bai aren nagusiak. Ona izen batzuek: Anbotoko Señorie, Gorgomendiko Señorie, Doña Urraka, Aketeiko Damie, t. a.

“Anbotoko Señorie deabruan alabia zala esate euan gure aita jaunak. Kuadrilla bat lagun ei zian eta bat ezkondu ei zan neska zakar batekin. Beste batek esan ei eban: Gizona! Neska orrekin ezkondu? Neu beintzat ori baiño ederragoakin ezkonduko nauk, diabruaren alabiakin bada be. Ta gero agertu xakon mutil orri ba, neska eder bat eta novixo izan zian ba puska baten ta gero ezkonketak gertatu zianian fan zan elizako ateralño eta gero diabruan alabia ezin sartu elizara eta orduan sugarra eixola ezkutau zan Anbotora eta orduetik esaten xako Anbotoko Señorie”. (María Igartua).

“Gorgomendiko Señoria Anbotoko Señoria bera da. Or oreixak joten dabenien Anbotoko Señoriori Gorgomendira aldatu da”. (Jesús Kortabarria).

Oarra: Batzuek Andarton egoten zala be esan izan deuste.

“Nik entzun izan dot Andarton urten eta sua ta garra Gorgomendira etortzen zala, eta ori orra etortzen zanian, bederatzi bat egunian denpora txarra eiten dabela”. (Andrés Lizarralde).

“Señora ori urte baten Anboton eta bestian Gorgomendin izaten zan. Gabian pasaiten zan, dana sua ta garra ta argi-txipristiña. Onuskuan ikusten zan. Ona etorten zanian denporia txartu egiten zan. Gorgomendin eguanian Uribarri izaten zan kastigauena.

Ari batek mutiko bat jo eban ta mutikoak esan otsan arixari: *deabruak eruangó al au!* Ta gero ari ori Gaiztozuloko koban eguan. Gaiztozulo Gorgomendin dago. Eta an Gorgomendiko Señoria izaten zan. Ta an eguan arixen ganian jarrita. Goruetan eguan eta ikusi euan mutikoak zelan eguan. Ta geo joan zan beste lagun batzuekin arixa ataatea soka. Ta Señora orrek lagunak euko zituan koban ta lagunak esaten otsain: —*Eldu akixo al baakixo!* —*Baiña aldian xekok erruria ta apixo.* Kutun bedeinkatua eukan ba mutikoak. Ta mutikoak arixai eldu utsanian alde ein euen Señoriak arixan gaiñetik. Ta besterik ezin egin euenien txuka eiten otsain mutikoari”. (Braulio Beitia).

“Zapatan beera doiala, ezkerretikan dao aiz bat ta an daukala Anbotoko Señoriak bere etxia, entzun izan dogu. Sua ta garra daixola ikusi ein euela ortik Anbotoko aitzera,(an beste koban bat, gordeleku bat euki bear dau Señora orrek), emen esaten zan. Emen jenteak esaten eban Señora ori egoten zala Zapatako koba ortan ta ortik Anbotora pasaiten zala. Sarri entzuten gen: *Anbotoko Señorie, a ibilliko da or denpora txarrak eiteko*”. (Estefanía Arregui).

“Anbotoko Señorie, Anbototik Gorgomendiko Gaiztozulora pastoreak ikusi eben illunkara baten nola etorri zan, ta etorri omen zan sue dariola, erdi etzanda bezela, argi argi ta fara-fara sua galduez ta urrengo egunean artzaiak pentsatu dute joatea, ikusi egin bear zala zer dan ori ta antxe billatu zuten Anbotoko Señora edo sorgin ori ulia orrazketan, ari baten gaiñean jarri ta. Gero artzai batek Aitaren egin omen zuan eta sorgiñak alde eta aria artu omen zuten ta gero aiuntamentuagana mirari orren parte eman zuten. Gero kurtze ori jarri zutela esaten dute ta meza emateko tokia. Gero aiuntamentua etortzen zan koba ori bedein-katzera”. (Julián Madinabeitia).

“Anbotoko Señori oi be ikusi ta gauz. Bera da, neska gazte baten figuria dauko, nik birritan be ikusiot neuk pe ta. Sua ta keia botaten dau atzea, gaurko aioplanuen antzea. Lenengo Bergaran ikusi neuan estaziñotik onuntz etorrela, goizeko seiretan. Lenengo zaata bat, geo argitasuna ta orduan pasau zan bildurgarrixa. Geo, andik etorrita laster, ementxe tokau xaten ikustia. Orduan, goizian Arantzazura goazela, Andartora joan zan. Lenengoan ikusi neuan figuria zeukan”. (María Santos Maiztegui).

Oarra: Anbotoko Señorie fenómeno meteórico?

“Nik ori ikusi izan dot bost edo sei aldiz. Nire eritxiz da denporiak emoten daben oiñastu bat. Ori azkenez ikusi nebanian, ondio aurtongo Agostuaren bosta zan, Aloñatik Oiñati aldera sartu zan. Ta nik argitasun ori ikusi nebanian, lenago zelan ikusita neukan, bape eznintzan zertu... etxaten niri gauza barri iritxi. Beste bi gizon etozen atzetik bizikletakin ta aek ikusi euenian egin osten ikaragarritzko impresiñoa, eta bata, asko zertu zan ganera, izarren bat jausi zala edo oiñaztarri bat jausi zala lurre-ra! Ni eun bat metro aurrerago niñoian, eta bata zan Ugastegiko semia. Ba, atzetik segidan jarraitu niñuen bizikletakin eta asi giñan izketan, da nik ia ikusi neban a argixa? Baietz, aixe zala Anbotoko Señoria. Lenao esaten geuntzan guk Doiña Urraka. Neuk esan notzan, Ugastegin jaixo ta asi, ta ori ikustera etzan alleau? Batzuk esaten otsailla Anbotoko Señoria edo Damia eta zeamarrak esaten otsailla Aketeiko Damia. Eta guk esaten gotzala

Gorgomendiko Señoria edo Doiña Urraka. Ori zan goizean, bostak amar miñutu gutxiago orixe. Eguan goiza klarua ta ikusteko ederra, goizaro bat ikusteko ederra. Argi ori Aloiñatik San Julián aldera jua zan, itxas aldera. Eta segidan etorri zan —goiza izarra ta egualdi klarua— ta bederatzietako etorri zan odei tormentia tximistakin ta eurixakin”. (Ladislao Odriozola).

“Ondiok Agostuaren lenenguan ikusi neban. Olaixe, amantala luze joaten dan letxe, joan zan oreixa Aloiña parteti orrutz Anboto aldera, metro bat baiño geixau emoteban arek luze. Izar buzanduna joaten dan postura artaraixe. Oreixak joten dabean kontuan eukiten badabe, ikusiko dabe orduan eurok be. Lauterdixak bostak inguruan zan, arratsaldian. Zerua oso illun, baltz eguan orduan orei baltzakin. Aize zakarra baster guztiak aidean tuala egoten da alakuetan. Gure aurrekuak Anbotoko Señoria esaten otsain argi orri. Aitak esaten euskun: —*Ume, an, baxoian Anbotoko Señoria*. Anbotoko Señoria juaten danian, laster izaten da eurixa. Lenengoan barra gorrixa da Anbotoko Señoriori eta urrunean orixa. Andik ona be etorten da atzea be eta oreixa orduan be. Sorgiña arutz doianian oreixa be arutz, eta atzera onutz datorrenian oreixa onutz”. (María Ugarte).

c) *Argixak.*

“Nik bein gauza arrigarri bat ikusi neban, nik ez bakarrik. Negua zan da bakarrik joan nintzan eguna zabaldu garaixan Azpilletatik bera. Oso goiz urten neban nik. Gabon aurretik zan. Derrepente argitu eban. Nire ama urunak pasaiten ebillen. Gero atzera joan zan. Aizkorri aldetik agertu zan. Gar aundi bat zan. Jerentiak esan eban izar bat bajutik joatea zala. Ni oraindik mutikoa nintzan”. (Andrés Lizarralde).

Oarra: Cometa Halley? 1940'ean agertu zan azkenengoz.

“Ni millagrua ikusita nao. Peri egun baten Oñatitik gen-tozen errotako bi anaiekin, Félix ta beste bat. Bagentozen kaletik gora. Gizon bat zan ardaua ta ardaua bear ebana. Denpora txarra eguan. Kortakogaiñera etorri bear ebala arek, orduan tabernia eguan. Etorri zan ta etxequak lo ta ate ondun deadarka eguan. Jausita edo an geldituko zala ta joan, bentakoeri deitu, eta ardaua naikoa emon genion eta etxera eruan genduan. Gero bagentozen Kortako-gaiñetik etxera eta altxarreko denporan nola joten dauen? Alakoixe kanpanilla otsa entzun gen lenengo. Zerena dok au? Ta iru argi ikusi genduzan orduan, ordupatak inguruan. Gu geldi ta eurok geldi. Erreondua argixak azula eukan. Gu billurtu egin giñan. Kamiñu kontratan arantzeta eguan ta iru argixak arantzan gelditu zian geure ondo-onduan. Kamiñua bera artzen dan lekuan

ixungi egin ziran. Negua zan, Enerua. Lazaron txabola onduan agertu ta goiko bide barriraiño etorri. Txakur aundi tamaiñukuak ziran argixok ta bueltea azula. Guk ez genduzan argixok ikusi nai ta eskua ipiñi ta eskuaren aurrekaldean ikusten ziran, guardasola ipiñi ta guardasola be pasau. Len baiño ardua geixago emon geuntzan, baiña gero etxera eruan genduan ta fabore egin geuntzalako edo izango zan". (Andrés Lizarralde).

"Arek argixak etziran badaezpadakuak, zerbaiten esan naia bauekain". (Claudio Zurutuza).

"Nik neure denporan argi bat ikusi dot ta ondio ez da denpora asko ganera. Astuaz nentorren ta astua gelditu xatan geldi ta nere buruari egin notsain: Basabotie (= bosque talado) dago emen eta tantaien bat egongo zala aurrian. Ta ekin neutson ba astoai buztanetik itxi ta aurreko aldea joaten kentzeeko ta momentu artan, ra! argitasun bat ikusi neuen. Lenao kurtze bat euen hasuan, ildako batena, ta neure artian pentsau neuen: *Pater noster* bat errezetako". (Claudio Zurutuza).

"Jose Askazubikoa joan zan mutil bategaz Arabara mutillaren bodarako ardaotara. Etxerakoan bidea galdu eben gabaz, edur asko eguan da. Elurzulon akordau ziran, Artzanburu ta Arriurdin aldean. An egoten ziran egur batzuk edurre atarateko tokixen. Arek ikustean akordau ziran nun egozen. Orduan Ama Birjiñari mezia ofrezidu eutzen euren larritasunien, eta eskuko makillan argixa agertu xaken eta argixa aurrelik joan xaken Urbixako Arbelarko txabola batera. An pasau eben gaba, ta urrengo egunian, Arantzazutik bera, etxera". (Félix Ugarte).

d) *Diabruak.*

"Gabian amabitatik iruretara, *deabrurik agertuko balitz* esan ezkerro, agertu eiten dala esaten daue". (Ignacio Vergara).

"Ba, andra batek, askok bezela, esaera bat eukan, ba dirua biarko zan an be eta esaten eban: *Etxon diabururik be gure etxera dirurik ekarriko dabenik*. Eta egun baten uruna eralgiten ebillela oramaixan, eta etorri xakon gizon bat sakukada bat diru bizkarrean eta bizar zurixakin eta oso bildurgarrixa eta aurrean jarri xakon zuti eta esan otsan: *Dirurik biar dozu dirurik?* Eta andrea sustau, eta ezin erantzun. Eta ustu eutsan sakukada dirua aurreko aldera eta ezkutau zan. Andriak ikusi eban bota ein zituanian diruak zirala, baiña gizona ezkutau zanian, diruok astapiku biurtu zian, eta akabo aren diruok". (Estefanía Arregui).

"Lizartza parian ardi billa nixioian. Ta gaba. Auxe ok mixeixia! Ardixak falta... ta axaixak gabero ito bi. Eta entzun neban arren otsa gero, baiña ibilli ta ibilli ta ezin topau ardirik. *Joiño!*

Diabrurik etxauk orrek topauko dituanik. Eta bertan emakume eder bat bastoiakin, ta geo: *Billautuzu ardixok?* Da, ezin, esan notsan. Baiña nik bildurrez Aitaren kiñau orduko, fixxx, olako zaratan ezkutau zan ta kito. Lañue euan orduan eta geo fixxx joan zanean, laiño guztixak kendu fuera ta gero idargixa garbi. Gero elorri baten ondoan aurkitu nitun ardixok”. (Ignacio Vergara).

“Neskatilla bat ei zan okerra. Eta amandriak esan eutsan: *I erungo daben diabrurik ezton aurkituko!* Ta segidan ume ori ezkutau. Eta gero ume ori zotz batzen ikusi gizon batzuk eta pre-guntau eutsen aber nungoa zan. Berak nungoa zan esan, eta be-deinkaziño bitartez sazerdotiek eta erligiosuek eruen eben”. (Claudio Zurutuza).

e) *Nikolastarrak.*

Oarra: Batzuek Nikolastarrak diabruak dirala esaten dabe, jentillak dirala beste batzuek.

Kolegialko zubixarena.

“Egun batian gizon bat errekan ur aundixakin ezin pasau ta bere asarrian sorgiñai ots egin otsan: —Emen ez ete da izango sorgiñik o diabrurik zubixa egingo dabenik? Baietz egingo daue-la, goizeko iruretan ollarrak jo baiño lenago. Gizon orrek goizeko iruretako eiten badaue zuixa, bere anima ta gorputza izango zala beretzako. Gero Anbotoko gaiñetik Nikolasek abrailliakin arrixa tiratu, beste Nikolasek artu. —Ahí va Nicolás. Eta bestiak: —Bota Nicolás. Eta bigarrenak irugarrenari: —Ipiñi Nicolás. Eta onek irugarrenak egite han zubixe. Gero gizona larritu egin zan arimia agindu ebalako eta ollarrari eldu ta kukurruku kantau eragin eutsan. Eta olan salbau. Ondiño zubixak arri bat faltau eban aka-bauteko. Gero iru orreitatik batek beste mutil gazte bat tentatu egin eben. Mutil ori estudiantia zan ta ona. Egun baten urteneben pasiora. Gaizto orrek esanotsan: —Kanpoak ederrak daoz. —Bai. —Nik badaukot zaldixak kanpo dana txipituko dabena. Eta bestiak erantzun otsan: —Nik be bai frenuak danari eusteko. Eta joan zan oera, siestara. Esanotsan kriaduari etorten bazan lañorik aguro berari ots egiteko. Kriaduak ots egin otsan: —Señorito, aguro jaiki, egualdi txarra dator. Artu liburutxo bat eskuan eta kaldera aundi bat buruan. Arrixa etorri zan. Kaldera ortara arri guztia bere frenuakin batu eben. Libruakin konjurua egin ta arri guztixa batu. Gaiztoak esaten otsan: —Itxi dak puska baten kanpoari arrixa botatzeko, besteak ezetz, ta danak kalderan batu”. (Fakunda Arregui).

f) *Jentillak.*

“Aitzabalen dago gentillen pasiolekua ta andik eskolatxea errotarrixakin batak alde batetik, besteak bestetik: —Ahi va Nicolás. —Venga Nicolás. Amalau milla Nicolás, esateben”. (Jesús Kortabarria).

“Jentil guztxak Nikolas euken izena. Nikolastarrak esaten xaten.—Ahi va Nicolás, artu Nikolas, euren lanian esate otsan batak besteari”. (Ignacio Vergara).

“Arrikruzko lizunean be bi aska daoz arlanduz egiñak eta jentillak egingakoak ei dira”. (Rosa Igartua).

“Narbaxatik zetozen erromesak Mendigain ta Artasotik ta Gallarbekotik. Bat bidian gaixotu zan. Bestiak iges egin eutsen. Bakarrik geratu zan atzera. Aitzabalko puntan argia ikusi ta ara joan zan Arantzazu zalakoan, bide-galduta. Eta an: —*Gabon!* esaban. —*Zer dabik, motell?* jentillak. —*Ba, Arantzazura nuak.* —*Ator onera.* Eldu ta bota eban aitzak bera. Bixen bitartian etorri xakon Arantzazuko Ama bere amantalakin eta artu eban altzuan eta etxakon ezer pasau. Ein otsan Amak millagrua”. (Facunda Arregui).

“Lenaoko aitona zarrak esate-oskuen: Lenao jentillak Oolditzako tontorretik abraillian botatako arrixak diala, Iturbaltzeko armobian daozen arrixak. An arri pillia dao, dana batutako arri libria. Jentillak ondo indartsuak izan biar eben. Ursulako aizgaiñetik eta Astruaako gaiñea errotarrixakin arraara egiten eun aik”. (Ladislao Odriozola).

“Tripa utsak izaten ziala jentillak esate euskuen. Tripa aundixa eukiela bai, eta *jentillik zeuekana etortzen bazaitzue, arrixakin tripan jo, segidan errementau egiten xostek tripak eta.* Orduko tonikia auxe zan: *Arrixakin jo tripan eta garbi*”. (María Igartua).

“Jentillak txiki-txikiak izaten ziala ta tripa aundixak esateben”. (Estefanía Arregui).

“Jentillak, Troskakoban, Aizkirriko koba esaten xaten koban, gerra denporan asko enterrauten zituen. An atxurrakin zerbait aztertu ezkeru, jentillen azurrak topaiten dira”. (Ignacia Erosarbe).

“Aizkirriko ezparruan il ziala azkenengo jentillak, pillia, entzuten neutsan aita jaunari. Gosiak il zituan. Oso altu ta igarrak ei zian. Erropak oso diferente josita, lur koloreko erropak eukiten ei zeuen aik. Orrek etorri ein eizian ona, orain gailleguak etortzen

dian moduan. Lan eiteko be ez eizian, gorputza ain baldarra, iarra ta indar gutxikoa zuten da. Berduria jaten ei eben. Azia ta babia ta souan arrapatzen ei zebena jaten zeben aek. Jakiña, negu partian emen berduraik ez da ta il ein biar. Neu be aitakin jentillen azurrak ikustera joan nintzan". (María Santos Maiztegui).

"Aizkirriko koban, Ama Birjiñie etorri aurretik, or bizi eizian jentillok. Sekulako dibujoak daoz barruan. Labea, konfesonaixoa ta olakuak, troskazko dibujoakin". (Brígida Villar).

g) *Juanito Txitrularixa.*

"Juanito txitrulari abadia.

Au zan kazarixa. Mezako garaian bi txakurrek zelan ekarri zuten erbixa ate ondora, meza utzi ta joan zan erbixagana. Ta kondenaturik munduan dabil mendi altutik mendi altura, bera txistruka ta txakurrak zaunkaka ibilten dia. Ta gabian orain be txitrukek eta zaunkak entzuten dia. Askotan entzun diegu mendatik gabaz datozenei: Juaniko txistrulaixak gaur be korridu dau majo". (Agustín Beitia).

"Juaniko txistrularixa abade bat zan. Eta kasan edo eizian apesiño aundia eukana. Eta kazako txakurra eukan. Eta goiz baten mezia zelebraiten eguala txakurra etorren erbixa aurreti ta eliza aurreti pasau zan erbixa ta txakurra. Ori ikusi ebenian utzi mezia ta txakurren ondoren txitruka fiu ta fiu. Gero Jaungoikuak kastigau eben juizioko egunerarte alan ibilteko. Eta oin mundu guztian bueltaka dabil erbixa ta txakurra aurreti dituala. Ta batian emen ta bestian an txakurren zaunkia ta Juanikon txistua entzun eiten diala esaten dabe". (María Igartua).

Gure aita jauna.

"Mondragoen ferixia izan ta Aroztik gora etxera etorrela ba ietargixa ederra euen ta ietargitan txakurra zaunka, kaza txakurra ikusi euen ta Juanito txistulaixa eskopetiakin eta txakurrai txistu egiten otzain fiu ta fiu. Ori berak ikusitakua ietargitan, keixian, ietargixa altuan eguan.

Gabeko amaiketari alleau zan etxea ta dana sustautari izerditan. —Juanito dabil or kasan. Ta arek len be entzuta ei eukan baiña orduan beak be ikusi eta geo askok obserbau ei zeuen ori". (María Santos Maiztegui).

"Juanito txitrukaixak gutxitan entzuten da baiña neri tokaxat entzutia. Or faten da laino bat edo izango balitza bezelaixe. Xiiii, aiziak ataraten daun lako zaratia eruaten dau. I, au, i, au, fio, fio, entzuten da ta berealaixe pasaiten da. Abade bat izan oso kasaixa ta txakurrak elizara eruan otsain erbixa eta altzarreko denporan mezia itxi eta joan ei zan kazara ta gero Jaungoikuak

kastigau eben mundua mundu zan arte olaixe ibilteko". (Victoria Igartua).

h) *Su-txakurrak.*

"Batan batek, argixak urten dost esate euenian, su-txakurrak izango zian esaten eben". (Jesus Kortabarria).

"Jaumendiko tontorrean, Goienetxe aldien, Ubaon, Antzuegan ta, gabian agerketan zian argi batzuk. Orrek ziran sutxakurrak (aotik sua botate eben txakur batzuk) Joaten ziran oek arrapatzera, baiña ezin. Jaumendira joaten baziran, ara orduko beste lekuan agerketan ziran". (Graziano Anduaga).

"Kaletik gora gatzela, errekatik, Goienetxen aldamenean, Tella-poto esaten xakon tokixan sutxakurrak agerketan ziriala esaten eben. —'ta su-txakurrok zer ziran ba?— Izena badakigu, baiña zer ziranik ez.

Gure gurasoak esaten eben denporian kanbixuetan zelan agerketan zan su-txakurre". (María Ugarte).

"Izar-bustandunai be su-txakurrak xaten". (Jesus Kortabarria).

i) *Bildurgarri geiago.*

Itzala; Purgatoixoko animak; Lamia?; Moruak; Baltzunea; Demoniuak; Kalabera; Sugea; Ankagorrixok; Gauza itxusia; Serpientia; Gorrixok...

j) *Bildurgarrixen tokixak.*

Anboto; Gogormendi; Gaiztozulo; Andarto; Jaumendi; Geal-tzako lizuna; Sorgiñ erreka; Aketei; Kataoste; Arrikruzko lizuna; Arrikruzko zelaixa; Zapatako koba; Troska koba...

k) *Sorgiñ eta diabruen gaba.*

"Idulenzia gau orrek emuten dau errespeto aundixa. Idulenzia gaua errespetau ein biar dala esten daue. Jaungoikua preso egoten da egun orretan da orduan urtetan dabe sorgiñok". (Estefanía Arregui).

Bariku-santu gaua izango zan. Da aroz bat gabian etxe baten lanian ibilli ta bere etxera etorren. Ta bidean topau eban asto bat, ta erregliakin jo eben astoa bizkarrian. Ta astuak esan otsan: "Gaba gabezkuentzako eta eguna egunezkuentzako ta bakian dagonari bakian ixteko. Ta egun oneik, gure modukuendako". Kristo ildako denporan diabruak ibiltan dira ba". (Braulio Beitia).

“Ebaikotz santu egunean tiniebletara etorri bai anaia, eta gero ba etxerakuan, berandutxuan aterako zan bai ta ezin alleau etxera. Gero, alleau naiz orraitio! Larri alleau naiz; etorri ta etorri ta beti ikusten nintzan leku batian.

—Ze pasauxak ba? ta, ba, ni beti etorten ta ezin alleau etxea.

Ta geo gurasoak esan otsain: “Gaurko egunez goizago etorri bear da etxea, gaur diabruak ibilten dia ba”. (Margarita Arregui).

“Gure aita jaunak eta esateben Idulenzia egunean ganauak eta persona guztiak erretiraiteko illundu orduko demoniuan gaua dala ta”. (Juan Miguel Elorza).

Kolegialko zubixarena.

VI—Bildurgarrixen kontracoak

a) *Jesusen izena.*

“Oingo aldian bildurgarrixak lenao asko izate zian. *Jesus milla bider* esan da danak ezkutauten zian sorgiñak.

Uribarrin, Tuertotik kamiñura txarrixa iltera ixoian bein bat. Eta soinu joten! Baiña soiñu aundixa bai zelaixan ta *Jesus milla bider* esan eben ta danak ezkutau ixakon ta ezebe zaataik bez geixau”. (Brígida Villar).

Arrolako gizona ferixatik etorren puxka bat epelduta eta Urtiagainen sorgin pillia urten. —“Dantzan ein biogu” esan eutsen. —“Daigun, ba”... Jesus berak esan, eta danak ezkutau”. (Rosa Igartua).

b) *Kurtzea.*

“Anbotoko Señoria sua ta garra daixola etorten ei zan Gorgomendiko Gaiztozulora. Izugarrizko zaratak entzuten ei ziran Uribarritik. Kurtzie ipiñi ezkerozkoan ezta entzuten”. (Claudio Zurutuza).

“Fraidiak guutziak bedeinkatu zituen ezkeru, indar gutxiago dauke sorgiñ ta deabru ta olako gauzak. Sorgiñak eta oiek fraidiak bedeinkaziñoan asi ziranetik asko kendu dira”. (Ignacio Vergara)

c) *Letaniak.*

“Onek letaniak geitu diran ezkeror, ori sorginkeri ori gaztau ein dala entzun dogu, letaniak indar aundixa daukelako”. (Jenara Azcárate).

d) *Ama Birjiñia.*

“Ama Birjiña argitu zanien emengo bildurgarri guztixek izkutau ziran; alan esateban gure aita jaunek”. (Claudio Zurutuza).

“Naparroko erri baten, basoan, ibiltzen ziran neska mutil gaztiak. Sorgin batek, egunero egunero eurengana joan eta erakusten osten eskola txarra, esanaz gurasoen esanik ez egiteko ta abadiak be gezurrak esaten zituela ta okerrak egitia libre zala. Eta joan xaten emakume gazte bat esanaz sorgiñai kasurik ez egiteko eta gurasoei zintzo obeditzeko eta abadien esanak zintzo egiteko. Baña umiak ainbeste gaiztotu ziran eta ekarri zituen Arantzazura. Elizako atia zabaldu eta Ama Birjiña ikusi orduko, danak biatza luzatuta: Ene, an amatxo, guri esaten euskuna sorgiñari ez kasurik egiteko! Eta mirari orrekin naparrak joan ziran oso pozuta eta neska mutillak utzi zituzten sorginkeri danak. Au askotan entzun izan notsan neure aita jaunari”. (Graziano Anduaga).

“Ama Birjiña bera eruan eta gora etorri zan. Arek plazia gurago. Ama Birjiñeak arantza gaiñea.

Ama Birjiña bizitatzera etorten zian euskaldun garbixak. Arrikruzko santutxuan iru agurmaixa erresauta gora, Ama Birjiña Arantzazukoa dagon lekura, arkumatxua eskeintera. Ta gero gerrixan kordoitxu bat bi doblían egoten zian erresaiten Arantzazuko Amaren aurrian. Ta Ama Birjiñiaren onduan txoritxu bat kantari; zeru goitik zelako laguntasuna etorri”. (Mari Ugarte).

e) *Kutunak.*

“San Juan bedarrak,

Bedeinkatutako bedarrak izaten dira. San Juan egunian bedeinkatuten dia. Bedar askokin zendor bat egiten da. Lenengo erbasantia, bigarren sajontxu bedarra, artua, garixa, sagarra, madarixa ta orreik, babia, erruria ta aafixua, gero larrosa batzuk edergarri, bueltan espatriñak. Oneik eukiteituu bedeinkatuta etxian. Bei bat gaixotutakuan a osaketako ifinten xako beian, ganaua tapau bai, ta aren lurrunak artu. Ta trumoiak diranean igual. Sutara bota ta erre ta Santokristoa atara bentanara. Oreixak pasa-

eitiaitik, okerrik ein esteixen. San Juan egunian bedeinkatutako erruria ta aafixuakin egiten ziran kutunak. Medaillien modukoak, kuadrukoak. Gure ama defuntiak eiten eben Arantzazutik zendorra ekarrenian len lepuan eukona kendu ta erre ta berrixa ein. Da bein esa oskun aita jaun difuntuak: ein dotsue danori kutunak amak? Erantzun geuntsan: —bai. Ta,— pressixo bear dira orrek bestela Gaiztozulon pasau zana pasau eztein. Ta guk esan geuntsan: Zer pasau zan?

—Pastore bat joan zan lezera ardia ataratera eta erantzun Gaiztozuloko señoiriak bere lagunai: —Akixok, akixok albaakixok.—Baiña ezin leikixok, aldian iakok erruria ta apixok”. (Andrés Lizarralde).

“Aafixuaz ta ogi bedeinkatutako apurtxu batekin da kutunak eiten zian personiak eamateko, txikixak eta aundixak.

Kutuna bustarrian be ibilten zan. Untxe be Urbixan asko ibilten dira ardixak kutunakin, euren kanpantxue dauen ardien bateri ipinten doste oñestuaatik eta oñastarriaatik. Urbixan asko ilten ditue olakoak. Ikaskin batzuk, barrankesak, txapel barruan kutuna ebalte euen”. (Andrés Lizarralde).

“San Bernardoko kutunak, batzuek evangelixuak dira ta bestiak kutunak ango bedeinkaziñuakin ta medallak be bai noberak eruateko. Monjak egiten edo ango dendatxuan egoten dia beintzat danok. Kutunak, orrek daukai, barruan belartxu batzuk bedeinkatuta. Olakuak eiten ditue Narbajako Barriako San Bernardon, norberak eruateko eskapulaixo moduan. Ebanjelixo liburutxuak itoian jartzen dia ganaua kuidau daixen. Kuartuetan ipinten dia San Bernardoren irudixak”. (Jenara Azcárate).

“Lenao Arantzazuko Sindikan erruriaz ta aafixuaz eindako kutunak ipinten osten ardixai lepuan, arran petralian.

Ganauen itoian be ipinten zian kutunak erruriaz ta aafixuaz egindakoak, San Juan egunian bedeinkatutakoak”. (Ladislao Odriozola).

f) *Beste bildurgarrixen kontrako gauza batzuk.*

Konjuruak; Evanjelixuak; Errudia ta aafixua; Eskopetia; Eibar; Txabea; Trikunarua; Beakatz kordia; t. a.

“Emen esaeria da, sorgiñak Eibarrek galdu dituala, pistoliak”. (Simón Arregui).

“Bi artzain txabolan daozela, an etorri omen zizaien gauza itxusi bat etxabolara, eta esan ei otsain: Eguna egunezkuendako ta gaba gabezkuendako ta txabatxu bat baeukain atian ifinteko. Gero andik aurrera, txabatxu bat ipinten dabe artzaiak”. (Margarita Arregui).

“Triku narrua lau iltzekin josten eben arteiko atian gure aita jaunak, ardixen enfermedaderik etorri eztein. Onek meritua dauko ardixen enfermedadiarekin, esateban”. (María Santos Maiztegui).

VII—Gaitak eta gaitzen sendagarriak

a) *Begizkua.*

“Ardi edo bei bat edo ederra ezta? ta, ikusten da inbiixia artzen dau batek eta begizkua eiten xate ganauari. Ta gueztabela be egin leike ori, begizku ori. Orregaitik esaten da *nee begixak eztaieia gaitzik egin*”. (Juan Miguel Elorza).

b) *Begizko ura.*

Azpilletako Prantziskak emon euskun begizko ura (ur be-deinkatua izango zan) ba begizko gaixo ori kentzeko.

Ganaua neurtzekuan, eiten da, kordela artu ta tak, tak guutzia egin kordelakin ta mun ein kordelai ta *nee begixak ezteixola gaitzik egin* esaten da. (Juan Miguel Elorza).

c) *Gaizkiiña.*

“Personiari be ein leitekio gaitz ori. Personiarenari gaizkiiña esaten xate. Naparruan eguan gure amandria neska gazte zala ta an bi emakuma aserratu dia ta batai il biarra atorri ta barkaziua eske juan zan beste sano eguan ori. Eta barkaziua eskatuta bestiak begirakuna bat ein ta ezer erantzun barik il zan andri oi. Ta gero sano eguana etziola barkatu ta burutik endreau egin zan ta iñun errendiu ezin da oian lotuta ipiñi zuen eta bentanak eta iltzez josi ta ala euzela, gizon batzuek an zain bertan, olako zaata aundi bat entzun euen. Da ogekuak: zuek esaten dozue neri etzatala ezer etortzen, ta ontzi ta izara ta danak puskatu eiten zituen. Geo iltziakin jositako bentana oi zabaldua gelditu zan ta bost

atzamar markia petxuan agertu zakon emakume orri ta orduan esaten osten: Au ikusi ezazue, nola nagoan... ta bost atzamarren markak baltz-baltzak agertu zakon petxuan. Ta geo ba: -Gaizkiiña zala ta Barriako San Bernardok eukala ortarako birtutea ori kentzeko ta ara eruan biarko zala pentsau ta bost gizonen artian artuta eruan euen San Bernardoko eleizara. Ta ara eruan ta an mezia esan da benedeziñua bota otsaiñean bost gizonak bota zituan lurre-ra ta sano gelditu zan. Orduantxe konturatu zan nun ete zeuan. Ta gure amona bere illoba zan ta: —i ere emen al intzan? gure amonari. Ta gonai begira jarri zanian: —au ezton ba nire gonía, au ire gona barria izango den. —Bai, alaixe da, zeuria dana txikituta zendukazun ta.

Au da gaizkiiña. Barkatu ezak emoten dauan gaitza da, gorrotuak emoten dauan gaitza da”. (Juan Miguel Elorza).

VIII—Beste edosenbat yakintza gai

a) *Sandalli.*

“Kamiñotik Araotzera goazela, eskoatara dago koba bat: Sandalliko koba ta Santua San Elias.

Narbaxakoa da Santu ori, Kasa Iturrospekoa. Solteroa zan, mutil ona, ta gazteakin edo errespetoren bat eta egun baten pentsau eben il egin bear dabela, baiño bera be askar egongo zan. Gau batean erri ortako genteak estu artu eban arrika, eritu euen buruan emon eutsen arrikak ta Araotzera jo eben. Ta Araotzen ezion iñork aterik eregi. Gero Oñati aldera bazijoan gizajoa ta gabea tormenta bat egon zan da koba antxe sartu ta koba antxe il zan. Da orain Arabako gentea etorten da euri eske orra. Fede aundia eukiten dute santu orregan. Ta umian txaketak eta ekarten ditue familixe izan daixen edo. Ta euri eske etorri diranean iñoiz ez dia euri barik gelditu”. (Julián Madinabeitia).

“Narbaxatik bialdu in euen Sandali ta San Juanen paskatdu edo jatordu bat ein eben. Eta oin Narbaxako errixak San Juanea ekarten daue bi otxaba arda —lau litro arda— ta lau libra ogi, San Juanen bertan jateko. Au Aita San Eliasek berak Narbaxako errixai itxitako penitentzia da. Gero ortik kobara joan zan”. (Brígida Villar).

“Ta urik ezeukenari be ura ipinten iutsen, nunai, edozein lekutan jarten osten iturrixa. Liorte aundixa daonian Narbaxako errixa segidan etorten da orra erroatibaz, ta etxera orduko beti egiten doste eurixa. Nunbait alkantzu aundia dauko santuak”. (Brigida Villar).

“Legorte luzia danean. Narbaxakoak San Elias koba ortara etorten dia.

Ogi bategaitik saldu eben San Elias”. (Margarita Arregui).

“Narbaxatik Salbaterrara bitartian gaintxo bat dago eta an daoz arri batzuk biribil biribillak kurtzie daukonak. Mutikotan amabi urtegaz eta gero ogei urtegaz be joaten nintzan ni ara segiegaz garie ebatera, nik esaten neutsien arek arrixek zer ziran eta esaten eusten arek San Eliaseri arrika egindakoak zirala. San Elias ori Narbaxako errotako semia zala esaten eben. Emendik goazela mendi barrenien dao errota ori, Beltranetik beera, erri aldera. San Elias labradoria zan eta mezatarako abadiak josten ebanien, idixak itxi ta mezatara joaten ei zan eta idixok igual ibilten ei ziran. Narbaxakoak edo kanpokoak, ori eztakit, arrika bialdu eben. Olo arrautzan tamañukoak, zabaltxuagoak. Bide ondoko soluetan daoz arrixok. Gero San Eliasko kobara etorri ei zan, zein urtetan edo noiz nik eztakit. Arrika atara ezkerononora etorri biar, jakiña, ta orra etorri zan. Narbaxakoak ur eske etorten dia orain San Eliasera”. (Claudio Zurutuza).

San Elias be ekarri eben ona —esan euskun San Juango Maria Santosek— ogi bategaitik salduta. Narbaxarrai esan ta eurak be olaixe dala esaten dabe.

Lengo batean Narbaxara jatsi nintzan eta ango abade yaunari azaldu neutsan zelan niñoian San Eliasen barri billa. Barre baten ondoren auxe esan eustan: “Dichoso San Elías, quién les habrá metido a éstos tal cosa. Es verdad que como dice ud., éstos afirman que San Elías era de Narbaja, pero ya sabe ud. que San Elías...”, etc.

Narbaxako abade yaunari ez eutson grazi aundirik egiten San Elias kontu orrek. Gero esan eustan:

“Me han fastidiado estos hombres con esto de San Elías. Tienen aquí la costumbre de ir todos los años el día de San Elías a la cueva que ud. sabe; pues bien, por ir este día con ellos a dicha cueva, me daba el pueblo (al señor cura) la leña que necesitaba para todo el año: cortaban en el monte y me traían a casa. Este año, porque no les quise acompañar, me han quitado la leña”.

Gero abade orrek esan eustan zelan leenago etorten zan San Eliaseko santerua eta zelan eskatzen zituan:

“Aseite, sera y lus para el santo”. Ta bein batek auxe erantzun eiotsan: “Pues que se vaya pronto a la cama”.

Eroan nindun zaar batzuegana arek ekiezala San Elias orren barriak eta Aretariko batek auxe esan eustan: “Vivía donde Ortiz, allá se conserva la pila de agua bendita del santo. Antes, cuando veníamos de rogativas de San Elías, allí se rezaba el Rosario. Ahora se reza en el camino. Luego se echan unas cho-peritas. Cuando vamos a San Elías salimos en ayunas y en Espardineteta bebemos unos vasitos de agua en unos vasitos que llevamos para eso”.

Eta urrengoan asti geiagogaz joateko esan eusten eurek olako gauzatan asko ekiela ta urrengoan erakutsiko eustiezala: “Las piedras con que apedrearón a San Elías o, según otros, a Cristo nuestro Señor. Son unas piedras preciosas”.

“San Elias da orreik iru anai ziran. Bat San Adrianen dago, Adrian izango zan da. Bestia San Elias, ta bestia San Julian. Da oso ei zian gaiztuak eta amak esaten ostela alkar ikusiko eztauen lekura, irurak iru menditara bialduko ditula. Bat San Adrianera, bestia be San Eliasen dao ta San Julian berriz an, beko mendi puntan dao a be, Urrusulatik arutz. Eta San Elias arrika atara ein euen Narbaxatik gaiztua zalako eta geo santu egin zan. San Elias profeta oindio paradixuan dao bere kotxiakin eta ondio juizioko egunerako atzera etorri biar dabela, ori makiña bat aldiz entzun dogu. Eta orain Narbaxakueri, arrika atara ebelako, euria baiño lenago arrixa egiten doste”. (Ignacia Eros-tarbe).

“San Eliasera Narbaxakuak etorten dia urtero parkaziñuak eskaketara. Narbaxakuak arrika egin otsain bein eta orduan etorri zan orraixe kuebara”. (Victoria Igartua).

b) *Araoz.*

“Araotzen sortueria be jakingarrixa da.

Oñati “billa porzi” zan denporan, Oñatiko mutil batzuk, Bilbora jun ta lapurreta eta eriotza batzuk egin omen zituen. Eta Oñatiko buru egiten eban kondiari esan otsain andi, orrek gaizkilleak arrapau ta il egin biar ziala. Kondiak erantzun osten iltia baiño kastigu gogorragoa emango ziela. Or zeukala aitz bitarte bat eta arutz hotako zituala an bizitzeko ta an ilgo ziala berez. Arek berez il zian, baiña ondorena utzita. Orregatik esaten dute

Araoztarrak bandiduetatik sortuak diala. Ori askotan entzun degu". (Graziano Anduaga).

"Araoztarrak beltzak ei zian ta txatxarrak. Lenengo gizon lapur kuadrilla bat ei zian. Andrak Azkoititik ekarri ei zituen ostuta". (Julián Madinabeitia).

"Araotzen, neska bat kanpora ezkontzia pentsaiten ebenian, bere nobixua mutillakin "bota egunian" juaten zanian, Araozko mutillak makillakin bidera urten eta botia kendu eta makillatu egiten zituen.

Bota eguna oitura bat zan. Zortzi egun aurrez nobixua bere mutil lagunakin afaitera andra gaien etxera joaten zan". (Graziano Anduaga).

IX-Ipuñak

a) *Tartalorena.*

"Tartalo ori begi bakarra zan, eta indar aundikoa. Gizonak jaten zituan. Ugasabak bein bialdu eban kriadua Tartalo orregana karta bategaz eta karta barruan esaten eban kriadu orri despatxu emoteko edo, baiña kriaduak ez eikian kartak zer ipinten eban. Tartaloren lapikoari kriaduak begiratuta personien eskue ikusi eban. Billurre artu eban ordun kriaduek an garbituko ebala, baiña ezin iges egin atie itxia egualako. Burduntzien artu ta txast! Tartalori sartu eutsan begi bakarretik ta ezin topau ardixen artian. Orduan Tartalok atie zabaldu ta asi zan ardixek kontetan ta kanpora ateraten. Orduan kriaduak narru bategaz ardixen moduen jarri ta ardixe zalakoan urtetan itxi. Orduan kanpotik kriaduak: Eup! libre naok, libre naok!" (Félix Ugarte).

b) *Samartin.*

"Deabruai Samartiñek artua artu osten. Arto pillua eukain deabruak. Eta Samartiñek gura eben artua artu eitia eurak akordau barik. Eta Samartiñek jantzi zituan zapatak, nasaixak. Diabruak tontuak baiña Samartin ori be etzan.

Apostua egin euen arto pillia zeifiek pasau saltuan. Ta diabruak pasau eiteuen eta Samartiñek erdira salto eiteuen zapata naseixakin ta geo artua artu ein an zapatetan ta zapatak bete zituanian alto, beak ezin euela geiago ta. Geo Samartiñek ezeki-

xen artua noiz ereiten zan. Ba Samartin kontuan egoten zan deabruak noiz ereiteuen artua. Ta diabruak kantau eiteuen: "Elorritxua lorán dago, artua ereiten giro dago". Ta Samartin orduan enterau zan artua noiz erein bear zan. Ta gero berak erein euen ta gero andik zabaldu zan. Izena andik dauko artuak: artua. Au ezta ostua, artua baiño". (Ignacio Erostarbe).

c) *Peru ta Marixe.*

"Aik bizi zian ba, mixeixan koitauak. Sagardaua ei euken barrikatxo baten eta alako ortuxo bat andik azak jateko eta iuken txarritxu bat erositá, jenero ona zalako pagau iuen iru peseta, eta iges iutsen, ate zulotik urten da sartu xaten kañu-zulora ta andik topau ezin da ebilzela, egarritu. Eta asi zian sagardaua edaten, kortexua kenduta, eta bitartean auntzak sartu xaten ortura. Kortxua ezin topau ebillen prisan ta Peruk txakurraren bustana sartu barrika zuloan eta jun ziran auntzak ataraten eta txakurrak be bai. Aza danak jan osten auntzak, barrikatxuko sagardaua dana ustu xaten ta txarritxu oi ezkutau xaten kañu zuloan... gelditu zian koitauak txarritxurik pez, sagardaurik pez da azarik bez ta ezebe barik atzea. Ori sarritan entzuten gen". (Estefanía Arregui).

d) *Tanteluko andra gizonai jaso xatena.*

"Ba, soora joan bai, ta gabian berandu soan lanian ta kriaauk aspertuta lanian. Pentsauen usabak sustaitea eta joan zian basoa eta batac lurrean iñ en sua, eta besteak igo arbola baten gaiñea eta gaztaiñak erretako danboliñan eiñ eun sua ta iñen geo diar arbolati: —Satanas!

—Ze biok Barrabas? bestiak gaiñea.

Ta geo buelta erain tanbolin crri ta: —Judas, or soruan da-biltzan atso agurak eruan inpernura tarras.

Ta geo ordutik aurea goizau erretirau kriaauk eta eurak be bai". (María Ugarte).

X - Erantzunak

Oarra: Olango erantzunak oso ugari esan deustiez. Onako *zelebrekeriak* yakez batez be atsegin.

"Bein Jenaro Arenduikoari preguntau egin ei eutsen:

—Jenaro, zer barri?

Ta berak:

—Obeto izango giñake ezpalitz eskolarik eta dirua gordeteko bankurik eta plumarik ariñena bear litzake arroa bikoia. Ordunxe egiten deguna guretzat izango zan, bestela granuja gente orrek eramaten du dana”. (Julián Madinabeitia).

“Jaturabeko errotariaren erantzuna.

Franzizko oso zan zelebria. Errotaria zan. Ta zorruak eruan uruna berak ein da, ta zorruak ekarri uruna eiteko eiten eben.

Oiñatiko eskribaua —Benito Mokoroa— bein pasiora joan zan Jaturabera. Eta errotaria ikusi eueanean, esan eutsan oso txistosua zana jakin da:

—¿Qué hay, Francisco? Orain ee badabizu zuk jornala irabazteko modua.

Ta besteak kontestau ei eutsan:

—Ez, Jauna. Ni jornala irabazteatik ez, gosia daonai jaten emutiaatik.

Eta notaixuak kontestau:

—Eztakit nola izan ete leiken ori. Aitu al dezue sekula errotaririk zerura jun danik?

Da Franzizkok e, kontestau eutsan:

—Bai, jauna. Bat jun omen zan, ta zerutarrak ikaratu, errotariak zerura jutiaz. Eta ori papelean ipinteko eskribau eske asizian zeruan, eta ez euen billau”. (Andrés Lizarralde).

Kantuak be batu izan dodaz, baña,

Onenbestegaz naiko barri emon deutzuet Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz. Agur, Yaunak.

VICTORIANO GANDIAGA, O. F. M.

Aita Omaetxebarriak du itza: Arantzazuri buruzko kanta zaarrez ari da. Nola metodologia bat baerrezkoa den bai onetarako ta bai estudiatzen den beste edozertarako. Badaudela Euskalerrian ez bakarrik Arantzazuko Ama Virgiñari buruzkoak, baita beste toki batzuetako Ama Virgiñaren gaiñean eta denak komeni litzake biltzea. Gero, bildutakoan arakatu aal izango dira ta bear bada noiztikakoa den bakoitza finkatu, historiatik datorrigun argiaz ere baliaturik. Erderaz izan da itzaldi au. Bukatutakoan amar minutoko atsedenaldia. Atsedenal dian Arantzazuko Graziano bertsolari zaarrak bertso auek bota zituen:

Arantzazuko Andre Maria
Euskaldun onen gidaria,
Berorren bidez izango degu
Biotzeko pozgarria.
Gaur emen daude berorren aurrez,
Jaun talde maitagarria,
Geroz geiago nai dute oiek
Zuzendu Euskalerria.

Andre Maria neroni beti
Zintzo lagundu dirazu.
Jaun andre oiei zorion aundiz
Ondo lagundu zaiezu.
Guztiontzako gidari, ortxe,
Arantzan, ortxe zaude zu.
Oiek zure onduan Euskalerria,
Oiek zuzenduko dizu.

Egi mardul bat esango nuke
Inok nai badu aditu.
Gizon argalen bizimoduak
Munduan lanak baditu.
Izaten diran ongarri danak
Andre ta aurak garbitu.
Aitona zarren begi illunak
Ortara ezin argitu.

Nekazaria laister ei da zaartu.
Tankera itxusiak gorputzak artu.
Besuak biurritu,
Belaunak okertu,
Sudurra dindirritu,
Pausua baldartu,
Bizkarra gailurtu,
Burua makurtu,
Mosua kuskurtu,
Bistia laburtu,
Belarriak gortu,
Aoa biurtu,
Zentzuna agortu,
Adimena lotu,
Kaskarra lelotu,

Okotsa kakotu,
 Samia i'artu,
 Azala simurtu,
 Koipakiak urtu,
 Ezurrak agertu,
 Otzakin bildurtu,
 Eskuak gogortu,
 Beruak ixertu,
 Aje asko sortu,
 Gaitz danak indartu,
 Aixea samurtu,
 Laguntza bi artu,
 Bisitzen aspertu,
 Goitik deitutakuan
 Juteko gertu.

Zorion asko Andre Mariak
 Guztiei eman deieia.
 Aitona zarra prisaka dago
 Banijoa berieia.
 Ongi dakite baserritarren bizitza
 Gogorra dala.
 Larogei urte egiteko
 Bai neretzat bat falta dala.

Maipuruak Aita Zabala-ri eman dio itza.

BERTSO BERRI BILLA EUSKALERRIA ZEAR

Etzidaten neri esan aldezaurretik euskeraz ala erderaz nere itzaldi au paratu bear ote nuan.

Astirik ez galdutzearren asi nintzan emen esan bearrekoak moldatutzen, euskeraz egon bear izatekotan euskeratuko nitualakoan.

Bañan euskeraz bear lukeala abisua etorri zitzaidanean astirik gabe arkitu nintzan, ta nik paperean jarritako makiña bat arrazoi euskeraz adierazteko biurri xamarrek zirala, nik beintzat argi ta garbi euskeraz adierazi ez nitzazkenak.

Orrela, erderaz izango da nere mintzaldia. Ez gero uste egin-dako okerra damututzen etzaidanik. Zuek biotz berak zeraten ezkerok barkatuko didazute noski; ala ta guziz ere etzait barrenetik joango sentitzen dedan lotsa, oraindañoko iztunen tartean ni belarrimotz bakarra arkitzea.

Pentsaera batek ordea konsolatzen nau: beti izaten dala eus-kerera erderaren mende, nere gaurko ontan berriz erdera izango dala euskeraren morroi ta mendekoa.

* * *

Es nuestra intención que la magna edición de "bertso berriyas" que pretendemos, vaya precedida de un estudio. El encargo inesperado de preparar esta charla adelantará en agraz ideas y conceptos que sólo entonces lograrán la madurez y desarrollo que en nosotros puedan alcanzar. Quiera Dios que la precipitación con que ha sido aparejada no le prive de la única virtud que para ella deseamos, la de bosquejar una idea del estado actual de nuestra recopilación y de las conclusiones a que podemos ya llegar.

Para todos guarda sorpresas el mundo de los "bertso berriyas", sorpresas que no se hacen esperar. También a mí me las proporcionó a pesar de las ilusiones y ambiciosas esperanzas del primer momento.

Siendo preciso un orden en la recopilación, recurrimos al tan socorrido de materias y autores. Cuando un autor o un conjunto de temas similares adquiría suficiencia, se procedía a darles carpeta en una coyuntura no del todo desemejante al rito solemne del espaldarazo. Los nombres de los autores han sido siempre más conocidos. Por eso y para mayor variedad y eficiencia prefiero hacer enumeración de los principales géneros. Ello nos dará razón de la copiosidad de material y de la multiplicidad de temas, que ambas constituyen la primera sorpresa.

En primer lugar los religiosos, como cabía esperar de la profundidad de fe de nuestro pueblo.

Los hay de verdades eternas: infierno, muerte, salvación del alma, juicio, purgatorio...;

o catequísticos: mandamientos, pecados capitales, confesión, sacramentos en general...;

hay devotos comentarios de las oraciones: Padrenuestro, Avemaría, Salve, Rosario, Via Crucis...;

varias veces y con extenso desarrollo se repite el tema de la Pasión...;

los versos marianos o cantan las excelencias de María o se relacionan con alguna de sus múltiples advocaciones vascas: Aránzazu, Arrate, Izaskun, Iciar, Begoña...

La postulación de Navidad pone ante nuestras "jayotzas" la blanca adoración de los "Gabon-kantas".

Las otras postulaciones, sobre todo la de Santa Agueda, nos trae desde siglos lejanos el arcano de nuestras coplas más viejas, junto con varias vidas de la Santa.

Y la colecta de vidas de Santos, con su suma de más de setenta y su constante creciente, adquiere pretensiones de Año Cristiano.

Y en los "bertsos" de Misiones rurales se percibe aún fresca la conmoción religiosa del pueblo.

También está cantada toda la gama de nuestros deportes: palankaris, aizkolaris, segalaris, arri-jasotzales, korrikalaris... Se comentan las apuestas o se lanzan retos (erronkas).

En su abundancia, no caben en el mismo coto las regatas. Pocos son los años del presente siglo de que no poseamos alguna hoja. Y no es raro que vencedores y vencidos las editen en rencoresa diatriba.

Inagotables son los de "neska-mutillen kontuak". Roto el noviazgo, el novio a la novia o la novia al novio. A veces hay contestación. Se pagaba para ello a un bertsolari. Tal es su profusión que dudo puedan ser incluidos en un volumen.

Junto a éstos hay que poner los de marido y mujer (senar emaztearenak) y los de neskazarras y mutilzarras.

Muy importantes son los de las guerras: guerra de la Independencia, guerra de Napoleón III, guerras de Africa, y sobre todo los de las guerras carlistas, que constituyen un bloque de documentos históricos de primer orden.

Y en tiempo de paz muchos "bertso papelas" se quejan con amarga ironía de la suerte del recluta.

No podían quedar relegados los problemas sociales. Comienzan en nuestros caseríos entre amos y criados (morroi-nagusia-renak) y siguen con los más graves de patronos y obreros, reclamaciones de los baserritarras, quejas de los ganaderos y hasta de los vendedores de leche.

Y también los animales. Existen "bertsos" de las vacas sueltas de Aralar, del cerdo del Frente de Madrid, del de Ozenziyo, del de Vizcaya, del toro de Pasajes y de Orio, de las sardinas y extraño pez de Ondárroa, de la ballena de Orio y de la de Zarauz-

Guetaria, del buey de Dima, del asno de Goldáraz, del jabalí de Ulzama y hasta del perro de Azcoitia a quien su amo quitaba pacientemente los piojos.

Cuentan sus desgracias los ciegos, vendedores ambulantes de bersto-papelas, con un método de ganarse la vida semejante, aunque individualista, al de nuestra lotería de ciegos.

Otro tema es el de los emigrantes a América, y nada se diga de nuestra afición al buen comer y buen beber.

Como se ve, el más completo y universal muestrario de los aspectos de la vida de nuestro pueblo.

Hay en el bertsolarismo dos modalidades: el de plaza y sidrería y el de los "bertso berriyas".

La primera requiere menos explicación. Desde el balcón del Ayuntamiento o desde el fondo oscuro de una taberna o sidrería, el bersolari sostiene de su cantinela el racimo compacto de sus oyentes. Aquí se incluyen los alardes de habilidad, rima forzada y estrofa de versos alternados, principalmente. En ese derroche de ingenio nada importa al bertsolari que sus estrofas no alcancen más vida que la de los breves momentos que llenan los compases de su melodía. Nos importa a nosotros y hemos de acudir lápiz en mano a la privilegiada memoria del pueblo para salvar los más felices.

La otra modalidad es la del "bertso berriya", a la cual hemos aludido casi exclusivamente en nuestra enunciación de géneros.

Aquí se trata de un asunto que interesa al autor difundir. Para esto no se contaba antiguamente más que con el recurso oral, la peregrinación de boca a boca y de memoria a memoria.

Pero en la primera mitad del siglo pasado comienza el bertsolari a llevar su hoja manuscrita a las imprentas. Sospecho que entonces, al facilitarse la divulgación, se incrementan las producciones, y se abre una floración nueva que comienza con las ásperas hojas ortografiadas con uves y ces, y declina en nuestros días tras la irradiación multicolor de los bertso-papelas de ferias y mercados, encabezados casi ritualmente con el título de "Bertso Berriyak". Es el campo donde se nutre preferentemente nuestra recopilación. Porque en último término, no pretendemos sino abrir una tercera etapa en la historia de los "bertso berriyas", la de su elevación amplia y decidida a la categoría de libro.

Según propendan a una u otra de estas dos modalidades, los bertsolaris quedan divididos en dos grupos. Cierto que nunca se dan tipos puros, pero los Pello Errota, Gaztelu, Joxe Bernardo, Txirrita, quedarán siempre incluídos en el primero, en el de bertsolaris de plaza y sidrería. Los bertsos que de ellos podamos

recoger serán siempre una ínfima parte de los que cantaron con una profusión que por su tanto de despreocupación bien podría llamarse despilfarro.

El otro grupo es el de los hombres que o por su escasa voz (eztarri bajua) o porque les faltaba gusto o aptitud para la agilidad del diálogo bertsoarístico, se redujeron al “bertso berriya”.

Quiero decir alguna cosa de dos de ellos, como muestra de una sorpresa que en este grupo puede presentárenos, la de autores casi del todo desconocidos y que sin embargo dejaron una producción nutridísima.

Se llamaba el primero Francisco Iturzaeta. Tuvo dos sobrenombres: “Elizalde”, por el caserío en que nació, cercano a la ermita de la Virgen de Olaz, en Azpeitia, y “Kostita”, por el solitario caserío en que vivió desde los cinco años. Las hojas, densas todas en contenido, que de él hemos recogido hasta el presente, tratan de una vaca de pasto de Azpeitia (larre beyan gañian jarriak), sobre la Misión de 1915 en Azpeitia, sobre la de 1917 en Urrestilla, sobre la de 1921 también en Azpeitia, sobre unas solemnidades en Loyola en 1916, sobre la inauguración de un catecismo en Loyola. En 1922 publicó un folleto con más de setenta estrofas sobre las quejas de los labradores (nekazariyen komeriyen gañian jarriak). El Gobierno mandó recoger la edición, pero un ejemplar ha llegado afortunadamente hasta nuestras manos. En 1917 editaba una vida de San Ignacio en cincuenta y siete estrofas que merecieron de un bertsolari actual este juicio: “Kristauak asma litzazken bertsorik ederrenak”. Me decía su hijo que en el campo, con los bueyes, no permitía que nadie se le acercara. En aquellas labores o rezaba o improvisaba bertsos. Hace como una docena de años enfermó de próstata. No consintió que se le trasladara a una clínica para ser operado. No le daba pena morir, sólo quería morir en su caserío. Y ya en estado de extrema gravedad, una hija suya —dudo de que él supiera escribir— se sentó a su cabecera y fué escribiendo al dictado las cuarenta estrofas del comentario a la Misa que había compuesto. A los pocos días moría allí, en su caserío. Dejaba una producción de varios cientos de estrofas.

El otro bertsolari es Manuel Antonio Imaz. Se le conocía por “Altzoko Imaz”. Su producción es más extensa. Se cuenta de él que marchaba al campo con papel y lápiz en el bolsillo. Cuando le llegaba la inspiración detenía a los bueyes y escribía. Sería demasiado largo enumerar sus bertso-papelas. Sólo diré que éstos se reducen a dos grupos: los religiosos —sobresaliendo entre

ellos un folleto sobre la Pasión y otro sobre el Juicio Final— y los políticos. Estos no podremos nunca aplicárselos por más que poseamos quizás muchos de ellos. Acendrado carlista, atacaba con ellos a los liberales (beltzak) y prudentemente los publicaba anónimos. Acudí a su caserío y me encontré con un tesoro. La “etxeakoandre” joven me sacó de una “kutxa zarra” varios papeles manuscritos de su bisabuelo. Había allí bertsos sobre el Avemaría, contra el juramento, sobre el triste regreso de un indiano, sobre los achaques de la vejez, contra la desidia de los “morrois”, sobre los pecados capitales, sobre la muerte, sobre la vida de San Martín Loinaz. En prosa había, además, una hoja con la historia de la batalla de Beotibar y otra con la explicación del Rosario. Es de interés sumo lo que al final de ésta se añadía: “Manuel Imacetneco / emen puntuac chit asco / verso berria-quin pozac / gure Ama honratceco”. Alguien había que le proporcionaba materia de versificación. Tengo la intención de ir algún día a comprobar si es letra de D. Patricio de Orcaiztegui, Párroco de Tolosa, con quien me consta estaba en comunicación y de quien recibió el consejo de no sacar bertsos de noviazgos (neska-mutillenkak). Y había también una carta en la que se consignaba una auténtica compra del original, descubriéndonos que el mundillo de autores y editores también se movía en torno a los “bertso berriyas”.

Respecto a la afición del pueblo no quiero extenderme en señalar los desplazamientos de muchedumbres que han producido y siguen produciendo los bertsolari cantores. Han sido siempre más conocidos y contratados por lo mismo que más llamativos. Yo quiero apuntar algunos detalles y anécdotas concretas que se me han presentado en mis búsquedas. Se refieren más bien a la modalidad de los “bertso berriyas”.

Formulé mi petición en un caserío de la comarca de Tolosa. Advertí que rehuían la contestación. Adelanté que devolvería cuanto me prestaran y sí que obtuve entonces. El “etxejojauna”, después de trabajar toda la semana detrás de los bueyes, se sentaba los domingos después de Misa a copiar bertsos, con preferencia a copiar los que sabía su padre, un anciano que en su niñez había visto varias veces furtivamente hospedado en su casa al cura Santa Cruz. Así había llegado a llenar dos voluminosos cuadernos.

En Africa, hace unos diez años, cumplía el servicio un recluta vasco. Le dieron ocupación en la oficina. Y al ver a su disposición una máquina de escribir, se entregó a la labor de copiar cuantos bertsos sabía, luego cuantos sabían sus compa-

ñeros vascos. Y cuando alguno de ellos volvía con permiso, traía la consigna de aprender y reunir bertsos para ampliar la colección. Así endulzaban sus nostalgias aquellos mutiles.

Podría aún señalar la adquisición de otros manuscritos en Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, pero prefiero referirme a algo que resulta más curioso, a los robos a que ha inducido esa afición.

En el caserío de Manuel Antonio Imaz me dijeron que habían oído contar que en tiempo de su bisabuelo había una verdadera pila de bertsos. Pero un día el “morroi” del caserío los robó todos y huyó. Acudí al caserío del “morroi”, entre Irura y Tolosa, pero ni sabían ni tenían nada.

Otra vez, mientras en un caserío se sucedían los grupos de vecinos para rezar el Rosario ante el cadáver del dueño de la casa, hubo quien aprovechó aquellas horas doblemente oscuras para robar el tomo de bertsos de Pedro María Otaño. “¡Que lo hicieran aquella noche!”, me decía su viuda. Se hacían parientes de Otaño.

Así podríamos ir ofreciendo más argumentos, pero más cuenta trae revisar nuestra actitud, la de los estudiosos, para con el bertsolarismo.

No siempre se ha tenido un aprecio unánime.

Unos, como Echegaray, los menospreciaron por su “carácter irremediabilmente prosaico” y porque con la recopilación de las hojas volantes “se formaría una colección enorme de simplezas y groserías, dichas de una manera eminentemente prosaica”. Los califica, además, de ofender alguna vez al sentido moral.

No deja de ser cierto en más de una ocasión lo de la moralidad. Los de esta índole quedarán sin salir de nuestras carpetas y no debemos cuidarnos más de ellos.

A pesar de aparentar conocimiento de la materia, no me acabo de disuadir de que la de Echegaray no es sino una impresión primeriza. Porque, como más tarde expondremos machaconamente, el bertsolarismo es un mundo en el que no valen los criterios preconcebidos y viejos. Y un talento como el de Echegaray hubiera podido deshacerse de ellos en contactos sucesivos a lo largo de una atención continuada. Porque ni el pueblo —aunque a veces la logre accidentalmente— trató nunca de crear poesía, y es una injusticia juzgarle por lo que no fué su intención, ni sus temas —recordemos los géneros enunciados— son esencialmente veneros de poesía, y es esto consecuencia de la razón anterior.

Y si no busca poesía, llegamos a una conclusión de sorpresa a pesar de la claridad de sus premisas. Y es que en el bertsolar-

rismo, verso no tiene por qué ser equivalente a poesía. Así debe ser fuera de su coto. Y sea ése el primer criterio intruso de que debemos desprendernos. Pero a la verdad que no deja de ser excéntrica nuestra posición de impugnar por carente de poesía a quien nunca la pretendió.

Otra segunda impugnación va siendo corregida casi totalmente. Todos conocemos el fervor purista que nos invadió durante el primer tercio de siglo. Hoy lo vamos reconociendo como exagerado. Pero en aquel entonces era una inculpación al "bertso berri" su impureza de léxico. Ya la apuntó el mismo Echegaray, pero con más recalco Domingo Aguirre en *Garoa* al final de la apuesta de hachas.

Como si el bertsolari tuviese tiempo y criterio para discernir y seleccionar sus palabras. Además por la misma tilde podría desecharse todo el euskera hablado.

Mas a los que no acaban de salir de nuestra eterna postura de zahorís de erderismos de palabras, podría dárseles cumplida contrarréplica.

El bertsolari deja brotar su chorro desde la honda entraña de su alma enteramente vasca. Imposible que no brotaran juntamente valias que con muchas creces reparan lo que por ese otro lado adolecen, si por adolecer se ha de concebir lo que no es en realidad sino resultado lógico de la ley de convivencia de idiomas en su matiz menos grave.

En primer lugar los giros y modismos, increíblemente abundantes. Giro y modismo no es sino la expresión de una idea, la manifestación al exterior de esa mirada del alma que es distinta de una lengua a otra.

Nosotros pensamos en castellano y hacemos, inconscientes, un calco de los giros castellanos; ellos conservan la integridad de su pensar y expresan sus ideas con modulaciones genuinas. Algo así como si nosotros cerráramos la puerta a los erderismos de palabra y se nos colaran por la ventana los erderismos de idea, y ellos al revés. Y erderismo por erderismo, herida por herida, más peligro trae el erderismo de idea que el de palabra, porque éste hiere al cuerpo, pero aquél al alma.

Esta discrepancia no es sino manifestación al exterior de otra más sombría y recóndita, que ya hemos comenzado a apuntar, la del pensamiento, la del espíritu.

Nosotros los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros. Es una de las más fatales quiebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y sin ad-

vertirlo acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma. Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos.

Todo bertsolari, por el contrario, es un triunfo de su alma vasca sobre la maraña de instigaciones adversas, e incluso un predilecto del euskera aun entre el pueblo humilde de donde emergió. Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron.

No quisiera ofender a nadie con asertos que a mí, el primero, me contristan. Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar "bertso berriyas". Cuando hojeo ahora algunos de nuestros libros euskéricos, siento a veces la frialdad y languidez más delatoras de la falta de vida.

No dudo de que aquí radica mucha de la repulsa del pueblo a nuestros libros y gran parte de su devoción a los bertsos. Encuentran ellos en este euskera palpación, calor, nervio, en una palabra, todo ese substrato espiritual que es el alma y la vida de un idioma.

Yo no sé si todos aceptarán mis puntos de vista. Tampoco trato de imponérselos. Sólo les agradecería que evitáramos discusiones. Yo las aplazo para el día en que, Dios mediante, surja la edición que preparamos. Que entonces lean y releen, y formen su opinión definitiva. Pero por mi parte estoy convencido de que entonces muchos más que ahora convendrán conmigo en que numerosas son las lecciones que debemos aprender de los "bertso berriyas" y que éstos componen el más espléndido conjunto de euskera integral.

Otra sorpresa puede ser la de que no estamos preparados para enjuiciar el bertsolarismo.

Los más antiguos "bertso berriyas" recogidos son del siglo XVIII, data recentísima aun en las literaturas más modernas. Sin embargo, constituyen algo tan singular, que nadie puede menos de juzgarlos como una reminiscencia antiquísima y retrasar la data de su existencia hasta el medioevo cuando menos. Se diría que el mundo de los trovadores hubiera encontrado en nuestras montañas la flor de la eterna juventud.

No nos puede sorprender este hecho. El mismo euskera no es sino una supervivencia de edades remotísimas que no podía menos de haber acarreado consigo hasta nosotros otras supervivencias que asimiló en su larga peregrinación.

Y en singular paralelo, lo que es nuestro idioma para con los otros idiomas, eso mismo es el bertsolarismo en relación con

las otras literaturas. Es el euskera una lengua milenaria entre las lenguas más jóvenes del mundo, y el bertsolarismo una literatura de cuño antiquísimo entre las literaturas más avanzadas del mundo moderno. Y ambos, euskera y bertsolarismo, con el más curioso fenómeno de amnesia. Peregrinaron infantilmente despreocupados a lo largo de los siglos y hoy nada recuerdan de su camino hasta nosotros, algo así como el sonámbulo que despertara en lugar desconocido y sin recordar dónde se echó a dormir.

De aquí se deriva que no estemos preparados para la apreciación estética. Está preparado el pueblo que nunca salió ni asomó a otros mundos. Saben ellos medir sin titubeos la calidad de los bertsos, y tengo comprobado que casi siempre se hallan extrañamente concordes en sus juicios. Es que, repito, nunca salieron de aquel ámbito cuasi medieval.

Lo abandonamos nosotros y nos pertenecemos ya al mundo moderno. Precisa una reintegración que, por desgracia, ya no es posible en su plenitud sino a espíritus amplios y especialmente dotados.

Con nuestros ingenuos y románticos estudios sobre el vascuence de hace un siglo llegamos a ser la irrisión de los filólogos. Aprendimos cautela y ya nuestras modernas investigaciones lingüísticas se cimentan en la crítica más exigente.

Lo mismo reclamaría yo para el bertsolarismo. Ciertamente no haremos el ridículo porque no atraerá a tantos estudiosos a pesar de ser un fenómeno no menos interesante. Pero su apreciación estética requiere una prudencia y preparación previas muy semejantes a las del medievalista, por ejemplo. Sencillamente, hemos de despojarnos de las normas y criterios del mundo moderno y de las literaturas extrañas.

Sólo así, con mentes nuevas, tras de esa dolorosa operación de arranque, podremos hacer justicia a los "bertso beriyas". De lo contrario obtendremos una percepción deformada de los hechos de la realidad. El bertsolarismo es un mundo viejo que precisa criterios nuevos.

Pero la falta de uno interno, la podemos suplir con otro criterio externo e infalible: el mismo pueblo vasco.

Según nuestros cánones no habrá quizás calidad literaria. Pero si a nuestro pueblo lo vemos permanecer a la escucha hechizado, y reír feliz con un goce infantil y profundo, o llorar no sólo en la paz invernal de su caserío sino también colectivamente en el vagón de un tren, o llevar a hombros al bertsolari de calle en calle, como en un pueblecito de Vizcaya, entonces

tendremos que pensar que, sea con lo que fuere, obtiene el bert-solarismo una influencia que para sí la quisieran los mejores literatos, que allí no regirán otros cánones estéticos, pero que se consigue lo que nosotros quisiéramos con los nuestros. Ante estas versiones a la realidad del mito de Orfeo, mil y una vez repetidas, nadie puede en justicia retener su juicio peyorativo.

Personalmente estoy persuadido de su excelencia literaria. Creo, por ejemplo, que algunas de nuestras vidas de Santos no desmerecen de las de Berceo. Incluso encuentro entre ambas profundas semejanzas de fondo y técnica que serían demasiado largas de explicar. Pero repito que no es la apreciación de ninguno de nosotros donde debemos apoyarnos, sino en el efecto logrado en el público a quien se dirigen.

Y para conceder ya con tanta hondura y amplitud el título de literatura al bert-solarismo, no nos resta sino exponer que goza para ello de copia suficiente de producciones.

Nunca me he detenido a enumerarlos, pero calculo que los materiales recogidos subirán hasta unas 50.000 estrofas, es decir, varios centenares de miles de versos. Y aun debemos pensar que lo archivado es una porción reducida de lo actualmente existente —espero próximamente importantes adquisiciones—, que casi la totalidad de los bert-sos de plaza y sidrería no son sino flor de un instante, y que, al contrario de otras literaturas, no se guardan aquí existencias anteriores al siglo pasado sino por rara excepción.

Mas si atendemos a la fuente de donde mana todo este reguero, encontramos que el creador de esta auténtica literatura es el estrato social que comúnmente no pasa hoy de ser productor de folklore, y en consecuencia y en contra del veredicto de tantos prohombres, que el nuestro es quizá el pueblo más literato de Europa y aun del mundo.

Otras lenguas no hacen literatas sino a las clases cultas; nuestro viejo euskera convierte en literatos a los hombres sin cultura. Nunca tendremos capacidad de valorar el tesoro de humanidad y espíritu que entraña un idioma que hace de los anal-fabetos creadores de literatura.

Y así, aunque se trate de una lengua sin depósito de conocimientos, se hace de justicia otorgarle el título de lengua culta, por esa cultura superior y anímica que no es un don de las escuelas, sino del cielo.

Aunque sólo este mundo de los bert-sos peligrara en el País Vasco, salvarlo valdría el precio de todos nuestros afanes. Es

demasiado bello y, sobre todo, supramaterial para dejarlo perder con nuestro desamparo.

Mas euskera y bertsoarismo corren ya el mismo trance mortal. Se ha expresado repetidas veces que no hay supervivencia de un idioma sin literatura. Es lo que señala el grado de vitalidad de las lenguas. Y nosotros debemos confesar que siempre nos ha superado el pueblo en brío de idioma y literatura.

Yo diría que la vida del euskera ha venido siendo la historia de la deserción de los cultos y de la adhesión filial de las clases iletradas. Evitemos que su muerte vaya a ser la historia de deserción de las masas iletradas y de la adhesión, tardía ya, de los cultos.

Y para esto, imposible prescindir del bertsoarismo en sus dos aspectos. Hoy por hoy constituyen la única actividad literaria en euskera capaz de interesar poderosamente a todos los vascos sin excepción, y, asimismo, la única actividad literaria en euskera capaz de interesar a los vascos que no hacen profesión de vascófilos, es decir, a su inmensa mayoría.

Por nuestra parte seguiremos entregando a la empresa todo nuestro entusiasmo y esfuerzo. Mas sería una injusticia arrogarnos mayores méritos de los que nos corresponden. El éxito de la recopilación se debe a la colaboración entusiasta y desinteresada de todo el pueblo vasco, desde sus más altas personalidades hasta el baserritarra más anónimo. Unos rebuscan kantapapelas, otros transcriben los bertsos que ellos mismos o algunos amigos saben de memoria; unos aportan verdaderas colecciones, otros un par de manoseadas hojas, pero todos ponen en su contribución, grande o pequeña, toda su buena voluntad. Creo que esa solidaridad es la mejor prueba de que el bertsoarismo es algo que lo llevamos todos en la sangre.

Aprovecho esta ocasión pública para expresarles mi agradecimiento, más que en el mío, en nombre del euskera. Porque, en último término, tampoco hago yo más que rendirle un acto de servicio.

De algunas obras euskéricas se ha dicho como elogio máximo que son un perfecto retrato de nuestro pueblo. Aquí en los bertsos no se trata ya de percepciones mediatas.

Nos toca a nosotros, más que conjeturar, trabajar por salvar el euskera. Pero si muriese, y con él nuestro pueblo vasco, quedará en la recopilación milagrosamente conservado el depósito

sagrado de sus deseos, penas, odios, alegrías, tristezas, defectos, virtudes, amores y rezos, y juntamente con ellos pueblo e idioma habrán conseguido su más exacta y tenaz perduración.

Javier, 12-9-1956

Antonio Zabala, S. J.

Maipuruak itza eskatzeko eskubidea eman du ta Valentin Aurre jaunak badiño: Urrunetik etorri naz zeuon artera ta ikusi dot euskerea ez tala gauza edozer gai erabilteko ta biotzean arantza zorrotz bat eroango dot batzar onetatik, da danori diñotsuet aurrean gure euskelzaletasuna egizkoa ez tala. Esan dot.

Goizeko jardunak bukatu ta arratsaldean 4 1/2-etan jarraitu da. Jose Luis Alvarez-en agiriko karta bat irakurri da. Ona emen:

KARTA IDIGIA

Arantzazun biltzen zeraten guziori:

Alfontso'k esana nekien espaldidanik biltzar atsegin orren berri; ta ezin joateagatik pena aundia izan dut.

Alere, nolabait or egon naiean, eskutitz bat bidaltzea bururatu zait. Eta ona beteta nere asmoa.

Euskeraren beraka gorria.

Ez dizuet onetaz geiegi itzegingo. Euskaltzale geran guziok biotzondoan iltzatuta daramagu bere galeraren arantza.

Geroz eta aulago dugu euskera aozkoa: zenbait erri txikitan baizik ez dute aurrak eta gazteak egiten. Zaarrak ba-dijoaz. Gaurko bere baliogabeak eraginda aldegin diote euskaldunak toki geienetan, eta izkuntzaren giarra galtzen da non-nai. Egiñaletan itzaltzen ari zaigu: begiak ideki ta naikoa da.

Baikor batzuen ustez, ordea, ez da orrelakorik gertatzen euskal literaturan, edo, zeatzago esateko, euskera idatzian. Zoritxarrez ez nator bat aiekin, erdizka baizik. Goraka dijoa euskal literatura,

egia esan; baña beraka literatura orren euskera. Euskerari buruz ez dago alderatzerik ere: askoz obeto ta jatorrago erabiltzen zuten euskera antziñako euskal idazle askok, gaurkoak baño.

Apaiz aiek kaxkarrak ziran, alegia, idazle: bañan euskaldun biziak, ia ereduzat artzekoak gaur bertan, orri buruz. Indarra ta odola ditu, esate baterako, Axular'en euskerak; gaur oso gutxitan ezpada, ez ditu ez bata ta ez bestea, ta guziz odolgabe ta aula da jaiotzaz.

Euskerak eskatzen duen jokaera ta gurea.

Euskeraren egokera aintxarra izanda, ezin dugu txantxetan edo erdipurdi artu bere biziari dagokion sendabidea. Euskeraren bizia ziñez nai ezduena ez da benetako euskalzalea.

Onengatik gauza bat eskatzen digu euskeraren egokerak euskaltzale guziori: gogor lan egiteko agindu irmoa. Norberekeriak eta jokaera errazak utzi bear ditugu azkarki ta bein eta betiko.

Alabaña, batez beste, ta bereizkuntza ondragarri batzuk egin-da gero, au esan diteke nere ustez guri buruz: biguñak gerala oso.

Eragozpenak.

Ona emen leloa. Ba-dakigu denok (aipatu bearrik ere ez dago) traba ta eragozpen aundiak daudela, ta abar. Zoritarrez, asko kontsolatzen bide-gaitu puntu au goratzeak, eta errazegi gelditzen gera lasai, aiek izan eta betebearrak aldatuko bai lirean. Ez orixe: gure burua trankil eta errugabe gorde arren, ez da euskera salbatuko. Egin egin bear da: eragozpenak aipatuz denbora galdu baizik ez dugu egiten.

Ortaz, eten dezagun gure merituak aipatzeko seta: euskera salbatzeko bidean eskierki jartzean izango ditugu ibiziak. Ordu-rarte ezta txikiak ere. "Akabatzeari dagoka koroa, ta ez hasteari". (Axular'ek). Kontzientzia garbiakin eta asmo ederraz ez dugu ezer lortzen, geure buruak lasaitu ta gezurtaratu baizik.

Solas-billa.

Erderaz esanez, "amateurismoa" da gure jokaera biguñaren erroa, Euskeraren alde lan egiten dugunok solas-billa bide-gabiltz. Oso gutxi dira euskerarenari lan gogorra deritzatenak; ez berez errexa ta eroso delako, bakoitzak, beti ta rotan, nai duena ta nai duen erara egin duelako baizik.

Edozein lanetan, autsi edo aaztu ezin ditezken betebearrak dira asteko arauak. Onetan ordea, ez hide-dago ezer azkatasun eroa baizik.

Denok egin nai dugu "zerbait" (zerbaitxo jarriko nukean gogoz), eta ortaz gañera, nai dugun erara egin bear dugu "zerbait"

au. Zer da jokaera ori itz batera bilduta, anarkia utsa baizik? Ta auxe da euskaltzaleoi (eta nolako zoritxarrez aitortzen dut) dago-kigun itza: anarkia.

Bizitzaren eginkizunetan lotuta gaudela-ta, onatx azkabidea; euskerari emanex geure esku biur gaitezke, gogoan ditugun txo-xolokeri guziak egiteko.

Eta anarkiro beinipein gogor lan egingo ba-genu, ez giñake gaizki izango. Baña au berau ere ez da gertatu oi: aisa, solas-moduan, txolarteetan gera euskalzale. Bizitzatik kanpora dugu euskalzaletasuna. Gauza bat bide da bizia, ta beste bat euskera. Zer egin dezakegu era orretara jokatuz?

Egiñetako arazoan, iñork ez daki bestearen berri. Gorrak gera bata besteentzat, eta sekulako indarrak galtzen ditugu onela.

Izkuntzakoak zer esanik ez. Gure izkuntzan dagoena baño anarkia aundiagoa arkitzea gauza zalla da, oso zalla.

Mugarik ez dago edo; bata garbizale, bestea mordollozale, iñor ez "euskal"-zale. Berak ez bestek ulertzen duen euskera "personala" sortzen du bakoitzak, eta kitto: ontzat ematen ez ba-da, besteak dijoaz oker...

Nork aztertzen ditu antziñako gure izkribatzalleak? Oso gutxi, eta auetxek ere izaten dira aurriritzi gogorren jopuak.

Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikieran gai izateko. Egia esan, eta euskeraren sufijatzeari eskerrak, berritze ederra egin diteke euskera beretik irten gabe, ta au egin bear da al denetan.

Bañan asmakari ta kontzetu berri ugari ekarri dizkigu zibilizazioak, oso itz bereziakin batera, ta euskera "garbia" egiteko asmoa txatxukeri utsa da, izkuntza batek ere egin ez duena, eta gure izkuntzan gertatuko ez den gauza. Zein da, garbizaleen us-tean, Europa'ko izkuntza "garbia"? Batere ez; alere, euskerak "garbia" izan bear... Baztertu egin bear dugu etimologi-arrazakeria, elburu bakartzat au artuz: euskera maitea *euskaldunen mintzabide biurtzekoa*.

Eta au lortze arren, anarkiari alde egin, eta beste erriak eta gure asabak egiten zutena arretaz aztertu. Euskera garbia etzaigu ajolik, bizia baizik. Izkuntza bizietan ez dago garbikeririk. Ain zuzen ere, erdaldunak sortu zuten euskera "garbiaren" mitoa.

Euskaltzaleen gutxietsi-miña.

Euskerak ezertarako balio ez duela ainbestetan entzunik, konplejua jarri zaigu. Edozein gauzatarako gai dela adierazi nai dugu, eta asieran beiak eta baserriak ba-ziran euskeraren gai ba-karra, Mekanika Ondulatoria ta Filosofia'ren aldera jo dugu gaur.

Gure orekaren falta agertzen du onek, eta ziturik ez dakarten alegiñetan galtzen ari gera gaur denbora.

Erderaz oso gutxi idazten da ukulluetako egitekoez, eta are gutxiago De Broglie'z edo Sartre'z. Zergatik, bada, asko bear euskeraz? Proporzioaz ari naiz.

Jo dezagun, arren, erdira. Ba-dugu garaia...

Zintzotasunik ez.

Euskaltzaleak ez omen dugu fuldamenturik. Ta, izan ere, ez al da egia?

Eragozpenen betiko aitzekia jarri oi dugu gure burua garbitzeko; bañan au ez da aski. Euskal errehistak tajuz argitaratu, euskal eskolak metodoz eman, eta euskal arazo guziak zindoro eramán arte, ez dugu aipurik irabaziko, aipu ori merezi ez dugulako.

Gutxietsita ba-dago euskera, erauzi egin bear da gutxiespen ori indar dezaken guzia.

Onengatik, aldizkari berriak orain argitara eman opa izateari kaltegarria deritzait: finkatu ta sendotu egin bear ditugu lenbizi, orain nekez irtetzen diranak, gure laguntza osoa eskeñiz.

Asmo geiegi ta egite gutri.

Euskeraren alde lan egitea, len esan dugu, oso zailla da gure onetan. Errezagoa zaigu asmo ta eginkizunetan burua ta itxaropena jartzea, lortutako arrakasta urrietan baño.

Emendik datorkigu joera galgarri bat: proie-tuetako itsasoan murgiltzen gera, ta ezer onik zeaztu ez arren, zerbait egiten dugula iritzirik, poztu egiten gera.

Geroko egitekoetan aritzea amets pozgarria dela-ta, aietatik irten eziñean gabiltz euskaltzaleak; aietara oitu gera, ta gogorra egiten zaigu zeatzetako zurrunbilluan burrukatzea.

Aldegin bear diogu joera kaltegarri oni. Gauzatu arte, proie-tuak eta asmoak ez dira ezer. Ori ta geiago ere bai, denbora xautu-arazten bai-digute lillura zoroetan.

Beraz, izan dezagun au goiburutzat: asi ez-baña daukagun bukatu ta ondu.

Euskaltzaleen izakera.

Euskaltzaleok, gerez, amestiak gera. Aultasuna izaten da gur kupida-gaia, ta aula dakusagulako erruki izan gera asko euskera

Au ondo dago, dudarik gabe. Bañan onela sentitzen dutena ez oi dira egite-gizonak; eta egite-gizonak bear ditu euskerak be orretan.

Orra ba, euskaltzale egin gaitun birtute orixe kaltegarria zaigu euskeraren alde lanegiteko.

Euskaltzaleren ezpalekoak biguñak oi gera, antziñakoiak; aisago jartzen ditugu begiak atzoan biarrean baño; aula maiteago dugu sendoa baño, ta ezertarako balio ez duena naiago onurakorra baño. Itz batez esateko izpiritu praktikurik ez dugu.

Onengaitik, euskeraren bearrak jakin eta gure "akatsa" eza-gututa gero, arreta aundiagoa jarri bearko genuke aurrerakoan eginkizun praktikuak asmatzen, guztiz bearrezkoa bai-da au euskeraren salbaziorako.

Euskeraren bearrak baño aurreago jartzea gure griñak, ezin ontzat eman.

"Baliz"ko olak burnirik ez.

Ala dio esaera zaarrak, eta ondo esana gañera. Beste arotan egin genezakena etzaigu ardura: gaur egin dezakegunaz pentsatu bear dugu. Egin ditekena egin, eta ezin ditekena aaztu: ez dago onetaz beste aukerarik.

Eta gaur, nere ustez, bitara bil ditzakegu egin ditezken gauzak: 1.º) Gutxiengo edo minoria bat gertu. 2.º) Euskera gaitu, batu ta osatu.

Bi auek lortu arte, alperrik ari gera lanean; bi auek lortu ezkeru, berriz, lasaitu egin gindezke...

Onengaitik auek dituzute nere aolkuak:

a) Nork bere aldetik euskera alik eta sakonen ikasi. Onetarako, euskaltzale famatuen lanez baliatu, antziñako euskal literatura azterkatu ta euskal erriarekin albait artueman estuenak euki.

b) Ba-dauden eskolak tajutu, alkartu ta eratu: aurrentza-koak eta euskaldun berrientzakoak.

c) Euskaltzaleen alkar-ezaguera biziagotu.

d) Orain ditugun euskal aldizkari ta erakundeak indartu.

e) Al ba-da, euskal jaiak egin. Onetarako, euskal teatroa zuzpertz.

Euskaltzaindiaren betekizuna.

Pozez ikusten dugu Euskaltzaindiaren piztutzea.

Erabakizkoa izan diteke oni guziari buruz Euskaltzaindiaren betekizuna. Bere bi adarrak odol berriz indarturik, abiadura ederra artu dezake, ta bi lan goragarri egin ditzazke:

1.º) Alegiñak bere babesean zuzendu.

2.ª) Bere aipu guziarekin, eta, ofizialki, euskeraren batasuna zeaztu, ta euskera "personala" ta euskal berrikeri guziak ezetsi ta kondenatu.

Eta onekin, aski ta sobera barreiaz zaituedalakoan, urrundik, agur!

Jose Luis Alvarez.

Bukaeran Aita Goiriak eskatu du itza. Adierazten du aldizkari berriak sortzea ezuela uste kaltegarria denik, mesedegarri baizik. Gogora ekarten ditu leenago ateratzen ziren *Argia* ta *Ekin* eta orrelako papel bat berriz argitaratzea oso egokia litzakeala eta bere ustez Euskaltzaindia bide dela, zeren kaputxi-noak, frantziskotarrak, karmeldarrak, bakoitzak berea du. Esaten du nola erriaren biotz biotzean sartu bear litzaken euskera, onen kezka eta buruasteeri erantzun bat emanik.

Maipuruak, Mitxelena jaunak, Alvarez Enparanza jauna ezta-goen ezkeru, bere lekutik aterata ere, erantzun dio ezuela uste jaun au aldizkari berriak sortzeko kontrakoa denik. Bere ustez, berririk eztugun bitartean alegin guztiak dilugunei emateko esan nai omen du

Aita Agirretzek badiño: Badakit emen asko daudela itz egin nai lutekenak. Baño eztaikit or aurrian dauden jaunak edo emen ikusten dituzten sotanak eta habituak bildurra ematen dien edo, eta askok itz egin nai luke, ezta egongo astirik...

Gaur goizean emen dagoan jaun agurgarri batek esan dit nola orain asi diran Bizkaian ateratzen *Anaitasuna* derizkion illeroko bat. Eta illeroko orretan erabiltzen dutela oso euskera mordoillozkoa eta egin duala eskutitz bat orren kontra. Ala ere beste asko daude Bizkaiko *Anaitasuna* orrek ekartzen duan euskera orren alde. Gaude, ba, alde batetik euskera garbia nai dutenak, ta bestetik euskera berria ez, baizikan, erderatik, frantzesetik, latinetik edo beste nonbaitetik euskerak artu dituen eta artu lezazken itz guztiak onartzeko gertu daudenakin. Bi auek oso urruti dabilza alkarren artian, nola etorri litezken erdira. Nik alde batetik ikusten det oso bearrezkoa duala euskerak kanpoko izkuntzetatik itzak artzea, euskeratuta artzea. Beste aldetik ezdet ikusten eragozpenik euskerak nai baldin balitu itz berriak sortu Euskaltzaindiaren baimenarekin ta itz oiek jator izateko biderik baldin badute itz berri oiek ere artzeko. Or dago naasketa aundia ta ortaz uste det emen daudela asko

eta asko itz egin nai lutekenak eta itz egiteko bildurra dutenak. Bear-bada ortaz itz egitea ezta komeniko orain, asti gutxi dagoe-lako eta izketa ori oso luzea izango litzakelako. Baño guk guz-tiok izketa ortan sartu bear ezpadegu ere, ondo litzake emen diran jaunik prestuenak, jakintsuenak, kargurik aundiak dauz-katenak beren artian bilketa bat egin eta gauza ontaz erabaki bat artu edo Euskaltzaindiak baldin badu orretarako podererik, ba, berak beintzat neurri batzuk gai ontaz artu ditzala. Bes-terik ez.

Maipuruak: Aita Agirretxek ukitu duen gai au gai egokia ta bearrezkoa da. Baño, gaur bertan, geroxeago, emen entzungo du-gun lan batek gai au berbera ukitzen du. Beraz, orduan, bear-bada zuzenago etorriko da iritzien azalpena.

Jon Garmendia jaunak liburuen saltzeari buruz itz egin nai du, baiña gaiari eztagokion ezkerro bukaeran emango da gai be-riak ateratzeko eskubidea.

Eta Jose Maria Lojendio jaunari ematen zaio itza.

KRISTAU IKASBIDEA TA ELIZ-ITZALDIK

Gure Euskalerriko alderdi askotan, euskera bera dijoa. Zoaz-te bestela, ez muga ondoko euskaldun errietara bakarrik, baita Bizkai ta Gipuzkoa barru barruko zenbait zokoetara ere, ta aditu ezazute ango mutil koskorren arteko jarduna. Orain dala ogei, berrogei ta amar urte, erdal itzik aditzen ez zan tokietan, erderaz gaur mutillak... Gurasoak, euskaldunak dituzte, etxean, euskeraz ez dute besterik egiten, baña etxetik kanpora atera ez-kerro, agur gurasoen izkuntza zarra! Naiago dute berak, eskolan erdipurdika ikasitako izkera berria, amaren altzoan “tun kurrun, kutun” ainbeste lo kuluska gozo eragin dien euskera jatorra baño.

Umeak, geiegi aztertu gabe, egiten oi dituzte beren gauza guztiak. Mutil koskor oyetako bati, iya zergatik erderaz ari dan galdetzen ba diozute, ez dizute erantzun garbirik emango. Ba ote daki berak? Geyen Geyenetan, erderaz egiten du, errezago dalako. Baña —esango du bat edo batek— nola diteke ori? Ikasi berria izan eta errezago? Bai. Mutillak, gurasoen babesetik alde egiten duten bertatik, asten dira erdera ikasten. Eta asten dira erderaz, ordu arte euskeraz ezertarako ikutu ez dituzten gaiak erabiltzen. Gai jakingarriak, eguneroko artu-emanetarako, bear bearrezkoak di-ranak. Eta erderaz irakurtzen ikasten dute, eta bai eta idazten ere. Gero, albistariak dirala, erradioa dala, ta orra urte gutxi barru, etxeko izkuntza baztarrean eta bestea nagusi.

Etxeko goraberetarako, ekingo diote oraindik, jatorrizko iz-kuntzari noski, baña gañerakoan, etxetik kanporakoetan alegia,

erderara joko dute nai ta naiez, etxetik kanpora ez bai dute izan, gurasoak erakutsi dieten izketa, sendotu, azkortu ta aberasteko garairik.

Eskolara baño len, zertxobait geyago, euskeraz, erakutsi izan baliote, naiz izkuntza berria ikasi, utsiko zioten euskerari, baño gizajoak, ara orduko, ez dakite, ez euskeraz irakurtzen, ez ikas-taldirik laburrena egiten, eta, jakina! euskera, erderarekin ba-tean aurrera ekin bearrean, atzera gelditzen da, gero ta geyago, erdi lotsatuta edo, beste gañerako izkuntza guztiak, neke gabe, darabilzkiten gayak, bera erabiltzeko gauza ez bailitzan.

Izkuntza biren artean, batek aurrena artu ezkeru, uraxe izkuntza bakarra laister. Gizon batek, bi, iru ta izkuntza geyago ere, poliki egin ditzake, baño nekez. Ondo zaitu ta elikatu gabe, izkuntzak igartu egiten dira, mendiko loreak bezelaxe. "Eskolako aurrak ba dira, ta sei urteko neskatxako bat ikusi det —Aita Kardaberazek bere Inazio Donearen gogo-jardunen itzaurrean dio— gaztelania, latina ta euskera, berdin, trebe ta ederki irakurtzen zituena. Baña alako maistra zuen. Errespeto aundikoa ta grazia onekoa".

Gure eskola maisuak, ezin dute, euskera aldetik beintzat, Aita Kardaberazen alako maistra orren lanik egin. Baña eskolarako garaya eldu baño len, ba dute gure mutillak, beste maisu bat, Euskal Ikastola berezirik ez dan bitartean, lan ori ongi bete dezakena: Apaiza. Gure Euskalerriko umeak, bost, sei urte dituztela, ba dijoaz Kristau Ikasbidea ikastera. Orra, nere iritzi, ume oyen euskerari eusteko garairik egokiena. Kristau Ikasbidea ikasteko, eskola-lana egin bear, eta lan au ondo betetzen baldin ba da, izugarrizko erreztasuna izango dute gero, mutillak, beste edozein gayaz, euskeraz egiteko. Gurasoengandik ikasitako izkera, indartu ta ernatu egingo zaie, ta andik laister erdera ikasterakoan, mutil oyek ez dute beren jatorrizko izkuntza baztarrean utzi bearrik izango. Erderaz ikasten dituzten gauzak, euskeraz adierazteko eragozpenik ez balute... Eskolan ikasi dutena, euskeraz esateko gauza balira... Orduan eskolak ez liguke bat ere kalterik egingo, laguntza aundia baizik.

Lan ederra benetan auxe. Baña ez oso erreza. Gañera, Apai-zak bakarrik egin bear duten lana ote da au? Batzuentzako, iya eziñekoa izango litzake, eta al dutenak ere, egin nai izango al dute? "Gu ez gera emen —esango dute bear bada— euskeraz ondo irakasteko, Kristau Ikasbidea erakusteko baño".

Baña, euskeraz ondo itz egin eta ondo itz egiten irakatsi gabe, nola euskaldun umeai Kristau Ikasbidea erakutsi? Izkuntza —egia esan— ez da bide bat besterik. Iztunen arteko bide

bat, gauzak alkarri adierazteko. Orregatik, Kristau Ikasbidea erakusteko, euskeraz itz egitea ez da naikoa, baña bai, gure artean beintzat, bear bearrezkoa. Langilleak, bere lanerako tresnak bear ditu. Eta igitariak, bein ta berriro, beren itayak landu ta zorrozten dituzten bezela, orrelaxe zuek gure Euskalerriko Apaiz agurgarriak, zaitu ta landu ezazute maitasunez, euskaldunen izkuntza zarra, iñoiz ere, zuen lanerako tresna eder ori, zabarkeriz erdoituta geldi ez dedin.

Gaur, beññere baño bearrago zaizute. Ikaragarritzko jakin gosea sortu da gaur munduan. Azkeneko eun urte abetan, gure erri aundi ta txikien bizimodua, aldatu egin da zearo. Len auzokoen artean jayo ta bizi izaten giñan eta Ameriketara juaten ziranak ez, besteak, emen geunden, lasai ta paketsu, nork bere biziko lanari ekiñaz. Nekazariak soro lanetan. Kaleko langilleak, beren etxeko zoko illunen batean edo ate aurrean, patxada onean eserita, Azkoitiko alparketagilleen antzera. Medikoak, Eskribauak, Apaizak, danak goizetik arratseraño, aurreko eguneko gauzak egiten, eta orrela, egun batean eta bestean, astero, illero, urtero, beti.

Gaur ez dago olakorik. Nun geyago irabazi, an gizona. Gero ta eskola geyago berriz, irabazi ohea. Eta or dabilta, baserritarrak, langilleak, sendagilleak, lege-gizonak, danok, elburu bat dutela, danok alkarren leyan, nor geyagoka bezela, biaramoneko eginkizunik, zer nolakoak ote diran ere, igarri gabe. Atzo, Bedoñako baserri batean bizi zana, gaur, Mondraguen dago, taller txiki baten jabe eginda. Bergaran denda zeukan ura, Bitorian dezu kontratista. Alako Abogadu arrek, utzi ditu Juzgaoko paperak eta baserri bat erosi omen du Ernanin, ollotegi bat egiteko. Orrela bizi gera gaur, eta orregatik sortu da orrenbesteko jakin gosea. Dana jakin nai degu, dana egiteko gertu egon bear bai du gaur jendiak.

Kristau Ikasbidea umeai erakusteko, Apaizak, gauzak ondo adierazten jakin bear ba du, igarri nolako lana berea, onelako gizon ta emakumezkoai, itzaldietan asteko. “Euskalerriko Apaiz, Fraile ta animazai guztiak —esaten zuen Mogelek— esan dezakegu, bialduak edo autuak gerala, berri on anima gañekoai emateko, ez Erregei beren Jauregitan, ez Aundiki goratu edo jaun urre zillarra ugari darabiltenai, ez jakituria lurreoz beren ustez beterik dauden gizon arrotzarrai, ta bai nekezale, beargin, atxurlari, olagizon, ikazkin, emakume gorula, eula, jostun, ta onelako jende me ta bekokiko izerdi larriarekin ogia billatu bear dutenai. Ez degu Pablo Apostoluak bezela, agertu bear, Atenasko Bilkui edo Erakastegian, erantzuteko Jakitun gaizto asmariai, beren gal-

detze guzietara. Agertu bear degu, entzula biotz oneko ta samur errazen aurrera, zeintzuek entzungo gaituzten, geienez, ao ta biotz zabalekin ta beti ixillik”.

Gaurko entzule geyenak, bestelakoak dira. Asko ikusi ta asko ikasiak. Belarriak erne dituzte. Eta biotz onekoak ba dire ere, ez dira beti ao zabalik eta ixillik egoten diran oyetakoak. Emen ere, lengoa bera esango degu. Euskaldun entzule oyei, euskeraz egi-tea, guztiz bearrezkoa degu, baña au ez da naikoa. Gayak ondo asmatu, itzak ondo aztertu, izkerari, gaurko goraberak eskatzen duten mallan eutsi... Orra, nere iritziz, gaurko Apaiz euskaldunai dagokien lana!

Apaizen eginkizunetarako bearrezkoa baldin ba da, Euskeraren etorkizunetarako, bai onurakorra!

Gu, Donostian eta Donosti antzeko errietan bizi geranok, erderaz oituta gaude. Zuek ordea, aiton-aitonen aztarnak oraindik nastu gabe gordetzen dituzten mendi tarteko baztar eder oyetan, euskeraren soñua nun nai editzen dezutela, garo usalez inguraturik bizi zerate. Eta Euskerak, garo usaia bear du. Itz berriak, bai, gai berriak erabiltzeko, baña bere jatorrizko usaia galdu gabe.

Euskal izlari jatorrak bear ditugu. Ez erri koskorretan bakarrik. Bai gure erri aundi nastuetan ere. Guri, Donostiarrai, bein edo bein, goizean goizeko Mezaren batean izan ezik, ez digute Elizetan euskal itzaldirik egiten. Igande goizean —ori bai— poliki, poliki, erradioa irikitzen degu, Arantzazuko itzaldia entzuteko. Eta bai atsegiñez entzun ere! Orra gure izkuntza! Gure biotz barrena bene benetan ukitzen digun izketa gozo, kutuna!

Euskal Apaiz izlariak, ez dakite ondo, nolako maitasun biguna, nolako biotz zirrarak sortu arazten dituzten beren itzak, ez haserritarren artean bakarrik, baita gu, kaleko erdi euskaldun, erdi erdeldunen artean ere. Orregatik, oker daude, euskerazko itzaldiak, erri koskorretarako bakarrik bereizi nai dituztenak. Guk ere bai, Euskeraren bearra degu. Euskeraz nai degu.

Euskalerriko Apaiz agurgarriak: Jangoikoaren itzarekin batean, zabaldu itzazute euskerazko soñu eder oyek, Euskalerriguztian barrena. Gose ta egarri gaude. Ez gaitzazute utzi baraurik. Emaiguzute gure eguneroko ogia, eta bide batez, noizean bein ba da ere, Euskeraz itz egin zaiguzute.

Jose Maria Lojendio.

Maipuruak eskerrak ematen dizkio Lojendio jaunari bere itzaldi ederragatik.

Aita Damaso Inza jaunak adierazten du:

Lojendio jauna: Berri aundiak eta bear bearrezkoak eman dizkigutzu Euskalerrirako. Euskal ikaskuntza aurtzaroan bear bezela eman ezkeroz, egia gure aurrak, orain txikitari artzen duten bide ori, geroko ikasbide, geroko ikaskuntza guztietarako balukete beren oiñarri, eta oiñarri ori gerok, apaiz ta iztunlariok bear diegu gure aurrari erakutsi ta eman. Baiña apaiz asko, or, erri txokotxoetan bizi diranak, naiz-eta euskera egunero entzun, aurretik eztute bear aña liburu eta irakurgai eskura izan beintzat, aspaldian; eta aldizkarien batek edo bestek zerbait ikaskuntza kristau ikasbideaz eman badie ere, urritxo egiten zaizkie irakurgai oiek, aurtxoai bear denean kristau ikasbideko egi bakoitza adierazteko bear den argitasunarekin, eta bear litzeken bezalako ipui, gertaera eta beste alako zerbait ikasgarriren bearrean daude. Eta ortarako, nere apaiz agurgarriak, on litzake nere ustez, oraindik euskal aldizkarietan zerbait geixeago kristau ikasbideaz egitea. Esan du norbaitek len, gure aldizkari, euskal aldizkari egundaino dauzkagunetan, bear lirakela beste gai batzuk ere sartu; or, langileen gaiak eta orrelakoak. Oiek baiño bearrezkoagoa litzake, jaun onek esan digunaz, aurtzaroari berea ematea, garai ortan bear duten ikaskizuna erraxtutzea. Eta erraztu bear diogu orren irakasleari, irakaskintza ori; ori bear du, bada, apaizak, ordea, eztauka naiko gai nik uste beintzat. Orainaldian ikasi dut bizkaieraz argitaratu dala kristau ikasbidearen azalpen bat oso osoa, oso ederra. Ori irakurri det aldizkarietan. Oraindaino eztet nere eskuetan izan, denpora gutxitxo daukat eta. Arrotzerritik etorria naiz.

Baiña orain eman bear dizuet beste berri bat. Urte onetan bertan il zaigu guri, nere anakide eta Aba agurgarri, irakasle bikain euskeraren gaietan izan dan Oyeregi'tar Buenabentura Aita, eta onek badauka kristau ikasbide bat oso osoa, asieratik azkeneraino, guztia ipulez eta gertakizunez jantzia Liburu santuetako eta bestelakoz apaindua. Baño argitaratu gabe dago, eta nik eztatik argitaratuko ote den. Nik beintzat eztaukat artarako laguntza emateko biderik.

Orain apaiz jaunak eta beste, aurtzaroaren Euskalerriko irakasle biarko egunean izan bear dutenak daukate beren itza, eta nik uste det orrelako ikasbide egini daukugun orrek, on aundia egin lezakela agertuko litzeken egun beretik. Eztet beste esan bearririk.

Aita Agirretzek adierazten du:

Lojendio jaun agurgarriak esan digu nola eztitugun Donostian ematen itzaldiak euskeraz. Emen daude izlari batzuk orretarako prest. Eta lenengo, gauza bat, oso gustora itz egingo gendukela edozein elizatan Donostian eta Bilbon, esate baterako, goizeko bederatzietan. Ifork eztigu deitzen eta bear-bada guk eskatuko bagenduke ordu orretan euskeraz zerbait elizgaitan

esatea, gure gaiñetik dauden danak, uste det, erantzungo liguke ezetz. Orain, Donostian egiten da goizeko ordutan, bai bederatzaurrena, bai itzaldia, eta, ain zuzen ere, lengoan egin det Ato txako elizan Arantzazuko Amaren bederatzaurrena, illuntzean erderaz eta goizeko zazpiretan euskeraz. Baiña bederatzaurren oieri eta goizeko itzaldiei esaten zaizkie, bai, Donostiko ezpañ askotatik datorren esakera da au, neskame-elizkizuna, neskame-bederatzaurrena, neskameentzako sermoia. Lojendio jauna eta bere antzeko zaldun agurgarriak, guk benetan maite ditugunak, Donostin asko ditugu eta aal balitzake bete nik idea auxe eman nai diet: gure gaiñetik dauden eliz-agintarien aurrean egin zerbait Donostian eta Bilbon baita ere. Ordu egoki batean, esate balerako, bederatzietan edo amarretan alako elizan edo eliz guztietan ezpada batzuetan, baita ere periodikuetan esan eta adierazi, alako elizan, alako ordutan euskerazko itzaldia izango da eta antxe bildu ditezkeela euskeraz entzun nai dutenak. Era ortara ia zerbait egin ditekean. Orixe besterik ez.

Maipuru: Arrazoi aundia du Aita Agirretzek. Txik ontzat artzen ditugu bere itzak.

Jaun batek adierazten du erri euskaldun batera euskeraz eztaikien apaiz bat bialdu dutela. Beste batek erri erdaldunetan badagozala apaiz euskaldunak, eta oriek bialdu bear litzakezala euskal-errietara.

Jakifia, gogo ori guztiona da. Baiña aurkitu bear dugu modua ori egia biurtzeko.

Gero Aita Goikoetxeak itz egin du:

Nik uste det Lojendio jaunak eman duala mailluakin iltzean, apaizen eginkizun ori orrenbesteraño goratu duanean ta orrenbesteko eskua dutela azaltzen duanean. Ta uste det aita litekela orain Alvarez Enparanza jaunak esaten zuan minoria ori, eta, lenengo, umeai euskeraz irakatsi eta eskolara asi diranerako zerbait ikasi eta bidez ondo gertuta jartzeko arazo ori. Ortaz gaiñera beste lan asko egin ditzakete eta euskerarako eta erriarentzako maitasun aundia duten apaizak egiten dituzte. Guk ori ikusi degu aurten argi eta garbi, San Inazioaren bizitza euskerazkoan. Iru milla ale atera dira ta apaizeri eman zaie eskuz esku ta alde alde, bere etxera jun, eta irureun ez beste danak artu dituzte apaizak. Eta ezte esango danak saldu dituztela. Baiña bai geientsuak. Batzuk eskatu dituzte emandakoz gaiñera geiago oraindik. Beste batzuek, batzuek itzuli dituzte, ba, saldu eztiuztelako, baiña alegiña eginda gero.

Atzera biurtuaz umeen eginkizun ortara, ezagutu det baita ere apaiz jaun bat dotriña erakusten dantzaz eta kantuz saiatu dana. Umeak zeuden jolasean, baiña dotriña ikasten zutela edo lanean ari zirala konturatu ere gabe, gogoz artzen zualako apaiz orrek eginkizun ori. Amarretatik edo ogeitik orrelako bat balego ere, danak izan gabe ere, gure erriak ezagutuko luke aldaketa aundi bat dudarik gabe. Umeen lagunak zeuden, auzokoak ziralako, oso enviditan ume aiekin, oso gora jartzen zitualako dantzaketan ta jolasean eta kantuan asko erakutsiaz. Ortaz gaiñera lanbide orretarako badute apaizak beste sail bat, eskolan bertan ere badute sarrera, ta egin dezakete lan ori bera ere. Nik uste

det auxe dala gaur Euskalerrian daukagun indarrrik aundiena aurrera jotzeko.

Aita Etxebarriak esaten du apaizak aitatu direla. Baña ¿monjak zer egiten dute?

Eta maipuruak Aita Villasanteri eman dio itza.

GURE EGINBEARRAK

Gaurko gure literaturaren egokerari begiratu bat eman nai nioke nere lan onetan. Baiña ez izenen ta lanen zerrenda bat egiteko, joerak, utsuneak eta utsune oien sustraiak aztertzeko baizik. Bearbada deus ere ez tut esango. Agian, marmar-jarioa franko ikusiko dute emen askotxok. Puntu asko ikutu, eta funtsez ezeri lotu ez. Ikustea nere-nerea izango dala esan bearrik eztago. Norberak norbere begiekin ikusi bear, nai ta ez. Baliteke, esango ditudan gauza askorekin denak nerekin konforme ez egotea. Apika, alderdi txarrak, utsuneak eta illunguneak geiegi nabarmentzen ditudala iduriko zaie batzuen-batzuei, eta lan negativua egiten ari naizela esango dute. Ez nuke nai ba. Norbere uts, oben eta akatsak ezagutzea eta aitortzea, ez al da onurakor, utsuneok betetzeko asmoakin egiten danean? Autokritika gaur moda biurtu digute komunistek, eta komunistak baiño lenago, kristauek bagenduan konzienziako examiña. Esan dut, eta ba-diot berriz ere: impresione auek nere-nereak izango dira uts-utsik. Eta nere ikustea txarra edo okerra baldin bada, beñipein zintzotasunaren baliua izango du.

Euskaldunok autokritika pizka baten bearrean ba-gerala de-ritzat. Euskalduna arroa dela entzun oi da gure inguruan. Gogorrigo oraindik mintzo zaigu gure auzoko bertsolaria: "euskalduna, tonto arroa"... Dakizutenez, arrokeriak itsutu egiten du. Dezagun, bada, bekoki geron utsei aurrez aurre eta otz-otzik be-giratzeko, eta ala, arremediatzen ere geixeago saiatuko gera.

Gure euskera kultur-izenen bearrean dugula.

Duela zenbait illabete, *Euzko Gogoa*-n agertu zan Urres-tarazu jaunaren lan bat. Danok ezagutzen dugun eta arraiki erre-zibitu dugun *Gramática Vasca*-ren autore prestuak auxe zion lan

onetan, alegia: euskera utsez euskal Gramatika bat idazteko, oztopo edo eragozpen aundi bat arkitzen duela idazleak: gramatika-gaietan erabilli bear den terminologiaren falta edo eza. Eta dei bat egiten zion Euskaltzaindiari, gramatika-alorrean bearren diren gauzak adierazteko, itz edo izen batzuk berak autatu eta gomendatu ditzala eskatuz. Euskaltzaindiaren gomendio orrekin, itz oek erabiltzera jarriko lirake idazleak, poliki-poliki zabaldurik eta onarturik gelditu arte (1).

Izan ere, gramatika-gaiak euskera utsez azaldu nai dituana, nola moldatuko da, *substantivo*, *adjetivo*, *verbo* ta beste olako milla gauza euskeraz nola adirazi ezpadaki? Pauso bat bera ere ezin eman. Eta gaitz onen ondorea: euskal gramatikazko gaiak betiere erderaz tratatzen ditugula (naiz gazteleraz, naiz prantzesez). Or dira gure gramatikalarien lan aipatuak: Larramendi, Añibarro, Lardizabal, Campion, Azkue, Altube, Zamarripa, Arrigarai, Zabala-Arana, L. Mendizabal, Lafitte, Umandi... denak erderaz egiñak. Erdaldun jaiο danari, zein izkuntzatan irakasten zaizkio bere izkuntzako gramatika ta literatura? Ba, erderaz, jakīña. Guk, berriz, euskaldunari berari ere, euskal gramatika erderaren bidez irakatsi bear. Moztasun aundia auxe. Eta gaitz orren sustraia, Urrestarazu jaunak ukitu diguna: terminologia baten falta.

Agian esango du baten-batek: idazlearen beraren errua da ori: idazleak berak asma ditzala izenok. Gero, ondotik datozenak, oni jarraituaz, betiko geldituko dira finkatuak. Bai, ala balitz; baiña... Maizenik, batek asmatu-izenak besteari etzaizkio atsegin, eta au ere asten da beste izen berri batzuk erabiltzen bere aldetik. Eta idazle bakoitzak beste ainbeste egiten badu, naaspilla sortu besterik ezta egiten. Izenok, tresna trebeak izateko, auxe bear dute nai-ta-naiez, alegia, zabaldurik egotea, onartuak izatea. Itza jatorriz ondo ala gaizki eratu izan den, orrek ezta garrantsi aundirik. Zabaldurik ta onarturik baldin badago, tresna baliotsua zait. Bein baiño geiagotan irakurri izan ditut euskal idazle prestu batek erderaz erabiltzen diran itz jakintsu batzuezaz egiten dituan iseka eta farrak: itz gaizki tajutuak direla, beren esanaia adierazteko gaizki autatuak, itxusiak... Bost inporta didate neri uskeri oek. Itzen sorkun-autuok alde bat uzten ditugu danok. Izenok zabaldurik ta onarturik badaude, beren zeregiña egoki ta eraz betetzen digute. Adibidez: *Otorrinolaringólogo*: itxusi eta parregarria izan-

(1) URRESTARAZU-TAR ANDONI, *Euskel-kultura dala-ta*, "Euzko Gogo" 1955, 3-4, 51 orr.

go da, edo makur eratua, ni ez naiz ortan sartzen; baiña itz ori onartua dagoan ezkerre, bere zeregiña egoki betetzen dit eta aski dut ori erabiltzeko.

Gure artean ere izan da orain baiño len, gramatika-gaiak euskera utsez erabili duanik. Aspaldiko idazleen artean or dugu Harriet jauna: Gramatika bat du jaun onek, euskaraz komposatua, frantzes izkuntza ikasteko (Bayonan, 1741). Eta Etxeberri Sara-koak gramatika bat eratu zuen latin ikasteko; euskaraz idatzia au ere. Onek, egia esan, etzuan burua asko nekatu terminologiaren auzi ori dala-ta. *Indikativua*, *Konjugazinoa*, *Verbia*, *Pluraleko*, *Singulareko* ta beste olako izenak batere lotsarik gabe erabiltzen ditu. Noizean bein, alare, ba-ditu berberak sorturikakoak ere: *verbu pairuzkoa* (pasivo), *juntagailua* (conjunction), ta abar. Gero, purismuaren ajea euskaldunoi sartu zitzaigunetik, itz oek euskeraz erabiltzea etzaigu ondo iruditzen, nunbait, eta ordutik dator istillua.

Azkue jaunak bere gazte-denporan egin zuen *Euskal Izkindea*, euskera utsez idatziriko euskal gramatika. Lertxundi Aita Eskolapioak ere ba-du beste bat; baiña jaun oek erabillitako terminologia eurenak bakar-bakarrik da, ezta jarraitua izan, eta or gelditu da zokoratua bezala.

Orregatik-edo, dio Urrestarazu jaunak, Euskaltzaindiak aurrea artu bear lukela auzi ontan; izen batzuk autatu ta gomen-datu bear lituzkela, Euskaltzaindiaren itzalpean onartuak ta erabiliak izan ditezten. Baiña Euskaltzaindia ere, nik uste, bildur da arazo ontan eskuak sarturik ez ote duen bere larderia ta izena arriskuan ipiñiko. Len ere izan zan eztabaida Euskaltzaindiak itz berrien sortzalle izan bear duen ala ez, eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gaillen (2). Auen aburuz, idazleek bear dute bidea urratu. Gaiak euskeraz erabilliz, sortuko du batek itz aukerako bat, beste batek beste bat, eta ala, berez bezala, poliki-poliki, sortutako itzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu ta finkatu dedin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lenago, au da, zabaldurik ta onarturik daudenean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko. Bide ziurra ta zuurra, noski, baiño luzea, luzeegia bearbada. Beintzat orainarte idazle gutxi azaldu zaigu, bidea urratu nai duenik. Eta alaxe gaude: idazleak Euskaltzaindiaren zai, eta Euskaltzaindia idazleei begira.

Eta gramatika-kontuan gertatzen zaiguna, orixe bera gertatzen zaigu beste jakintza-alorretan. Oraindik eztugu euskera utsez egindako euskal iztegi bat, euskaldunari gauzen esanaiak

(2) Ikus *Euskera*, XI (1930), 49 orr.

here izkuntzan azalduaz, katalanek duten bezala: *Diccionari Enciclopedic Catalá*. Emen duzue gauzak zer diren katalan utsez explikatua. Guk orrelakorik eztugu.

Eta gramatikaz landara, beste jakintzetan motxago oráindik aurkitzen gera. Bein baiño geiagotan ibilli naiz umeentzat erderaz egiten diren eskola-liburuak erabiltzen: *Enciclopedia Escolar* ta olako. Orok dakigu liburu oietan zer datorren: *Gramática, Geografía, Historia, Aritmética, Geometría, Ciencias Naturales* ta beste olako jakintzak, denak, ez jakintsu batek nai luken eran edo maillan, erriko gizon pizka bat ikasia denak uler ta asimila dezakean neurrian baizik. Eta askotan galdetu izan diot nere buruari: Ba ote dugu gure euskera, gauz oiek, edozein gizonek gaur bear-bearreko dituanak, tajuz ta eraz expresatzeko egokitua? Ta ezpaldin badugu, zertan ari gera euskaldunok? Ez al da au egitekorik lenena? Eta gauz oiek euskeraz ipintzeko, zein dugu oztopo bakarra? Len aipatu duguna: terminologiaren auzi ori, korapillo ori, askatu gabe edukitzea. Eta ola gauden bitartean, naiz ta erriz-erri itzak eta esaerak eta ipuiak jasotzen ibilli, naiz ta beste lan ederrik asko egin, euskera beti izango da ezjakiñen izkuntza. Eskola ta jakintza beti joango dira erderakin elkartuak, eta, Kondaira lekuko, bi izkuntza nor-geiagoka jarri diren guztietan, jakintza ta kultura noren alde egon diren, arena izan da betiere garaipena.

Arotzak bere ofzioko tresnak ezpaditu, den arotzik trebeena izanda ere, ezindua bezala aurkitzen da, deus ere egiteko gauza eztala. *Garlopa, formoia, zepillua, serrotea...* oek dira bere tresnak, lanabesak. Arotzaren antzera, bada, *homo faber* izendatua izan dan gizakume gogo-landuak ere, lanabes edo tresnak euki ezik, ezin du deusik egin. Eta giza-adimenaren tresnak auetzek dira: kultur-saillean erabiltzen diren kontzeptuak, nozioneak, izenak eta itzak. Oiek ezitugun artean, eztugu aurrerapenik egin al izango.

Poulain jaunak, here liburu ospetsu batean, auxe idatzi du: *Pedid a un sabio que exprese las profundidades del Cálculo infinitesimal con el vocabulario de los niños o de los pastores* (3). Ori argi dago, ezin ditekean gauza da. Parkatu, jaunak, baiño guk oben ori ez al dugu maiz egiten? Erri-euskeraren itzekin nai duen dena esan dedin ta dena adirazi dedin, ta jakiña, ori ezin ditekean gauza da. Iñungo erri-izkera arruntean arkitzen eztiren kontzeptu eta itzak, gurean ere ez arkitzea, ezta batere

(3) POULAIN. *Des Grâces d'oraison*, cap. XVIII, n. 30, p. 263.

arritzekoa; aitzitik gauza normala da. Gaztelako erri-izkerak ere, jatorriz, asieran, etzituan orrelako kultur-izenak, baiño etxeratu bearrean arkitu zan, eta ala biurtu zan kultur-izkuntza landu aberatsa.

Santa Teresa ta beronen izkera, erritar jario gozoa duena, ipintzen zaigu eredutzat. Baiña gaztelera, Santa Teresa-ren izkera utsakin gelditu balitz, ondo motxa ta gutxirakoa litzake gaur. Bestelako mesede ta abantailak ekarri dizkiote gaztelari gizon jakintsu ta ikasien emaitz eta aportazioneak. Ark gutxi-goraberrako itzekin, eta itzul-inguru askoren bidez aditzera ematen duena, gero, gizon eskolatuiek sartutako tresna ta lanabes trebeagoei eskerrak, itz gutxiagoz, ta laburki ta zeazki esan genezake gaur. Eta tresna ohea duena, ezta zarraren, ugerrez betearen atzetik ibilliko.

Jakintsu-maillako eskubideak aintzat artzen ezditugula.

Erri-mailla ta ikasien mailla, mailla bereziak, ezberdiñak dira dudik gabe, ta eztira naasi bear. Bakoitzak bere lege ta arauak ditu, eta mailla bateko legeak ezin dira, makur gabe, besteari ezarri. Eta parkatu —diot berriz ere—, baiño makur ori sarri-askotan egiten dugula uste dut. Gizon landuak, ikasiak, ba-ditu buruko kategoria batzuk, kontzeptu batzuk, gogoeta egiteko molde edo prozedura berezi bat, bere maillari dagokiona. Eta eskolagabeak beste bat, bere maillakoa au ere. Guk, ordea, euskeraz egitean edo idaztean, zer nai dugu? edo zer ipintzen dugu ispillu edo eredu bezala? Eskolagabeko erriak bezala gauzak esatea. Erria eredugarri ta ispillu zaigu milla gauzetan, eztut ukatzen, baiña ezditzagun gauzak bere neurritik atera. Baserritarrak, bere esangoa esaten duanean, gauzak bere kultur-maillako baten arabera esan oi ditu; eta esate-molde ori eta gizon eskolatuarena ezberdiñak bear dute izan, nai-ta-naiez. Eta gizon ikasiaren euskera, baserritarraren izkerako esaera ta mintzatze-moldeetara estutu, ertsi ta lotu nai izatea, tajugabeko bidea iruditzen zait. Euskera ta baserritarra geiegi lotu ta uztartu izan ditugu. Alde batetik ezta ori arritzekoa, zergatik, beronez landara, euskaldun den beste gizarte-maillarik ia ezta goan. Eta ain zuzen, auxe dugu gure gaitzik larriena.

Gizarteko goi-maillak euskalzaletu ta euskaldundu bear ditugu, nolabait ere, euskerak irautea nai badugu. Baiña, arren, orretarako ez eskatu goikoari baserritar biurtu dedin, baserri-

tarraren izkera-modua itsu-itsuan jarraitzen asi dedin, eta bere mintzatze-moldea baserritar ereduan erabat ustu dezan. Izkuntza ere, batbederak bere irudi-antzera egokitzen duen tresna baita.

XVI gn. mendeko euskaldunak eta XX gn. mendekoak izkera ezberdiña izan bear nai-ta-ez, gogoia, mentalitatea bestelakoa dugulako, eta gogoaren aldatzeak izkuntzarena ere ekartzen duelako. Eta beste ainbeste gertatzen da gizarte-mailla ezberdiñekoen artean: gogoia ezberdiña izanik, bakoitzak, izpiritua bere gisakoa duelarik, izkera ere berari dagokiona duela.

Len ere esan dut eta berriz ere esango: eztut orrekin esan nai eztugula zer-ikasirik asko XX gn. mendeko gizakume landuok, beste gizaldietako idazleetatik edo egungo baserritarrengandik. Zer-ikasirik asko ta asko dugu dudik gabe, baiño alde guzti oetatik gaiak guganatu ondoren, gure nortasunak eskatzen duen eran gaiok egosi eta gure-gurea zaigun izkera egiten jakin bear dugu.

Denok entzun dugu hebreotarren mintzoa gure egunotan, Israel-ko Estatuan, herriz piztutzen ari dela. Auxe bai dugula miraria, Kristoren denporan yadanik illik zegoan izkuntza, egun, bi milla urte baiño geiago eragor ondoren, berriz piztutzea! Gizonaren kemenak dezakena erakusteko gertaera egokia auxe, eta guretzat ernegarri ta pizgarri dena. Baiña nik eztut dudarik: oraingo judutarren ezpainetan bizi dateken mintzo orrek, nai-ta-ez, beren asaba zaarrenakin bereizkuntza ta alde izugarria bearke duela izan, iztunen gogoia erabat aldatu dalako. Itzak eta izkuntzako beste elementuak aspaldiko hebreotik artuak izango dira; baiño barne-izerdia, ezur il-igar oei bizia ematen dien odola, arnasa, au berria da, XX gn. mendekoa, Okzidenteko kulturaren influxua ezurretaraiño sarturik dadukan oraingo judutar erriarena. Eta lege onen aurka joaterik eztago. Antz aundiagoa izango du, mentalitatez, oraingo judutar baten liburuak (naiz ta hebreoz izkiriatura etorri) ingelesez edo frantzesez egun idazten diren liburuekin, aspaldiko judutarrenakin baiño. Eta guk ere ori kontuan euki bearra daukagu. Gaurko kultura orokarrak gure gogoak bere irudi antzera moldatu ditu, eta naiz ta euskeraz idatzi, gure izpiritua kultura orren sigiluaz markaturik agiriko da. Gogoaren egitura bereziak izkuntzari ere berarizko tajua eta itxura ematen baitio. Kultur-mailla goratuagoan danari etzaio eskatu bear bere mailla ori ukatuz, beeragokora jetxi dedin, eta bere gogorapen eta gogaiak ezjakifaren kategori eta moldeetan ertsi eta ustu ditzan.

Katalandarrak, beren izkuntza jasotzeko, zer egin zuten? Aurrena, goi-maillakoei begiratu, oien ardura izan, oiek irabaz-

ten saiatu. Ondo Konturatu ziran eginbaerrik bearrezkoena au zala. Gizartean goikoak, ikasiak agintzen dute; oiek dira beti zuzendari, gidari, eredu ta ispillu. Beekoek beti jarraitzen dute goikoen ejenplua. Jende ikasia ta gogo-landua katalanaz zaletzen baldin bada —zioten—, katalanez itzegin, irakurri ta idatzi dezala lortzen baldinbadugu, gaiñeko jendeak ere beste ainbeste egingo du, ori berezko legea da-ta. Eta jende landu ori erakartzeko, egin ere lan balioitsuak egin dituzte jakintza-sail guztietan, beren izkuntza edozein maillako kultur-gaietarako mintzabide biurtuaz. Gogoan ditut orain Casanovas aita josulagunaren liburua, investigazinoko idazlan sakonak, lehenbizi katalanez idatzi, eta gero, beren balioagatik, gaztelerara itzuli ziranak. Beren balioagatik: or dago kontua. Guk ere baliozko gauzak euskeraz egin ditzagun, naiz jakintza-saillean, naiz ederti-saillean, eskolatuen atenzionea ta zaletasuna esnatuko duten lanak, eta euskerakin berotzen asiko dira. Egia esateko, zerbait, gutxi bada ere, egiten asiak gera ederti-saillean (erderaz *bella literatura* deritzan ortan); jakintza-saillean, ordea, oso gutxi.

Oraindik asko ezdala, flammand (flamenko) erriko praille batzuekin mintzatzeko era izan nuen. Ba-dakizute flamenko oiek erri bat osatzen dutela, Belgika-ko zati bat, alegia. Izkuntza berezia dute, eta literatur ugaria ere bai beren izkuntza ortan. Adibidez, praille aietako batek erakutsi zidan espaiñol ikasteko metodu bat, flamenko izkuntza ortan egiña. Eta nik pentsatu nuen nerekiko: Noiz izango idugu euskaldun gizajook aleman edo ingles ikasteko metodu bat, euskeraz egiña?... Euskera bera ikasteko ere ezugu-ta...

Broussain jaun euskaltzain zenak idazki bat utzi zigun oso garrantzitsua euskera salbatzeko ipiñi bear diren bideez eta xede onek galdegiten dituen eginbearrezaz. Idazlea illezkero agertu zan eskutitz ori *Euskera*-n, Euskaltzaindiaren aldizkarian (4. Argi ta garbi ikusten zuan Broussain jaunak oraintsu esan duguna, alegia, goi-maillakoak guganatzeak zer garrantsi duen. Eta orretarako dio, Euskalerrian jende autatu edo apaiñarentzat bi aztetxe edo kolegio sortu bear lirakela: bat neskatxena eta beste bat mutillena. Aztetxe oietan, aziera autatu batekin, ikastaroak, irakaskintza ta bizitza osoa euskeraz izango litzake, ikasleak sustraitikan euskalduntzeko eran. Gero, kolegiotik irtendako jaun eta andere oiek euskal aristokrazia biurtuko lirake, euskera onaren eredu ta ispillu. Oien egitez, euskera gauza apaiña eta dotorea bezela artua izango litzake gizartean. Baiña ba al dugu

gaurko azibide osoak eskatzen duen guztia euskeraz azaltzeko biderik?

Izkuntza deus ere ezta, gauzak kanporatzeko, gogaiak adiarzteko tresna bat baizik ez. Azaltzen diren gauzak zer garrantsi duten, ori da kontua, ortan datza balio guztia, ez izkuntzan. Bear-bada euskaldunok ori ere aaztu egiten dugu sarritan. Izkuntza izkuntza danez, orrek ematen digu guri ajola guztia. Euskal liburu bat ateratzen dan bakoitzean, or gabilta ea nolako euskera duen: izkera duela olako edo alako, orrek ematen digu kezka guztia, ez barruan daukanak. Erderaz etzaigu ala gertatzen. Erderazko liburu bat irakurtzen dutanean, barruan daukanak ematen dit neri zer guztia, bost inporta dit izkuntzak, izkuntza, gaiñeko azala baizik ezpaita; egilleak barruan daukan esangoa adierazteko bide bat besterik ez. Eta egilleak barruan deus ere ezpadu, orduan izkuntza utsa da, gauza alferra, ezertarako eztana. Joan gaitezen, bada, euskeraz ere liburu baliotsuak egitera, mamitsuak, barruan funtsezko zerbaiteak dakartenak. Barruko giar orrek emango dio euskal liburuari bere zera, bere balioa, bere pisua, ez izkuntza utsak. Ez dezagun izkuntza bere jatorrizko funtzionetik, berezko egikizunetik atera.

Gure bi ajeak: Purismua ta Popularismua. Ez bata ta ez besteekin ezin gaitzekela ase.

Gure literaturak gaurkoz, ene ustez, bi beaztopabide edo aje ditu: *Purismua* ta *Popularismua*. (Parkatu, jaunak, erdal-usaieko itz auek, baiño *garbizalekeri*, *errizalekeri* bada-ezpadaakoak baiño egokiago aurkitzen ditut itz auek nere oldozpena agertzeko, eta orregatik erabiltzen ditut). Purismua esan dut lehenbizi. Joera edo eritasun au aspalditxotik dakargu. Lehenbiziko idazleetan (Dechepare, Leizarraga, Axular ta oietan) ezta nabari. Etcheberri Sara-koan ere ez, praktikan beintzat, teorion noizean bein garbizale bezala mintzo bazaigu ere. Baiña Larramendi ta bere aroko idazleetan ezagun da naiko argi kezka au. Adibidez, Mogel idazlea, *Peru Abarka*-ren itzaurrean ari zaigu euskeraren bikaintasunak goraiiputzen, eta esaten, beste izkuntzak lander direla, jakintza-gaietan izenak latin eta griegotik artzen dituztelako; euskerak, berriz, aisa ta errezi bere baitatik sortu eta moldatu ditzakean artean. Eta egin ere Peruk, Maisu Juanekin diardula, egiten ditu orrelako asmaketa batzuk, bere laguna arriturik uzteraiño. Baiña utzi dezagun posiblea alde bat,

ze, dakigunez ta esan oi danez, posibleak praka zabalak ditu; eta gatozan lurrera. Mogelek idatzi zuanetik 150 urtetik gora igaro dira, eta berak lander edo moteltzat jotako izkuntzak zoriontsu bizi dira, eta agi danez, griegotik artutako lagungarri oiek eztieta kalterik egin; gu, berriz, emen gabiltza pauso bat eman ezinda. Beraz, zuri guztiak eztiela irin pentsatzekoa da.

Beste gauza bat ere esaten dio Peru-k Maisu Juan-i, alegia: euskaldun izan nai badugu, gure asaba zaarren antzera bear dugula bizi. Eta ala, janariak ere, fortzetaz, tenedoraz (edo, berak dionez, oratzalleaz) artu bearrean, Jainkoak emonikako atzamarraz artu bear omen dira... Jaunak, euskaltasunak eztiugu debekatzen tenedora erabiltzea, eta griego ta latinetik bear ditugun itzak artzea ere ez.

Geroago, berriz, Mogel baiño onuntzago gatozela, purismuaren gaitza noraiño aunditu zan denak dakigu. Sartaldeko erri ta izkuntza guztietan zabaldurik ta onarturik dauden itzak, guk ezetsi nai izan ditugu. *Técnica, máquina, política, religión*: onelako itzak nungo izkuntzan (Okzidenteko kultur-esferan bizi diranetan beintzat) eztaude artuak, eta ez artzeaz zer egiten dugu, gure burua il baizik? Huby jaunak, *Christus* bere liburuan, *Religion* itzaz mintzo dela, auxe esaten du, alegia, itz ori Okzidenteko izkuntza danetan sarturik dagoela. Au irakurtzean, esan nuen nik nereko: ezagun da ezta kiala jaun onek gure garbizaleen berri, bestela toki onetan oartxo au jarri bearko zigun: gaizki esan dut, ba-da erri txikar bat, euskalduna, itz ori gaitzetsi ta arbuaiatu duena (naiz ta erri-erriaren erraietan sarturik egon), eta bere orde *Uzkurtza* sortu duena...

Berrizale ta garbizaleen joera orren aurka jarri zan euskaltzale aundi bat. Azkue jauna, Euskaltzaindiaren zuzendaria. Gazte-denporan berau ere reformista izandakoa dugu, baiña gero, erriko izkerari lonsa ta begirune geiago izan bear zaiola-ta, berrikerien aurka jarri zan. Berau dugu beste joera edo zuzenbidearen, Popularismuaren, eragillerik, aundiarena. Bere iztegi nagusi ta erriko izkeraren gain egin zitun azterketak mesede izugarria ekarri digute euskera den bezala ezagutzeko. Ala ere, berak ez ustearren, purismuaren influxua ezagun du Azkue jaunak berak ere. Eta Euskaltzaindia egiten ari zan iztegian, *política, técnica* ta olako itzak, nunai zabaldurik daudenak, iztegi orretan sartzeko Altube jaunak eskatu zuanean, ezezkoa eman zion euskaltzainburuak (5).

(5) Ikus ALTUBE-TAR SEBER, *Euskaltzaindiari*, "Euskera", XIV (1933), 263-265. AZKUE, *Observaciones acerca de "Euskaltzaindiari" de Altube-tar Sever*, XVI (1935), 144-149 orr.

Purismua ta Popularismua: bi joera oen menpean bizi gera orain ere. Purista dan idazleak eztu erdal itzik sartu nai, eta euskeraren gaiezaz baliatuko da dena al duan bezala adierazteko. Popularista danak, berriz, erriak erabiltzen dituan itzak eta eserak, eta berak erabiltzen dituan bezala erabiltzea maite du. Eta praktikan, bi joera oek idazletan elkaturik ta naasirik ere arkitzan dira egun, batek popularista kutsu geiago duelarik, besteari, berriz, purismuaren kutsu geiago sumatzen zaiola, bi zuzenbide oien sintesi bat egini batego bezala. (Emengo euskal-idazleak ditut orain gogoan. Euskaldun prantesak popularista porrokatuak ditugu, emengoak baiño geiago, eta purismuaren influxu gutxiago agiri dute).

Baiña popularismu orrek ere ba-ditu bere arriskuak, guztiz ere erri-izkera ta literatur-izkeraren artean dagoan alde ta bereizkuntza ez ezagutzea. Izkuntza literarioa beti da izkera apainagoa ta landuagoa, erri arruntak erabiltzen duena baiño. Erriak *automobilla* esaten duela ta, beste gabe, itz ori euskera literarioan sartzen badugu; *imprensa* esan bearrean, baserritar bati *inpenra* entzun diogula-ta, dagoneko itz ori orrela idazten asten bagera, zer egiten dugu? izkuntza landu bearrean alperrik galdu, garbitu bearrean kutsutu eta arlote-itxura eman.

Erriak griegorik eztaki, eta *automóvil* edo *autocritica* itzetan agiri dan *auto* orren esanaia ta balioa eztu sumatzen, eta itzok ala itxuragabetzen baditu, ezta arritzekoa; baiña ikasia dan bati, beti emango dio nazka orrela itxuragabetutako itz bat erabiltzea.

Erriari jarraitu bear zaio, egia; baiño zertan, nola ta noraiño jakiteko, sena ta neurria ere bear dira. Oraindik asko eztala, ara zer entzun nion euskaltzale zintzo ta jakintsu bati. Bizkaieraz ateratzen dan *Anaitasuna* aldizkariaz mintzo zan: erdal itz larregi sartzen dituala ta abar. Eta bereziki bat aitatu zidan: *problema* itza: *Gaur eguneko problemak...* Problema edo poblema —zion berak— erri-erriko euskaldunarentzat eskola-umeek ateratzen dituzten *kuentak* dira, eta esanai orretatik kanpo ezta erabilli bear itz ori, erriak ulertzen ezpaitu... Ikusten duzue nora garamazkian geiegizko popularismuak? Ori da, nere ustez, idazlea buru gutxiko ezjakin baten azpian eta menpean ipintzea. *Problemas del día*, *problemas candentes*, *problemas de actualidad*: problema itzak esakune oietan adierazten duen idea, kontzeptua, kultura pizka bat duen edozeinek dauka gaur. Noziona, beraz, bear dugu, eta noziona ori adierazteko itza ere bai. Noziona ori *problema* itz berberakin edo euskal jatorrizko beste batekin adirazi bear ote dan, ori izango da kontua, baiño idea expresatzeko bidea bear dugu beñipein.

Popularismuarekin ere ezin ase gaitzke, bada. Erri-erriko izkerak dituan nozione, idea, itz eta izenak baiño geiago bear ditu kultur-mailla goratuagoan arkitzen danak. Bestelako kontzeptu ta pentsatze-moldeak ditu gizon ikasiak, eskolagabeak ezdituanak. Eta kontzeptu oiek adirazteko, erriak ezagutzen eztituan itzak erabili bear badira, zergatik eztugu egingo?

Baiña askoren gogoan ikusten dutan korapillo bat askatzera nijoa. Griego izkuntzak, bere baitatik artutako elementuekin, poliki-poliki, albo-izkuntzetatik deus artu gabe, jantzi zuan bere burua, beko maillatik asi eta gorengoraino iritxi arte. Zergatik eztugu artu bear oien jarraibidea, eta gure euskal etxea, iñorengana arri-billa joan gabe, gerok oso-osorik egin? Baiña gure kasua eta aiena ezta berdiña, eta aientzat posible izan zena, guretzat ezta. Ara zergatik. Griego erriak etzuen bere inguruan beste kulturarik; erri basati edo barbaroak baizik ezituan. Eta ala, bakarrean, eta kultur-influxu gabe arkitzen zenez, lan ori egin al izan zuen. Etorri ziran urrengo erromatarrak, eta auek griegoen kulturaz arkitu ziranez, ortik eskubeteka artu bear izan zuten, eta ala landu zuten beren izkuntza. Eta Europako nazione eta izkuntza berriak berdin. Eta gu ere kasu onetan gera. Egiñik dagoen kultura baten aurrean aurkitzen gera; eztago begiak itxiterik. Ez gaude gure zokoan hermetiko eran sarturik. Eta kultura goragoko baten aitzinean gauden ezkeru, ba-dakigu gure egingoa zein den: edo kultura ori asimilatu, edo il. Eta kultura bat asimilatzeak eztu esan nai itzak artu bear diranik, ez: itzaren azpian ta sakonago datza kontzeptua. Goragoko kulturak dakarzkian kontzeptuak, oiek gudanatu bear ditugu. Kontzeptu oiek, kanpotik ekarritako itzekin edo euskal sustraiezkoeekin bear ote diran adirazi, ori beste auzi bat da. Bearbada batzuetan bide bat, eta besteetan beste bat jarraitzea izango da onena.

Antziñatik erakutsi digu euskerak kanpoko gaiak asimilatzeke duen indarra. Bearbada, indar orri eskerrak iraun du egun arte. Latiñetik batez ere eta erri-bidez artu duenaren ezau-garriak markaturik dakarzki-ta. Guk ere asimilatze-indar ori ez dezagula ukatu edo aaztu.

Eta burnibide estu-mearraren gaiñetik, saiatu gaitzela burnibide zabala egiten. Burnibide estua dialektuak dira, burnibide zabala, aldiz, literatur-izkuntza (la lingua literaria). Literatur-izkuntza normalizatua, unifikatua, tink ezarria eta aldakaitz bihurtua. Au bear dugu euskaldunak. Erri arruntaren izkeraren ondoan, euskaldun ikasiena (eusquera popular y eusquera culto).

Ze neurrian ta nolako bidez zertu eta lortuko diran asmo oiek? Egia esan, ezta erraz aurretik jakiten. Azturak eta geroak

ekarriko duen frutua izango da, nunbait. Baiña bein-beiñeko arau batzuk, zuzenbide bezala, Euskaltzaindiak emango balitu, Urrestarazu jaunak eskatzen zuanez, bearbada ezlirake alperriko.

Bai idazle ta bai euskaltzaiñak emen Arantzazu-n lagunarte gozoan elkaturik aurkitzen geran ezkeru, egokiera ezin ohea dugu au batak besteakin solas egiteko, ta orrelako arau ta zuzenbide batzuk amatea komeni dan ala ez ikusteko.

L. Villasante, O. F. M.

Seiretan atsedenaldi bat eman da ta denak eleizara joan dira, Arantzazun egin oi diran eleizkizunetara, Benedicta entzuteko egokiera izan delarik. Zazpiretan jarraitu da eta Aita Villasanten itzaldi-osteko jarduna zabaldu da.

Eusebio Erkiaga jaunak :

Aspaldiko auzia, auzi zaarra arlo ori. Orain ogetaka urteak, uste dot Urkijo jauna an zela, eta Belaustegigoitia an zela ortaz mintzatu ziren, ta orduan erabaki gabe gelditu zar Gaur beintzat urte oietan erabaki gabe gelditu zana eztedilla berriz ere erabaki gabe gelditu. Eta Aita Villasantek esan duan bezela, erderari kalte edo gaztelaniari kalte egin ezpadio beste izkuntzetako itz oiek arteak, euskerari ere, bear-bada, askok uste duten beste kalte ezlioke egingo. Beintzat izkuntza ezta guretzat bakarrik izango, beti esanda besteekin artu emana bear degula. Gu ezkara aingeruak, gizonak gara. Ortarako, eta Alvarez Enparanzaren asmoa ere ontzat arturik nik uste egin leitekela ikasketa zerbait. Euskaltzaindia bera, indar berriz eta odol berriz, ark dion bezela, edo Euskaltzaindiaren menpean sail bereziak ipini, gizon ikasiak, jakinduri zeatz delako oietan gizon bereziak ipini eta oiek izango lirake nire ustez egokienak gure terminologia berri ta bear bearreko ortan azken erabakia emango luketenak. Besterik ez.

Aita Damaso Inza :

Aita Villasante Cortabitarte-k esan dituen gauzak bikaiñak izan dira, irakasbide aundia eman digu guzioi. Baño orain esan digu zer bide artu bear ote litzezen. Euskaltzaindia orain baño len, neri esan zaidanez, asi da lan oni begira, euskal iztegia berritzeko asmotan. Iztegi ori bear genduke lendabiziko osotua, baño ez nolanai osotua, baizik len lenengoz errian oraindik bildu gabe dauden eta oraindano Euskaltzaindiari eman etzaizkion itz guztiak onen eskutara, dezakenak dezazkenak berari balduz. Auxe lendabiziko gauza. Erriaren agoan dauzkagu, gaiñera, asko ta asko esanbide errazak, gure gogoramenak aixa adierazten ditutenak. Or daukagu iturri garbia, gure Aita Villasante-k esan digun *problema* esateko geren itz jatorrez. Egunero esaten ari da erria, *gure buruausteak*. Or dezute itz bat guztiok aditzen

deguna, *gure buruauste gogorrek, buruauste gogorrek ditu lan-gilleak bere lanbidean aurrera ateratzeko*; onelako itz asko oraindaño ezpadaire, guk orain esan nai deguna esateko erabili. Erriaren aoran dauzkagu, eta lendabiziko, esaten det, itz auek jaso bear ditugu, bildu bear ditugu, ta bildurik dauzkenak, arren da arren eskatzen dizuet Euskaltzaindiaren eskuetara bialdu ditzala len baño len. Euskal iztegia egin bear dala guztiok dakizue. Gure Azkue betiko zorionean egongo danak eta ala izan bedi, gure Azkue jaunak egindakoa bikaiña da, gizon batek bakarrak egiteko ezin egin litzakena dirudiena, baño ori gaurkoan eztegu naikoa. Gizon batek egin du eta orren lana guztiok txaloturik, aren ondotik bildu ezтана bildu egin bear degu eta bilkera ontan Euskaltzaindiak bialtu bear ditu laguntzaille, euskaltzale egiazko guztiak, euskeraran adiskideak eta euskerazale egiazkoak: biotzekoak baldin badira, berak biltzen dituzten beren alderditako itzak bialdu ditzatela. Ezpadakie dauden edo eztau den iztegian, dana dala bialdu ditzatela Euskaltzaindiaren eskuetara eta ikusiko du Euskaltzaindiak ote dauden edo ez iztegian, edo oraindaño argitaratu diran iztegietan. Iztegi au egiteko bildu bear dira bigarren lekuan or sartu gabe dauden, baño beste iztegi zenbaitzutan egon litezken beste itz atsegingarri, eta oraintxe ia geienak oraindaño idazleen artean beintzat erabiliak izan diranak eta orain euskaldun geienen belarrietan daudenak; oiek ere bildu bear dirala nago. Urrena, bildu bear dira gure Lhande Aitak idatzi zuen bere iztegiok. Or ere ni nago badirala asko ta asko itz oraindik beste iztegi ontan sartu eztiranak, eztut ikusi, oraintxe ikusi det berori lendabiziko aldiz. Lotsagarri irudituko zai-zue euskaltzain batentzat gauza au, baño badakizute guztiok, ogei bat urte bizitu naiz, ba, ortxe Chile aldean, eta orrengatik eztet nik erarik izan euskal gaietan ezertxo egiteko eta ezer irakurteko ere. Baño orain Euskalerrira itzultzean, nere euskaldun maiteak, atsegiñez ikusirik guztion arteko gogo egiazko au, nere biotza zarra izanik, berri-egiten da, gaztetu egiten da, eta gaztetasuna ematen didazue zuen asmo ederretan eta oiek nai ditut bidean sarrarazi. Euskaltzaindiak nai du egiaz egin, iztegi bat, baño osoa, al den osoena, z nbait ikasbidetarako ezpaitugu naiko itz, gaurdaño gure edozein aldetako idazlek erabili dituztenakin. Auenak beintzat bildu egin bear dira: eta batez ere, bereziki, zenbait gaiez idatzi dutenen idazkiak ikusi bear dira iztegi ori egin baño len, eta oietan dauden itz berezi oiek, argarriak ote diran, artutzeko onak, egokiak ote diran edo ez ikusi egin bear da, eta baldin badira beintzat argarriak edo ongi asmatuak, orduan ez baztertu, baizik ortan ere sartu eta beroien berria iztegian ezarri, eta era ontara izango degu iztegi bat osoa. Iztegi oso ori znola egin liteke oraingo egunetan, gaur berean edo laxter, gizonaren buruzpidetan eta ikaspidetan eskerak aurrerapena izan dezan, nola egin? Gogoratzen zait era ontan izan litekela: oraindaño gai oiezaz idatzi dutenen liburuak Euskaltzaindiko batek edo bestek artu beren eskutan edo agindu gai oietan geien dabilzen euskalzaleai eta aiei eskatu arren da arren or dauzkaten itz egokiak bialdu dezazkiotela Euskaltzaindiari. Amerikatik etorri naiz; arriturik gelditu nintzan andik netorrela Buenos Aires-en argitaratzen den *Euskalzaleak* arako aldizkari batez. Gure ango anai euskaldun jatorrak eta euskaldun

sutsuak argitara tzen duten aldizkaria da ori. Ortxe ikusi nuan lan bat ain egokia, ain ondo egiña eta ain goxoa: itz egiten du begietaz; baño begiaren alderdi bakoitzaz, ain egoki, ain polliki, ain xuxen. Lan oiek ikusi egin bear dira, ba, ta lan oiek bildu egin bear dira, eta orduan izango degu iztegi bat arras ona, guztiz txalogarria guztientzat. Beste gauza bat, lendabiziko esan nai nuana eta aztu egin zaidana, parkatu bekit gure Lafitte bikaiñak eta agurgarriak. Lafitte jaunak esan zigun atzo, berek zer egiten duten beren alderdian, euskera gero ta xuxenago, gero ta egokiago, gero ta aberatsago egiteko. ¿Zer bide deramate gure anaiak? zer bide? Guk ere artu giñezaken bide bat, parkatu, luzatu egin naiz edo luzatzen ari naiz; baño gaia ezta nolanaikoa. Lafitte jaunak esan digu berak beren *Herria*-n jartzen dutela urtearen asieran itz sail bat luzea, esanez itz oiek erabiliko dituztela beren idazkietan urtearen buruan. Eta itz oiek ez beti, baizik noizbenka sail batean ezpada bestean sartzen dituzte beren idazkietan, beren irakurbidetan eta orrela erria jabetzen da, olako itz len ez ezagunaz, eta era ontara *Herria* ori ari da gero ta euskera aberatsagoa eta gero ta euskera ederragoa bereai ematen eta onela euskera asko aberastutzen. Gauza bera egin bear degula nago ni eta auxe eskatzen dizuet guziori. Gaiñera esan digute gaur, eta esaten aritu dira bat baño geiago, badirala idazkietan ainbeste ta ainbeste itz, geienak gaurkoan erabiltzen ezdiranak, baño euskaldunen belarrietan ain ederki sartzen diranak! Oiek ere bear ditu Euskaltzaindiak bildu, eta oiek ere Euskaltzaindiari bildu edozein liburu irakurri dezuenok; baldin badezue Azkueren iztegia, dauden edo eztauden ikusi, ta gaiñerakoan bialdu baita ere Euskaltzaindiari. Onela egin diteke, bada, iztegi bat oso atsegingarria, baño iztegitira joan naiz nik neukan asmoa esan gabe.

Euskal gaietan laster aurreratzeko, auxe esan nai nuke: Orain bildu diran eta oraindño erabili diran itz oiek, naiz erriaren agotik, naiz idazkietatik bilduak izan, Euskaltzaindiak oiek in iztegi txiki bat eman dezala bertatik, euskal ikaskuntzak irabazbide gero ta aundiagokua egunetik egunera egin dezan. Auxe da nik esan nai nizuena.

Jaun batek galde egiten dio Aita Villasanteri berak bere lanean erabili dituen zenbait itz esateko ez al diran euskal itzak, len asmatutakoak eta bikain bizitakoak.

Erantzuten dio berak idazle zaarretatik artu dituela eta bere ustez itz veneragarriak direla eta eztakiela zergatik eztiren erabili bear. Tradiziñotik artuak dira, gure idazleetatik, ez oraingoetatik, baiña antxiñakoetatik.

Eztabaida txiki bat sortzen da eta maipuruak eskatzen du bakoitzean batek itz egin dezala, elkarrizketarik gabe, batek bukatzen duenean besteak.

Beste batek galdetzen du ia kulturak eskatzen digun *garbizalekeria* esan bearrean *purismoa* esatea. *Garbizalekeria* esanda kulturak negar egingo ote luken.

Aita Villasantek erantzuten du ez tutelata esan-nai berdiña *-ismo* sufijoak eta *-keria*-k.

Beste batek adierazten du erderaz pentsatzen oituta gaude-lako dela.

Aita Villasantek: Erderaz pentsatzen degulako nik eznuke esango, baiña bai esango nuke gaurko kultura orokarren mentalitateaz pentsatzen dugulako, ta ori onartu bear dugu, mentalitate ori.

Beste batek dio kultur mailla ezagutzen dela, izlariak ondo esan duen bezala esaten danean eta ez esateko eran, ta ez ote gabiltza esateko era bereizirik beste kultura batera, mailla batera igotzen gerala siñeztu nairik? Ez ote degu siñezten erriak erabiltzen ezituan itzak erabilliz beste kultura mailla batera igotzen gerala?

Izlariak: Nik uste dut badirala diferenteak erri erriaren, ola, estudioak egin eztituenaren mailla ta egin dituenarenak.

Aita Agirretxek esaten du *-keri* sufijoarekin uts egite bat adierazten dugula; baiña itz asko dauzkagula bear bearrezkoak *-ismo* sufijo orrekin erabili bear diranak, uts egite ezitiranak; kristianismua, komunismua, sozialismua eta oien *-ismo* ori eztago oker. Uts egite bat baldin bada, esate baterako *purismoa*, oker dagoana, obena, ori esan diteke *-keri* orrekin.

Aita Villasantek: Uts egitea ez, joera bat da *-ismo* ori.

Batek esaten du Eguzkitzak sozialismuari gizartekeria esaten ziola.

Maipuruak: Parkatu, baño ori da noski Eguskitza sozialista ezalako.

Omaetxebarria Aitak:

Bear bada esan ditezke bai euskerazko itz jatorrak in ta baita euskerazko itz jatorrak ezitirenakin ere. Baiña batzuetan euskerazkoa jartzen bada erderazkoaren onduan euskerazkoak obeto azaltzen du esan nai deguna, esate baterako *purismo* ortan, *-ismo* ori ezta beti izango gauza txarra, baiña beti gauza txarra espada ere gauza txarra danean erabilteko oso egokia, ta nik *purismo* itza ori artuta ere askotan erabiliko nuke itz ori bera azaltzeko *garbizalekeria*. Ta *kristautasuna*, *kristianismo*, *kristiandade*, *kristau-erria*, *kristau-siñismena*, *kristau-legea*, gauza asko izan ditezke, ta ori beti euskeraz egiten badegu batzuetan erderazko itzak artuko ditugu ta beste batzuetan euskerazkoak, jatorragoak diranak, ta askotan baliteke euskerazko itzak obeto azaltzea, len esan degun bezala. Gaur eozean izlari batek esan dizkigu eztaikit zenbat gauza, gaurko kulturakoak *espiritua*, *genioa*, *manes*, ta euskeraz emen Arantzazun, adierazi digun bezela, *bildurgarriak* esaten dizkie gauza guzti oiei; itz egokia dala uste det errikoa izan arren eta gure kultura maillan ere ondo dagoela, ta gaiñera erderazko itzak ondo adierazten dituela, ta orregatik erderazko itzak artuta ere, orduan ere erabili ditezkeala. Ori itz bakoitza ikusi bearko da noiz sartu ditezken eta noiz kanpora utzi bear diran, artuta ere euskerazkoak erabili ditezke oiek obeto azaltzeko. Gaur itxas-gizonak ikusi ditugunean niri burura etorri zait *gente de mar* erderaz esaten dana euskeratik artua izatea balitekela. *Itxas-gizonak* euskeraz oso egoki da ta beti esaten da; *mariñela* ere esaten da, ta esan genezake *gente de mar* erderak euskeratik artuko zuela, ta sobra al dago ezer? ez, biak, zer esan nai dan, ta orregatik nik uste det euskerak bizia badauka, euskeraz itz egiten badegu, itz batzuk alde batera utziko dira, naiz zaarrak izan naiz berriak izan, eta beste batzuk geroago ta

indar geiago izango dute, ta orain indar asko daukaten batzuek ere gero alde batera utziko dira, arkaismo biurtuko dira. Itz zaarrak, itz berriak, itz ustelduak, itz indar aundikoak, era askotakoak daude. Ta ori itz egiteaz ikusten da eda idazteaz.

Mokoroo jaunak du itza:

Auzi au sortu zanetik, iritzia franko eman da gure artean, bein alde batera ta bein bestera. Baiña, bata-besteren berri jakin gabez, beti luzatzen eta luzatzen joateko bidea baizik ezta-rama eztabaidak. Gure au bezelako batzarre batean beintzat (labur eta itzetik ortzera erantzuten zaiola elkarri) nekez atera ditek, nere ustez, erabaki zuzenik. Ez al genduke onezkeru ordu, batzuen eta besteen arrazoiak elkarrekin berdintzeko moduan bildu ta liburutxo bat argitaratzeko?

Nik ere eman nizkion bein nere arrazoiak A. Villasante-ri, erderazko karta luze batean, orain lau urte. Aitortuko al det, irakurri guziak irakurri ta gaur entzunak entzun, nere bostean nagoala beti?

Utzi bezait A. Villasante-k, aspaldi artan ematen nion azal-bide bat orain emen, guzion aurrean, berriz jalkitzen.

Erderazko xati auxe zan:

"Es innegable que su exotismo formal entre las lenguas europeas actuales le ha creado una situación de privilegio para subsistir a través de tantos siglos y vicisitudes; supervivencia que no se explicaría por las solas causas históricas, sin atender a sus condiciones biológicas...

"El vascuence es, en este sentido, una lengua excepcionalmente productiva, una lengua viva por excelencia. Por una singular paradoja, este idioma, que tanto arraigo muestra a la tradición multifsecular, es entre los que le rodean el que con más libertad innova y produce nuevos elementos.

"Rodeado de hablas románicas que tan pobre vitalidad germinativa muestran y que tan lenta y tímidamente acrecen con la derivación de la herencia latina, el vascuence tiene el don de multiplicar libremente sus voces, de maznar, como con gráfica expresión dice el señor Azkue, cuantos elementos están a su alcance..."

Ez nituan noski nere buruan erneak, itz eder oiek. Orain urte askotxo dirala, García de Diego-k Azkue gureari Real-Academia-ko sarreran egindako txostenetik artuak ziran.

Amaika aldiz aotan artu dan *kultura-mail* orrezaz nik ezer garbirik baldin badakit, orra or kultura-mailetako itza franko; erdal-errietako jende xearentzat goregi dauden itzak, erdal-errietako jende xeak eskolan ikasi gabe ulertu ezin ditzaken itzak eta *conceptuak*.

Nola emango ote luke atal orrek euskeraz? Orain ikusiko dezue nola dakarren, gaur gure artean arkitu-eziña guziok min degun idazle aundi batek:

"Ezifi uka ditek, European orain diran izkuntzen artean oinbeste goraberetan edo aldartetan, bizirik irauteko, bere izaera bereziak asko lagundu diola euskerari. Baiño ori ez da aski, euskerak bere barnean daukan bizi-indarra, erne-indarra ez balu..."

"Euskera, besterik ez bezain ernazua da: izkuntza bizien artean bizienetakoa. Gezurra dirudi, aspaldiko gauzetara ain idukia ta itsatsia dan izkuntza au, inguruan dauzkanak baiño berrizalego ta ernegarrigo izatea.

"Inguruko erroma-izkuntza artu oiek, astiroki ta bildurrez aberasten dira, latini-amak utzi dien ondarearekin: euskerak ordea, berak borobiltzen ditu besteren bearrik gabe, nondinai artutako gaiak; berak oratzen ditu, Azkue jaunak ain egoki dionez..."

Zer derizkiozue itzulpen oni? Zertan eragiten dio erderazkoak? Ez al dakar erderazkoaren mami guzia, bere samur eta gurian?

Artu ditzagun bada batere eskola-gabeko ikazkin bi, bata giputza edo naparra, bestea Burgos aldeko erdalduna; eta irakur dezaiegun bakoitzari bere izkuntzako. Zeiñek geiago ta obekiago buruz artuko du irakurtzen zaiena? Ez ote, euskaldunak? Zergatik? ORIXE-k euskal-begiz eta euskal-buruz artu dualako leen, erderaz irakurria; eta Burgos-ko ikazkiñaren maillako izkuntza ez dalako Diego jaunaren erdera ori.

Ortu emen orain nere iritzi apala: gizonen izkuntzak ez al dira gogoan ditugunak aalik garbien eta errazkien elkarri adirazteko? Zertako beraz beste izkuntzetako bururakizunak euskerazko esaera jatorrez argi ta garbi ta apain adiraz ditzakegula (erriko izkuntza ondo dakiengandik ikasten saiatuta, noski), zergatik, arren, gurea eztan "kultura" orretako itzak etxe-kotzen ari, azken-beltzean baizik?

Auxe zan nere esan bearreko guzia, jaunak eta andreak! Eta bere lanarekin jarraitzen du.

Jaun-andreak:

Orain irakurtzera noana etzan biltzarre ontarako egin, eta ez nintzan ekartzera ere ausartatuko, baldin eskubide zuanak artaratu ezpanindu.

Lan onek ba du noski emen bildu geran guziokin naikoa zerikusi; baiña gu ez bezelako batzueri eragiteko asmatua zan, eta orregatik neukan dagoan bezela idatzirik: zeatz, estu, idor,... eta (¡au miña, Bilbao-ko gazte suminkorren batentzat..., eta au lotsa, irakurri bear dedan onentzat!...) *erderaz!!*

Zuen gisako euskaltzaleen bilkura batean, gauza jakiña da nere au bezelako gaiak euskeraz bear zuala; eta ez nuan beste iñola ekarriko, neure burutik artu izan banu emen itzegiteko asmoa.

Bestek eragin dit, eta ez ain aspaldi. Joan dan asteazken eguerdian, Arantzazu-tik deia: "emengo fraile gazteai uztaillan irakurritako lan hura, arren-da-arren, ekar nezala bere-artantxe: biltzarreko jaun-andreak ere pozetan entzungo zutela, eta asko-

rentzat izan zitekela argigarri ta bide-erakusle". Ez neukan euskeraz antolatzeko ez eperik, ez lan-girorik Bilbao-ko nere eginkizunen artean; eta orain urte bete idatzi bezela dakart, batere gozatu gabe, bere orre gordiñean.

Ez dezatela pentsa Bilbao-ko mutil gartsu oriek euskera berez gauza eztanik gai au ta au baiñoagoak aisa adirazteko: ala bear izan-ezkero, pozik artuko nuke nere gain euskeraz ematea ere, bere ordurako. Baiña gaurkoak ala bear zuan; eta biotz-bekokiak damumiñez naastutako lotsaz beterik, arren eskatzen diet barka dezaidatela, bai esandako gazteak, eta bai nere entzule izatera beartu dituzten gaiñerako jaun-andre agurgarri guziak.

Erderaz ere lagun dakioke euskerari; eta gaur goizean A. Zabalak ain egoki zionez, ezinbeste ontan bederik, gerta dedilla erdera gure izkuntzaren morroi...

DE VIDA O MUERTE

I

Operación de salvamento

1. Un idioma *vive* mientras se conservan los hábitos psicosociales que determinan su uso. Y cae forzosamente en el olvido tarde o temprano, es decir, *muere*, cuando prevalecen los hábitos opuestos.

2. Esta es una verdad de sentido común confirmada por la experiencia diaria. Pero, evidente y todo, no la deberían perder de vista cuantos, por una u otra razón, manifiestan interés en hacer algo por la supervivencia de la lengua vasca.

3. Nuestro idioma vasco, juntamente con la música y el folklore de que es expresión y vida, está condenado a muerte de asfixia mientras tenga impedido el libre acceso a la radio, a la prensa diaria, la escuela, el teatro, el cine... (por no aludir también a las restricciones de la casa de Dios); y mientras, por el contrario, toda la imponente maquinaria informativa del mundo moderno se ocupe sistemáticamente en saturar nuestra atmósfera de castellano o francés.

4. No habiendo la menor exageración en proclamar lo dicho, tampoco la habrá, por consiguiente, en sostener que mientras dure el actual estado de cosas en orden a nuestra lengua, no está en nuestra mano el *organizar* la verdadera defensa del Euskera.

5. Y, descartada así, por fuerza mayor, *la única forma racional y eficaz* de salvar la *vida* de nuestra lengua, no nos quedará, entre tanto, a sus defensores otro recurso que el de cada día más precarios *expedientes*.

6. Con todo, y aun no pareciendo favorables las condiciones para la defensa directa del Euskera como habla viva, ninguna traba nos habría de impedir, seguramente, *organizar* y *llevar a cabo* ahora mismo cierta vasta *operación de salvamento indirecto*, de inculcable alcance, para la que, incluso, podríamos recabar provechosas ayudas, dentro y fuera de casa, con atinar a sacar partido de los varios aspectos interesantes de la empresa.

7. Pues, aun aparte de aquellos vascos para quienes el idioma es el signo más caracterizado de su estirpe y se escudan en el derecho natural para amarlo y defenderlo, el Euskera despierta de hecho, en muy diversos círculos, positivo interés:

- 1) o como *curioso tema de filología y de folklore* digno de atento estudio;
- 2) o como *venerable monumento del pasado*, que sería bochornoso para un país culto dejar perder sin esforzarse en perpetuarlo de algún modo;
- 3) o como *instrumento, depósito y vehículo del genio étnico* de un pueblo milenario, y *primero y más valioso agente de su educación tradicional*, cuya pérdida equivaldría a la liquidación total del pueblo al que caracterizó.

8. Y siendo esto así, hay derecho a esperar que a todos cuantos por una u otra consideración le reconocen tan singular valor, o se sienten afectados por su pérdida, les interese grandemente el proyecto de salvar, siquiera sea la integridad de sus restos actuales; y que desde el euskeldun que profesa un amor filial a su lengua hasta los organismos públicos y privados de investigación científica y patronato cultural de dentro y fuera del país, aporten, en consecuencia, su respectivo concurso de protección, dinero y actividad intelectual a una obra de conjunto encaminada a tal fin.

9. El objetivo inmediato de la operación sería lograr el inventario más completo y manejable posible de nuestra lengua en su vocabulario, locuciones, folklore y producción literaria; catalogando ordenadamente sus resultados en cuatro grandes compilaciones: *Léxico, Diccionario de Locuciones, Repertorio de Canciones y Folklore, Archivo Literario*.

10. Dada la creciente rapidez con que va reduciéndose el área geográfica del Euskera y empobreciéndose dentro de ella, de una generación a otra, su caudal de voces y locuciones, la operación propuesta puede calificarse de *vida o muerte*; y se nos impone a los vascos actuales con tan imperioso carácter de urgencia, que, de no llevarla a cabo en muy pocos años, es casi seguro que ya no podrá nadie realizarla nunca más en el futuro.

II

Líneas generales

A) *Léxico.*

Con todo su mérito y valor incomparable, el gran diccionario de Azkue dista mucho de ser completo. En efecto:

1) Faltan en él multitud de voces y acepciones genuinas del habla popular y de la literatura escrita, aun de los autores consultados para su confección.

2) Después de su aparición en 1905, se ha seguido cultivando el idioma en todos sus dialectos; y, pese a la arbitrariedad y desaprensión que han ido cundiendo de año en año en algunos de éstos, nunca han faltado plumas autorizadas que inspiren confianza y en cuyos escritos se pueda estigar con fruto.

3) Hay también importantes trabajos lexicológicos, anteriores y posteriores a los de Azkue, esparcidos en libros, revistas y diarios; así como también cantidad de útiles neologismos dignos de aceptación.

Es, pues, necesario completar la obra de Azkue, procediendo sin pérdida de tiempo a la recogida de nuestro vocabulario viviente antes de que desaparezca la generación de los euskaldunes netos, y a la compilación de todo ese otro material escrito en un nuevo *Thesaurus* no menos serio y científico.

Y a fin de que el *Thesaurus* así obtenido resulte también más práctico para el cultivo literario de los estudiosos, convendrá darle la disposición de un *Diccionario Ideológico*, cuya superioridad sobre el meramente *alfabético* se echa de ver con sólo hojear la obra monumental de D. Julio Casares, Secretario de la Real Academia Española.

B) *Diccionario de Locuciones.*

Grave error sería creer que ya habíamos salvado del olvido lo esencial del Euskera con sólo salvar su léxico. Los vocablos sueltos no representan, por lo común, más que el elemento material del idioma; donde se refleja la auténtica fisonomía de éste es en el conjunto de sus estructuras y combinaciones verbales creadas por el pueblo a través de los siglos, conforme a su visión peculiar de las cosas y de la vida. Y mal puede pretender poseer ni aun conocer una lengua quien no ha dedicado a este aspecto de ella preferente atención.

Siendo de ayer nuestra literatura escrita y muy limitado el campo de sus temas, no ha podido registrar sino una ínfima porción de los recursos expresivos del Euskera, cuyo caudal fraseológico (circunloquios, eufemismos, comparaciones, metáforas, dichos agudos, etc.), puede decirse que está todavía por recoger.

Y, paralizado ya prácticamente el normal cultivo literario de nuestra lengua por la atmósfera de tedio y desgana que se ha ido creando, no nos queda más que una solución si hemos de perpetuar del Euskera otra cosa que un esqueleto descarnado: completar su Léxico mediante la recogida y catalogación de la aludida fraseología en un copioso Diccionario de Locuciones.

Pueden servir de base inicial los trabajos ya adelantados por Harriet, Azkue, Lhande, etc., y las pequeñas colecciones dispersas en diarios y revistas o conservadas inéditas por sus autores. Pero con más razón aún que para el Léxico, hay necesidad de proceder cuanto antes a una recogida exhaustiva en libros, publicaciones y manuscritos, y *sobre todo* en los labios del auténtico pueblo euskaldun; adoptando para el Diccionario así reunido la *clasificación ideológica*, a base de referir la idea principal de cada locución al vocablo que mejor traduzca su concepto.

C) *Repertorio de Canciones y Folklore.*

En íntima relación con el idioma está su contenido folklórico: leyendas, cuentos, fábulas, consejas, acertijos, proverbios, refranes, dichos sentenciosos... por una parte; canciones religiosas y profanas, aires de danza y demás melodías populares, por otra. Manifestaciones todas ellas, en nuestro caso, de la fisonomía espiritual de un pueblo a punto de sucumbir, y cuya noticia hay interés en perpetuar.

No poco de ello se ha recogido ya en obras y publicaciones dispersas, pero es todavía muchísimo lo que queda por recoger,

y cada día más urgente la necesidad de darse prisa, por la fuerza arrolladora con que la nueva cultura gráfica y audio-visual a base de lectura, radio y cine viene suplantando en todas partes a la cultura tradicional que se basaba en la transmisión oral de las ideas y experiencias de padres a hijos.

Se hace, pues, necesario completar cuanto antes la recogida de nuestro folklore y cancionero, para emprender luego la compilación de todo él en un Corpus único, bien organizado.

D) *Archivo Literario.*

De nuestra modestísima literatura euskaldun puede decirse que, para la inmensa mayoría de los vascos, aun letrados y curiosos, es como si no existiese.

La producción contemporánea, ya se sabe que es muy poco difundida; y en cuanto a las obras del pasado, son rarísimas las reeditadas en nuestros días o asequibles en librería. De suerte que, descontando un pequeño número de bibliófilos y eruditos, apenas nadie tiene noticia directa de lo que en euskera se ha compuesto en estos cuatro siglos.

La consecuencia inmediata de este hecho para los aficionados a escribir tenía que ser deplorable, al heredar los jóvenes vascos cada vez menos del tesoro idiomático de los mayores y al irse, por lo mismo, enrareciendo el ambiente euskaldun más y más. No bastando la buena intención para suplir las carencias de un Euskera mal aprendido, y no existiendo costumbre ni casi posibilidad de estudiar en autores seguros, el resultado ha sido el empobrecimiento progresivo del lenguaje literario en general —salvo contadas excepciones— y la improvisación de estilos amanerados, arbitrarios e indigestos, lo mismo en prosa que en verso.

Para remediar este mal, si todavía es tiempo, y para conocimiento y estudio de nuestros venideros en todo caso, sería muy conveniente la formación de un Archivo Literario o Biblioteca de escritos vascos, en que se diese cabida al mayor número posible de textos completos de todas clases, prescindiendo en su elección de su mérito artístico propiamente como tal y dando sobre todo la importancia a su valor lingüístico y representativo.

Complemento del *Archivo literario* escrito, deberá ser otro *Archivo del Euskera oral*, es decir, una colección lo más rica y variada posible de grabaciones en discos e impresiones en cinta magnetofónica, no precisamente de trozos literarios declamados, sino de diálogos y conversaciones al natural, improvisaciones de bersolaris, sermones de iglesia, etc., en todos los dialectos y variedades locales.

III

Ejecución del plan en esquema

A) *Iniciativa y primeros pasos.*

Toma la iniciativa cualquier organismo o institución que, contando con la confianza del Estado, quiera dar los primeros pasos en esta obra de salvamento.

Al efecto:

1.º Eleva una razonada memoria a los poderes públicos pidiendo el amparo y apoyo indispensable para la organización de la empresa.

2.º Obtenido el permiso oficial, dirige a las restantes entidades públicas y privadas de mayor influencia social en el país vasco (prelados y autoridades eclesiásticas, institutos religiosos de hombres y mujeres, centros administrativos, industriales y económicos, culturales y docentes...) una exposición clara y precisa del proyecto, encareciéndoles la necesidad urgentísima de acogerlo entre todos bajo su efectivo patrocinio, y de comprometerse a prestarle, como a cosa propia, todo el calor de su entusiasmo y toda la ayuda material y moral de que sean capaces.

3.º Asistido del mayor número de adhesiones, da a conocer el proyecto en todos sus detalles al público del País Vasco por medio de una inteligente, fervorosa y activa propaganda, solicitando su concurso de sugerencias, dinero y trabajo, ya que sin la colaboración general de los vascos no se concibe el éxito de la obra emprendida. Con tal fin, une al resumen del proyecto un detallado cuestionario, al que cada interesado deberá responder, en breve plazo, exponiendo sus propios puntos de vista y el género de colaboración que ofrece. Este cuestionario, que da por conocido el proyecto en todas sus partes, abarca extremos del tenor siguiente:

¿Qué clase de ayuda material o moral está usted dispuesto a ofrecernos concretamente?—¿En cuál de los cuatro Boletines del Secretariado podría usted colaborar y cómo?—¿Qué obras aprovechables para los fines del Secretariado (libros, manuscritos, revistas, diarios, etc.) se comprometería usted a poner a disposición de éste, y en

qué condiciones?— O, ¿cuál de ellos se comprometería usted a estudiar y analizar por sí mismo?—¿Bajo qué aspecto? y, ¿dentro de qué plazo aproximado de tiempo?—¿Qué otras personas conoce usted que dispongan de material interesante para esta labor, o a las que se pueda pedir colaboración?—¿Qué otras ideas desearía usted sugerir al Secretariado, en relación con los fines que persigue?... etc.

4.º Al mismo tiempo, se dirige también a los organismos de investigación científica y patronato cultural de fuera del País Vasco a los que juzgue más útil recurrir, para solicitar el apoyo moral de su amistad y consejo, y aun la ayuda material que les permita el carácter y fin de su institución.

B) *Secretariado técnico y sus trabajos.*

5.º Archivadas las adhesiones, y elaborado lo antes posible un fichero de los puntos de vista y ofertas de colaboración, que se han logrado mediante las varias consultas anteriores, la entidad iniciadora procede a instituir un Secretariado técnico, encargado de llevar a cabo los trabajos preparatorios del cuádruple proyecto.

6.º Este Secretariado pone inmediatamente manos a la obra, creando cuatro Boletines simultáneamente, destinados a recoger y ordenar el material de cada una de las cuatro grandes Compilaciones arriba descritas. Dichos Boletines habrán de tener la mayor periodicidad y difusión posibles; para lo cual se procurará darles un carácter abiertamente popular y económico. Al frente de cada uno de ellos habrá una comisión directiva encargada de clasificar y publicar las aportaciones de cada uno de los colaboradores. Y para estímulo de la laboriosidad de éstos, se establecerá un sistema de recompensas en metálico, en proporción del volumen y calidad del trabajo útil.

7.º *Boletín n.º 1: Léxico.*—Comenzará a publicar, clasificadas por orden de ideas, según un plan adaptado del Diccionario Ideológico de Julio Casares, las voces del diccionario V. E. F. de Azkue. Al fin de cada grupo importante, según juzgue oportuno la Directiva del Boletín, se interrumpirá la serie para invitar al público a completar las listas de vocablos registrados, presentando otros, recogidos a flor de labio en el pueblo, o en la lectura de autores de confianza, con mención de la procedencia de cada hallazgo y nombre y localidad del colaborador, para más fácil verificación en caso necesario.

8.º *Boletín n.º 2: Diccionario de Locuciones.*—Dada la insuperable dificultad que presenta para la generalidad del público

la clasificación ideológica de las locuciones, este Boletín en sus comienzos habrá de limitarse a archivar, por orden de recibo, de interés o de autores —a juicio de la Directiva— y debidamente enumerados a modo de catálogo, las aportaciones fraseológicas de los colaboradores, recogidas y autenticadas en la misma forma que los vocablos del Boletín n.º 1. Sólo más tarde —si bien lo antes posible— se destinará una sección de cada entrega a pequeños ensayos de clasificación ideológica, a base de referir la idea principal de cada locución, según se dejó dicho en su lugar, al vocablo capaz de traducir mejor su concepto.

9.º *Boletín n.º 3: Repertorio de Canciones y Folklore.*—Dos secciones. Siendo, naturalmente, muy restringido y selecto el número de colaboradores del Boletín en su sección musical, podría ésta comenzar por un Nomenclator provisional de todas las canciones y melodías vascas de que hay noticia escrita, provisto de las correspondientes referencias a su fecha y forma de edición y con breve indicación de sus particularidades en los casos equívocos; y, una vez completado el Índice provisional con las adiciones y nuevas aportaciones inéditas de los colaboradores, procederse en números posteriores a la edición definitiva de todo el Cancionero, adoptando el sistema de clasificación que convengan los entendidos.

La sección propiamente folklórica del Boletín comenzará recopilando, según el método y clasificación que determine la Directiva correspondiente, y por hojas o pliegos-fichas, todo el material folklórico ya publicado hasta la fecha y esparcido en libros o cuadernos. En entregas sucesivas se invitará al público a completar las fichas anteriores con nuevas aportaciones, siempre fielmente comprobadas, con lo que, al cabo de unos años, el Archivo de Canciones y Folklore de nuestro País lo habrán formado automáticamente los números del Boletín.

10.º *Boletín n.º 4: Archivo Literario.*—Su colección, a partir de la primera entrega, equivaldrá a una especie de “Biblioteca económica y popular” de todas las producciones de la literatura vasca que puedan servir de provecho a los estudiosos desde el punto de vista del lenguaje (gramática y estilo). Para alcanzar tal fin, se imprimirán en fascículos uniformes y encuadernables, o en pequeños cuadernos numerados. La numeración, aunque no necesariamente el orden de entrega, corresponderá a un plan cronológico. Se incluirá en la colección la mayor cantidad posible

de textos completos, atendiendo en la adopción de éstos, según arriba se ha dejado dicho, más que a la importancia del contenido literario, al valor representativo de su lenguaje.

IBAR

París, 29 de agosto de 1955.

Gero Erkiaga jauna mintzatu da eta esaten du Mokoroaren lana bikaina ta txalogarria benetan den arren, leengo puntura jota, euskerak baduela indarra, kemena, gaia ta giarra, besterenetik ez biziteko, Mokoroa jakintsuak eta beste batzuek adierazi dutenez. Baiña eztakiela ze adu txarrek darabilen gure izkuntza. Gizon jatorrenak, zergatik -egia da Mokoroaren lana eztala gaurko ta onako izan- zergatik beti jotzen degu beste izakuntzara gure gauzak esateko ta adierazteko. Jakituria-mailla orretan teknika itzak euskerazko itz errezakin esan aal baditezke eta alaz guziz ere erderaz aritzen bagera, jakituria-mailla orretan nola erabili aal izango genituzke? Ori galdetzen diot nere buruari eta beti arrenkuratan gelditzen naiz, euskaldunak noiz asiko gara gure lanak euskeraz egiten? Gure lanak egin ditzagun leenbizi, euskeraz eta gero erderaz, bádira entzuleak erderara emanak orduan, erderara biurtuak. Ori eskatzen diet nik euskalzale maitagarri guztiei eta euskal-idazleei batez ere. Leenbizi euskeraz eta gero bear-bada beste izkuntzetara itzuli, beste munduak jakin dezan.

Zenbait eztabaida sortzen dira batzarkideen artean eta euskeraren eriotz bideari buruz itz egin da sutsu. Aresti jaunak adierazi du berrogei urteko bizia ematen diola euskerari Bizkaian oraingo bidetik jarraitu ezker eta Mokoroa jaunak azaltzen duen egitama aundiegia dela, diru ta denbora geiegi bear litzakela betetzeko.

Maipuruak adierazten du espezialistarik onenak ezti-rela ausartzen igarkizunak egiten noiz ilko diren izkuntzak.

Baiña erantzuten dio ezin baldin bada ere badagoela posibilidad bat eta posibilidad ori aurretik ebagi bear dela, aal den neurrian. Eta bein galdu ezker izkuntza, berriz sustraitu aal diteke?

Eztabaida bat sortzen da batzarkide batzuen artean.

Maipuruak: Nik eztut uste bide ontatik jo bear dugunik. Alegia, Jainkoari eskerrak eztagiku etorkizunaren berri. Beraz, uste dut lan alferra dela esatea ainbeste edo ainbeste denboran galduko dela edo ez. Orain gauza bat dago begien bistan eta gauza ortan Aresti jaunak arrazoi du eta arrazoi ori besteak ematen dio. Euskera oraingoz eztijoa aurrera, atzeraka baizik. Beraz, gauzak lenbailen egitea egokia izango da. Ortan danok bat gatoz.

Gero Jose Agerre jaunak itz egin du. Euskal-literatura aurrera dijoan arren, eremuari dagokion aldetik euskera atzeraka dijoa. Badirudi literatura ta olako eginbideak ez tutelatu betetzen bear bezala eremuaren moztutze ori. Orrengatik begiratu bear ditugu guk gauza batian iraultzen ditugun eginbideak balio ote duten besterako, au da, salbatuko ote dugun euskera literatura ta bide oiekin? Noski eginbide oiek bere balioa dute ta lan aundia egiten dute eta merezigarriak dira. Eta orrengatik literaturako moduak onak izanik ere beliteke berantkorrak izatea, eta adierazten du eztagoela segur ez ote den asmatu bear beste eginbideen bat eremuaren galtze ori galerazteko. Gero adierazten du guk eztitugula erabiltzen, gaurko aldiak eskatzen duen bezala, masa lantzeko tresnak, au da, erradioa, zinema, eta abar. Erriaren artean sariketak egin bear lirakela diño, baiña ez nolanaiko sariketak, sari aundiekin baizik. Napoleonek esaten zuen dirua bear dela gerra egiteko. Baiña beste gauza askotarako ere bai, eta gu gauza ezpaldin bagara diru ori ekar-teko edo emateko, orduan euskera galduko da. Dirurik gabe galtzen da dena.

Afrikako erri baten berri eman du. Gobernuak debekuak jarri omen zizkion Eliza Katolikoari. Baiña katolikuak ori ikusita, gobernuak ematen zuen dirurik gabe aurkitzen zirela, pentsatu zuten: "Dirua eskatu bear dugu, beste gisan ezugu deusik egingo". Eta dirua eskatuta gobernuak ematen zuenaren bikoitza, diru orren bikoitza eman zuten katolikuak. Ba, ori egin bear dugu guk ere.

Gu ezpaldin bagara gai dirua eskuzabalki emateko, orduan ez tugu salbatuko euskera.

Sariketari buruz jarraitu du eta esaten du zenbait lurraldetan antolatatu bear lirakeala denak parte arturik, agintariak, apezak, katezismuak, nausikiak, denak, eta orduan izango litzake lan ori eremu gaitzekoa, ainbeste jende lan ortan sartzen delakotz.

Aita Agirretxek adierazten du norbaitek estudiatu bear lukeala beste erri batzuek, izkuntza galtzera zijoan beste erri batzuek, nola salbatu duten, nolako pausoak egin dituzten. Ia ori bat edo batek erakutsiko ote liguken.

Jesuita batek adierazten dio Aita Mokoroari Aita Mugika-k iztegia aurrera daramala. Eta nola lan izugarria egin duen aipatzen du, Azkueren iztegia ontzat arturik beste fitxa asko ta asko bildu omen ditu.

Gero Jon Garmendia jaunari ematen zaio itza.

Liburu saltzeari buruz. Aurkitzen diren zailtasunak.

Bukatu dira jardunaldiak. Gero solas bezala Jon Bilbao jaunak film labor bi eman ditu Goi-Ameriketako bizimoduaz, euskerazko itzak magnetofonaren bidez jarririk.

Biamamonean, 8 1/2-etan izan da meza. Aldameneko altare batean Aita Donostiren alde atera da meza bat, eta altare nagusian bestea. Julian Alustiza Aitak egin du sermoia.

S E R M O I A

Nik ez dakit Arantzazuk zer duen! Ederki-asko kantatu du gure olerkari batek:

“Zuk zer dezu, Arantzazu,
ames-kabi, otoiz-leku,
Euskal-erria oso-osorik
kantari dijoakizu”.

(Mitxelena Salvatore).

Ta zuek, euskaltzaleak ere, Arantzazura jo dezute.

a) Ta, emen Arantzazun, lendabizi egin bear degun gauza auxe da nere iritzian, alegia: alkartu egin bear gerala euskaltzale guztiok: batu. Batasuna bear-bearreakoa degu, gaurko egun larrietan batez ere. Euskaltzaleak asko gera izan, ta poliki-asko lana egiten dute, baña geienean bakoitza bere aldetik ari dira. “Zu ortik, ni emendik!...” Ta ori dala-ta lendabizi batasuna bear degu. Soka batek indar txikia dauka oso, bañan zazpi soka batean artu ezkerro, ezta sortu ura ausiko duan gizonik; ezta sortuko ere. Ta auxe degu guk ere bearrenik: batasuna...

b) Ta gero zuen ametsak ta asmoak, zuen yoranak ta kuztiziak Arantzazuko Ama Birjiñari esatera etorri zerate. Ta ederki gañera. Bera baita gure Itxaropen guztia!... Gaubaren atzetik atsegin izaten da egun berriaren itxaropena ta poxa...

Amaika aldiz egon nauzue zerualdera begira.

Goizean-goiz eguna zabaltzen asten duanean, urrutiko mendien gañetik, laño gorrixka bat azaltzen da lendabizi, gero beste bat, ta urrengo beste bat... Ta mendiak esnatzen dira, ta iturriak beren doñua ematen dute ta txoriak kantari asten dira, ta gure tximinien kea *pafa-pafa* zeru-aldera dioa ta izaki guztiak kantu berri bat asmatzen dute Jaunaren ohorean ta alabantzan... Egunsentia da!... Egun berriaren itxaropena ta poxa!...

Ta Euskalerrria ere izaerarik negargarrienean arkitzen zan amabost-garren gizaldi artan. Fedea oztuta. Sorginkeria ta lasakeria baztarretan... Gorrotoa edonun... Gaubaren atzaparretan zegoan gure erri maitea...

Baño alako batean, emen Arantzazun, Ama Birjiña agertu zitzaigun. Sortu zan gure Egunsentia... Ta poza ta zoriona ta bakea zabaldu ziran baztar guztietan. Orregatik kantatzen degu Arantzazun:

“Ortxen zifian agertu
 mutil artzaiari
 errukia artuta
 Euskal-erriari...”

Ta gaur bertan ere lañoa ta illunpea obetogo ikusten ditugu baztarretan... Euskera atzeraka dijoakigu... Ta euskerakin batera gure fedea ta erligio santua ere bai. Ori alde batetik. Bestetik, berriz, gure izakera guztia galtzen ari gera. Gaubaren atzaparretan arkitzen gera. Ito-zorian gaude oraintxe... Bañan bein da betiko emen Arantzazun dago kokatuta gure itxaropen guztia: Arantzazuko Andra Maria... Ta ori dala-ta, eliza berri bat jaso diogu Amari emen Arantzazun. Ta gure erriaren antze ta irudia duala esango nuke gañera... Atze-alde ori illun ta zoko billatzen det: Euskal-erria da, oraindik illunpetan dagoan erria, bizi-nai larrian dabillen erri maitea... Baño emen, aldare nagusi-gañean egunsentia bezelatsu jaiki zaigu Ama Birjiña. Ta poza ta itxaropena ta bizitza berri bat eskeintzen digu guztioi...

“Ekin ta yarrai” dezagun ba, Amaren babesean:

“Ortikan zaude Euskal-erriko
 seme gaixoen begira,
 gaur zure seme oien kontrako
 etsaiak ugari dira.
 Zugana gatoz, Ama maitea,
 zure mantupe argira
 Ixuri zazu zure indarra
 euskal-biotzen erdira”.

(Arana S. I.)

Julian Alustiza Aita, O. F. M.

Amaiketan Maipuruak Barandiaran jaunari eman dio itza.

AXULARREN EGINKIZUNAK ETA AXULARREN IZENA

Andre eta gizonak:

Emen aurten Euskaltzaindiaren orde zospatzea ongi iduritzen zat Axularren eginkizunak eta Axularren izena. Axular, badakizue danok Urdazurikoa zala, baiñan Urdazuritik gazterik irten zan ta egin zituen bere ikaskuntzak Iruñian eta Tarbes eta

beste leku batzuetan, enaiz orain ongi oroitzen, eta azkenik apeztu zan; apezturik eraman zuten Sarara eta Saran izan zan apez-nagusi eta han urteak igaro zituen, baita an zegola idatzi zuen liburu eder bat: *Guero*. Liburu ori leku askotan edatua ibili da eta guregaiño iritxi zaigu naiz-eta izan irureun urtetik goitik ori argitaratu zuela. Eta azkenik, Axular ere il zan, beste guziak iltzen diren bezela. Baina bere oroipena ezta oraino il, ez bere liburuan, jakina da, ez eta ere erriaren oroimenen artean. Orre-gatik nik uste'et egoki izango dela, gaur, bederen, emen erriak zer dion beragaz zerbait agertzea. Ara ba, nik askotan entzun izan nituan zenbait gauza. Axular, jakina da, erriaren aurrean gizon ospatsua, gizon aundia, beste gizonak ez bezalakoa zan, eta zenbat eta geiago mendeak igaro, nik uste, Axularren oroipena aundiagoa izan dela.

Aa baa, orain ari naiz mintzatzen han Saran bezela, neronek ere baaldakit ze mintzaera darabile'an; batzuetan Ataungoa, bes-teetan Sarakoa, bestetan nik eztakit nungoa. Baña barkatu.

Ala baa, diotenez, Axular joan bear zen bere ikaskuntzak egitera Salamancara, bainan Salamancan bear zituen urteak bere ikaskuntzak amaitzeko; ta bazen (batzuek diotenez Salamancan bertan, beste askok Saratik urbil an Sarako lezeetan) daebraua. Berak ere bazuen eskola eta berarekin, ikasleak artzen zittuen eskola guztiak. Ikaskuntzak debruakin egiten zittuztelarik, etzan ainbeste kostat, ez diru, ez eta ere urte, eta Axularrek eta bere anai Atarrabiok uste zuten Sarako lezean bere estudioak egitea obe izango zala eta joan ziren deabruaren eskolara. Ta baziren beste geiago ere debruaren eskolan, han beren ikaskuntzak egite'a joan-nak. Deabruak etzuen diruren bearrik, orduan etzioten deabruari deus'e ordaintzen. Ba! deus'e! zerbait bai, urtearen azkenean aren mendean betiko gelditu bear zen eskolari aietako bat. A! Gan zan urtea eta leen ezlut esan, baña o'ain esaten det, urte batean eskola guztiak artzen ziren deabruaren eskolan, eta Axular eta bere anaie biziki pozik andik irteteko beren ikaskuntzak egiñak eta beste lagunak ere berdin noski, bainan bazuten bioz-min bat sartua, ge'oz eta barnea'o ta au zan:

—Guetako bat emen gelditu bear betiko debruaren mendean. Orduan, iritxi zela'ik andik irteteko eguna, deabruak esan zien:

—Ba'akizute ne'ekin bat geldittu bear duela.

Besteak:

—Bai yauna.

—Orduan zuek ikus nor nerekin, nere mende izain den betikoz.

Eta an ziren eskolari guztien artean egin zuten txotxala-motx, ea nor gelditzen, eta ara, zorigailteaz, Axularren anaia erori, orduan Axularren anaia, Atarrabio, an gelditu bear. Baña Axular errukitu zan, biotz-berakoa biziki eta gero maite zituen bere inguruko denak. Eta balipait bere anaia. Eta anaia ikusirik apha-
dua eta illundua esan zion:

—Atarrabio anaia, etzaaz orren apal da ilun gelditu, ni geldituko naiz zure tokian, joan zaitte gure gurasoen etxera ta esan aiei nola ni gelditzen naizen debruaren mendeko betikoz.

Bainan orduan esan zien bere lagun guztiei Axularrek:

—Begira, zuek irten gaur eguerdian, xuxen, lerro lerroan, bata beste'en atzetik, ta bakoitzari galdetuko dio debruak: ¿Nor gelditzen zerate nerekin? Ta bakoitzak esan bear du: Nere gibeletik eldu dena. Ori esan bear duzue denok.

—Bai mutil, esain diagu. Ala, ordua iritxi zela'ik abiatu ziren irteten eguerdi-eguerditan beetik goitik an zuloan. Eta debrua an zen beti barnean, baiñan zuloaren ondoan, galdetzen irteten zanari, eta:

—¿Nor gelditzen da nerekin?

Ta asi zan lenengoa esaten:

—Nere gibeletik eldu dena.

Bigarrenai:

—¿Eta zu gelditzen zare?

—Ez, nere gibeletik eldu dena.

Irugarrenai:

—¿Ta zu?

—Ez yauna, nere gibeletik eldu dena.

Ta ala azken artio; ta azkenekoak e'e erran zion:

—Ez yauna, nere gibeletik eldu dena.

An zen Axular. Axularri galdetu zion:

—¿Nor gelditzen da?

—A! Nere gibeletik eldu dena.

Eta irten zan. Axularren gibeletik nola eldu baizen bere itzala, euzkia goian baizen, eguerdian, eta itzala beerean oino zuloan, lezearen barnean, zas! debrua gan zen itzalaren gaine'at eta atxeman zuen, artu zuen berekin, betikoz, eta Axular gelditu da itzal gabe. Axular gaixoa betiko itzal gabe gelditu zen.

Ba'akizue o'ain, gure mende ontan itzalak deus ezta esan nai; baña leen, leengo mendetan etzan ala. Itzala erromatarren denboratik gure errietan sartua den sinestez, itzala da bakoitzaren anima. Eta orrek esan nai Axular gelditzen zala anima gabe. Ala izan leike, baña gero ikusiko degu ezdala guztia egia izain. Ala Axular atera zen ongi eskolatua eta biotz ona eta burua biziki

argia, eta leen esan de'ana, ein zuten Sarako apez-nagusi ta an bizi zen eta an il zen, baina 'in tzuen lan ongi. Bazuen o'i bai, aal izigarria; bein, goiz eder batez, udako goiz eder bat, etorri zen bera ikustera gizon bat, ederki yantzia, eta lenengo agurra egin zion eta ala izketan a'i ziela'ik, begira biak Sarako landetara ta ikusirik nola ango landetan gariak elduak ziren, gorri gorri, ta iduzki e'erra baizen esan zion lagun orrek Axularri:

—A! ze landa ederrak, galsoro ugariak.

Ta Axularrek esan zion:

—Bai ala da, ta orduan bere lagunak:

—Baditut nik zaldi ederrak oiek ongi zanpatuko lituzkenak.

Ba'akizute leengo denboretan beintzet, o'ain ere bai toki batzuetan, zaldiz gariak t'ogiak yotzen dituzte; bainan Axularrek ongi zekien nor zen an etorri zena beragana eta zer esan nai zuen itz oekin bere lagun orrek, t'esan zion:

—Bai zuk izain dituzu zaldiak..., badittuk nik ere, bai, makila politak zaldi oiek bere bidean itzularazteko.

Ta beste'ik esan gabe laguna joan zan. Lagun ori nor zen? Bere anai Atarrabio. Ara, zori alde aundikoa. Bat, ora, biziki ona: bestea, debruan eskolatuak biak izan arren, deabruain eskolakin bakarrik geldittua Atarrabio, gaiztoa. Eta ala, bazkalondoan esan zion bere neskari Axularrek.

—Ikusten baduzu Larrun gaiñean laiño bat esaidazu:

Ta ara nun Axular joan zan lo e'itte'a eta bereala deitzen dio neskak:

—Larrun gaiñean laiño mota txiki bat ageri.

Yeiki zan, joan zan an Bolanteiko zelaira, bere liburua eskuan, ari otoitz egitte'a, Yainkoari otoitz egitte'a, bere anai gaiztoaren zaldiak bere erriko garia zanpatze'a etorri ez ditezen. A'i zelaik otoitz egiten, eldu zen eate-ots izigarri batekin arri ehauntsia Larrundik beetik eta bera larri, ustez-eta Atarrabiok irabaziko zuela. Bainan artan a'i zela, ostikoa aide'a bota zuen eta bere oñetakoak aidean an ziren ta an ezkutatu ta etzittuen geiago ikusi. Baña ezta arririk ere etzan bere erriko landetara erori. Ori zan Axularren aal izugarria. Bainan Axular noizbait il bear, zaartu zen, eta uste zuen laster ilko zela; orduan, nai zuen beintzat iltzen zan orenean bere anima berekin izan, eta nola anima, itzala, bakarrik meza erdikoan irteten baizitzaion eta bestela ez, nai zuen il meza erdiko puntuan, eta ala bere serbitzaria'i, gizon jatorra, Saratarra, esan zion:

—Aizu, biar meza erdikoan, puntu artan ilko nazu.

—Ez yauna, erotu ein al tze'a.

—Ez, ez, ez...

Eta berari erran zion zerta'ako ta zergatik esaten zion ori eta orduan bere serbitzariak agindu zion:

—Bai yauna, ilko zaitut. Eta an zen mezan, arma eskuan, serbitzaria, noiz il bear ote zuen bere nagusia eta meza erdiko puntuan bere buruari:

—Baina olako gizon saindua zerta'ako nik il bear det? Ez deaat, ez, ilko eta itzuli zen ta gero andik irten da Axular'ek esan zion:

—Zerta'ako ez nazu il.

—Eta besteak:

—Yauna! baina nik sekula're ez, sekulan etzaitut ilko.

—Baina eztakizu bertzela ni iltzen banaiz itzal gabe eznaizela zerurat sartzen aal?

—Beno, orduan biar ilko zaitut. Beste egunean joan zen, arma eskuan, an egon zen bere apezka iltzeko asmoan. Bainan orduan ere burura etorri zitzaion:

—Baina, baina nola iltzen al dut nik gizon au? Ez, ez, ezdut ilko sekula.

Berriz ere Axular'ek:

—Baina, mutil, zertako eznauk il? Biar il nazak.

—Bai ilko zaitut ba.

T'irugarrenean, alaxe, bere arma eskuan, ilko det, ezdet ilko, ilko det, azkenean, zas! begiak itxita arma Axularren gaiñera ta il zen ta orri eskerrak, Axular bere itzalorekin il baizen, o'ain zeruan baita.

Ala, ikusten dezue erriak ze oroipen duen Axularrezaz. Baidira geiago're. Bainan oraingoz ori aski izango da. Bakarrik esango dizutet nola baden Euskalerrian ipui asko gai ortaz. A'alarko mendian lenengoz entzun izan nuen ipui bat eta han esaten zien:

Bazen denbora batean han emazteki bat. Emazteki o'i biziki ederra agertzen zen Muruko mendian. Gizon bat igo zen ta biak, gizonak ta emazteki orrek, ezkontzeko itzak elkarri eman, ta baita ezkondu ere, ta han Beasaingo mendian, ango baserri batean biak bizi ziren. Izan zituzten aurrak. Zazpi. Bainan ezkondua baizen emazteki ura, ta esan emen zion bere gizonari ezkontzean:

—Bai ezkonduko naiz zu'ekin, bainan gauza bat bear dezu egin: Sekulan ni ezazu ikusi bear elizan. Nere aurrak ere ez.

Gizonak, maite baizuen, agindu zion baietz, ala izain zala. Eta etzan sekulan emazte o'i elizara joaten, gizona bai; bazituzten zazpi aur, etzituzten bataiatu, baña gizonak egun batez bere artean zion:

—Bainan, bainan, ¿ze kristau naiz ni? zazpi aur eta o'aindio bataiatu gabe. Ba! artuko dittut aurrak beren ama'ekin gurdi batean ta e'amango dittut biar elizara.

Ta ala egin zuen. Lotu zituen berak gurdian ta abiatu zen. Bainan abiatu zela'ik emazteki aren lokarriak su ta gar erre ziren ta bera aidetan joan zan esanez:

—Nere aurrak mundurako, ni Mururako.

Ori da Mari-Munduko. Leku batzuetan Anbotoko Mari Urraka, beste toki batzuetan Txindokiko Mari, beste batzuetan Puiako Maia, denak berdin, bainan zazpi aur oietatik bi, zaarrenak, oiek ziren: bat Axular eta bestea Mikelats, bat ona, bestea gaiztoa, munduan ala dire. Ama batetik ona edo gaiztoa, andik sortuak, asera ona ta asera gaiztoa. Ara ba nola leen leenagotik Euskalerrian ziren gaiak Axularri eta here anaiari ezarriak izan diren gero denborarekin.

O'ain esan nezake beste gauza bat ipui oni buruz. Gai oek ikusi ditugu edatuak ez orain, baita leenagotik ere, Euskalerrian. Bear bada gai batzuek Euskalerritik urrun. A! askotan Euskalerrian bildu izan ditugu olako gai asko, ta ustez-eta bertakoak direla, ta gero denborarekin bear bada yakiten degu eztirala arras emengoak. Batzuetan gertatzen da badirela hor munduan edatuak aspalditik, bear bada munduan bizpairu aldiz mundu guztiari bira emandakoak. Ara baa, gai batzuek emen bertan sortu eta bertan direnak. Beste batzuek bertan sortu eta edatu direnak. Beste batzuek urrundik gugana etorri, emen zabaldu ta beste toki askotan bezela zabalduak dabiltzanak. Eta ortarako bear ditugu guk emen gure Euskalerra ontan bildu al dugun guztian gairik geienak, denak, al badegu. Gero ikusiko degu zer gai diren emengoak bakarrik zer gai diren onera etorriak, nolanaiz ere batzuek eta besteak euskaldunak artuak ta beretzat erabiliak. Da ara nola, len esan de'an bezela, gerta liteke emen dabilzan gai batzuek urrundik etorriak izatea, eta bear bada bira asko munduan emanak izatea. Bein Kortezubin, Santimamiñeko arzuloan lanean ari giñela'ik Aranzadi, Eguren eta ni, antxe gizon batek, angó adiskide batek, Lezikako nausiak esan zi'an:

—Bada or Txapelan koba 'o koba-ederra esaten dioten koba bat, or Nabarniz aldean, da bear bada an ere izain dire gauza'en batzuek zuentzat garrantzi aundia duenak, ta nik esan nion:

—Ba nai al dezu gaur bazkalondoan biok goazan toki artarat?

—Bai, joango naiz.

Ta ala biok joan giñan eta an, beetik goitik, gijoantzela arzulo artara, bidean, erdialdean bazen zulo aundi bat, ta esan nion:

--Zer zulo da au?

Ta esan zi'an:

—Oek zuluak basurdeak ta lengo denboretan otsoak arrapatzeko tranpak ta zuloak izaten zi'en.

—Ta nola atxematen zenduen emen basurde edo otsoa?

—Eztezu zuk sekulan aittu zulo ontako ipuia?

—Ez.

—Ba esaten dabe emen bidean, otsoak-eta ibiltzen zien garaian, egiten zutela zulo aundi bat, baarnetik zabalago atakan baño eta gero ataka ori isten zutela, estaltzen zutela abar batzuekin. Ta basurde edo otsoa an igan zela'ik, ustez-eta lur gogorrean oña jartzen zuela, sartzen zan tranpan abarretatik beera eta an gelditzen zan betiko eta ge'o batebat etortzen zela'ik bertan iltzen zuen. Ala, esan zidan gizon orrek ipui au:

Bein, emen, Oma'ko zuloan, omen zen otso bat, eroria; aldian aldian gora jauzi bat e'iten zuen, burua ateratzen zuen kanporat; baño, ezpaizuen nun bere atzamarrak jarri, erortzen zen. Ta ola egun batez atxurra eskuan gizon bat eldu zan bidean beetik goitik ta ikusi zuen jauzi batean nola bere burua atera zuen otso batek, eta otsoak ere ikusi zuen gizona, eta bere zuloan barnetik otsoak deadar egin zion:

—A! gizon, gizon, etorri zaite.

Ta joan zan gizona otsoaren ondora.

—A! Luza eidazu atxur ori. Orrekin igoko naiz gora. Il onetan emen nago ez yan ez edan goseak iltzen.

—A!, esan zion gizonak, gaiztakeriak egiten baitituzu zuk.

—Ez yauna, nik sekulan ez tet gizonaren kontra gaiztakeririk e'in, beti ongi, nik ez titut abere gaiztoak ta piztiak besterik yaten.

—Eztek ala izain, emen ola atxemana izan aizenean zerbaitegatik atxeman aute.

—Ez yauna, ba leen e'e gaiztoa izan banaiz emendik aurrera eznaiz izain eta luzai'azu atxur ori ta atxurraren bidez emendik irtengo naiz.

—Ez, ez, ez...

—Bai, begira, gauza bat agintzen dizut, baldin ni emendik ateratzeko eran ematen banazu, nik emendik aurrera beti pixtiak eta ola atxemanen ditut, zuretzat izain ditut erdiak. Neretzat beste erdiak.

Ta, gizonak maite baizuen berak ere zerbait irabaztea, orduan, luzatu zion atxurra eta otsoa atxurraren bidez atera kanpo'at. Ta orduan otsoak esan zion:

—A! yauna! Gose izigarria, iru egunean ez yan ez edan. Yan e'in bear zaitut.

—¿Ni?

—Bai yauna. Goseak bainaiz.

—¿Bainan eztakizu zuk, olako mesede aundia egin dizut eta o'ain ni jan bear nazu?

—Bai yauna, bai, goseak bainaiz.

—¿Baiña eztakizu zuk ondo e'iñen ordaiña eztala ori izaten?

—¿Zer ba?

—Ondo 'iñen ordaiña saria ematea.

—Ez, ez, ez, ezta ala izaten.

—Ba! lekukuoai galdetu bear diogu.

—Ba galdetu dezake.

Ta abiatu zi'en lekukoen eske, ta asto bat. Asto ura bere nagusiak e'aman zuela Omako errotara, (Oma an baita, ango auzo bat baita) zaku bat artokin eta ge'o arto ura kendu zuen aren gainetik, eta makila'ekin yo zuen astoa ta larrea mendira igorri zuen.

Eta biak astoai galde diote:

—Aizu, ¿zer da on eginaren ordaiña? ¿Zer izaten da?

T'esan zien:

—Ondo egiñen pague, ate ostien palue.

Bera'i e'in ziotena. Ta otsoak:

—Aittu al duzu? Nik ere berdin esan nizun.

—Baina lekuko bat ezta aski izaten, bear dire bi.

—Bueno, goazen orduan beste bategana.

Ta biak abiatu zi'en ea beste lekuko bat atxematen zuen mendian, ta antxe axari bat, eta axariai galdetu zioen:

—Aizu gaxerko, on e'inen ordaiña ¿nola izaten da?

—¿On e'iñen ordaiña?

—Ori, e! ¿ze on e'iñen?

—Ba, otsoak esan zion:

—Onek gizon onek, ni an nengon joan dan iru egun ortan zuloan atxemana t'ezin atera, ta goseak iltzen, ta onek andik atera nau, eta nik o'ain au yan e'in nai, ta onek esaten du on e'iñen ordaiña eztala ori izaten.

—A! ori, ori, ori! eztakigu ba, ori ikusi 'in bear.

—Ikusia da, ori e'in dit.

—Nundik atera zaittu?

—Or beerean zuloa bada: andik.

—Goazen, ikusi'ezagun zulo ori.

Iru'ak joan di'e zuloa ikuste'a. Ta ikusi dute, ta esan dio otsoak:

—Ortik atera nau. Ta ¿zer derizkiozu? ¿zer e'in bear dio'ala gizon oni?

—Eztek,... eztek aski. Nik ezin erabaki. Sar a'i or ta atera aiala nere vistan. Nere aurrean ateratzen baldin baau, orduan esain det.

Sartu zan otsoa.

—Bueno, luza neri atxurra,

Otsoak beetik. Ta axeriak esaten dio:

—Aizak, o'ain zer nai duk e'itea?

Gizonak otsoa an utzi zuen ilda. Orduan gizonak pentsatzen du.

—Ba, ongi duk. Nik ere emain diat iri zerbait.

Eta ala joan tzi'en etxe'a, emain ziola bi ollasko. Bai bazekien axeriak maite dituela ollaskoak. Gizona joan zan etxe'a eta esan zion bere emazteari:

—Aizu, emen atean or da axeri bat. Ta bi ollasko agindu diotzat.

—¿Ollaskoak axeriari? Ongi, zorigaiztoko axeria. ¿Emen da axeria? ¿Txakurra nun da?

Eta txakurra artu eta axaatu zion. Eta ala ikusiko zenduen gure axaria, aren ongillea, korrika; eta gibeletik, atzetik, txakurra, eta etzuen atxeman, eskerrak sasi arte batean sartu zela'ik ondo. Bestela, gaur etzan bizi. Eta ori ala bazan sartu dedilla kalabazan eta urten dedilla Bitoriako plazan.

Ba, gai au, gai au bera atxeman dut ipui batzuetan, an Pazifik itxasoko, an erdi artan bizi diren yenden artean esaten dan bezela. Ori da ze, munduan bizpairu bira egin dituenak alako gaiak aski aldiz atxematen ditugula gure errian.

Bainan ezta bakarrik erria mintzatzen dena. Orrela, gure artean mendiak ere berdin, badituzte beren izenak eta guretzat badute zer esan. Ez izena bakarrik, anitz alditan ere ipuiak, o'in esan de'ana, han Nabarniz mendin arek zerbait esaten dit neri eta ango lagunai berdin. Neri, an bada San Migel, baina ereñu zarren gainean ermita eder bat eta San Migel-en ipuia, ango lagunai, neri bezala, mendi arek beti ipui eri esaten digu.

Ez da izaten izena bakarrik. Bada Atxarre mendia; an ere badire ipuiak, eta ango mendiak beren izenaz bakarrik ez, baita ipuiak ere ari dire beti mintzo. Eta ala aldi guztietan, erriak, mendiak, ibarrak eta ibaiak guri mintzo dire. Ez bakarrik beren izenaz (izenak, euskal izenak baidituzte), baita ere ipui asko badira berai buruz. Eta paperean ere jarrai dezaten guri mintzo euskal-aoak moteltzen badira, bear degu beti alegin guztian bildu gai auek eta gai oezaz dagoena, eta oiekin zerbait ikasi.

Urrestarazu jaunak Parisetik bialdu duen lan bat irakurri da.

EUSKERA TA EUSKAL-KULTURARI BURUZ

(KARTA IDIGIA)

Atsegiñez irakurri dut *Anaitasuna*'n, ille onen 14'tik 16'ra Arantzazu'n eta Euskaltzaindia'aren itzalpean egingo dan euskaltzaleen bilkura'ren berria.

“Nai duena joan diteke” diño deiak. Nai izatea naikoa baltz... Ezin-izatea, ordea, gogo onenaren areriorik aundiena askotan. Orrela niretzat oraingo ontan, zoritxarrez.

Ala ere deian bertan esaten danez, lanen bat bialtzea zillegi. Ona bada an nolabait agertzeko bidea, paper-bide zuria... eta abiatu gera gure urratsak lumaz ematen. Ea billera orren eratza-lleak atea zabalik utzi al dizaiguketen.

Dana dala orra dijoakie bildutako guziai nire agurrik gartsuena; Arantzazu'ko Andra Maria-ren bitartez Yainkoa'ri zuen lana onetsi dezala biotzez eskaturik.

Eta goazen arira; guztion kezka aundiena dan Euskera'ren bizia, gure Erri'aren biziarentzat bide bakarra dan euskeraren auzia. Euskera ala erdera, gure Erri'arentzat bizia ala eriotza dugu, zalantzik gabe. Ontan, alegia, euskaltzaleok oro aburukide.

Euskera eutsi bear dala, euskera zaindu, indartu, zabaldu... egin bear dala...; ona emen billera ontarako alperrikako amaika itz. Bildutakoak euskaltzale zintzo izanik NOLA da batzarrean esateko itzik egokiena.

Euskaltzaleontzat ere Erri baten gogo, kultura ta izkuntzak alkarrekin dituzten ar-emanak, Erri ori bizi dedin noraezeko dirala esatea bearrik ez. Norberaren izkuntzaren bidez bere kultura landatu ta bien artean —izkuntza ta kulturaren bidez— gogoa eutsi Erri'aren biziak iraun al izan dezan.

Gure Erri'a ere, ezin bizi bere gogorik gabe; ezin euskal-gogoa bere kulturarik gabe; ezin ere euskal-kultura euskera gabe. Kate oni azkenengo punta ontatik oratu bear, estunez-estun ari, gero guztiak sendo tinkatu arte.

Ar-dezagun, bada, —bearrezkoa baitugu— gure kate ori, bere punta bat dan euskera-estunetik; eta ikus dezagun “nola” erabilli bear dugun eta “zer” ote dan egitekorik onena, kate guziarentzat onura aundiena atera dezagun.

Euskerak bizi bear du. Ona emen gure lendabiziko baietza.

Euskeraren gain, noski, beste izkuntza guziak erabiltzen dituzten legeak berak. Geron aburuz, auxe oietatik lendabizikoa: Mintzaera bat bizi dedin, beti baña gero ta areago, kulturazko mintzaera izan bear; ezinbesteko baldintza.

Kulturazko mintzaera zer dan, esatekoa deritzaigu, naiz eta guztion iritzia kide izango dugulakoan egonarren.

Guretzat bederik, izkuntza bat kulturazkoa dala esateko, izkuntza ori Munduan erabiltzen eta erabiliko diran giza-adimena-zen ezagupide guztiak ikasteko, irakasteko, adierazteko ta edatzeko bide izan bear. Orrela dira gaurko ontan ezagutzen ditugun kulturazko-mintzaera guztiak.

Orixe bada, gure xederik aundiena: Euskera, kulturazko-izkuntza biurtzea, orain ezpaita. Aundiena dala diñot, eta eziña epe motz batean burutzeko; gizaldiak bear izango dira lan ori burutzeko, naiz eta oraintxe bertan, Euskalerrri'ko guziok, eta danok batera, lan ortan eta kemen aundienaz murgilduko bagiña. Ala ta guzti ere, abiatu egin bear.

Orixe bearra. Egintzak, ordea, beste auetzek:

- 1) Gaurko ontan euskera ez da kulturazko-izkuntza;
- 2) Gaur gure Erri'an geienak erdaldun, gutxienak euskaldun, eta auen artean beren kultura geiena erderazkoa ere.

Beraz, gure xedeari buruz bide bi agertzen zaizkigu:

LENENGOA, euskera zabaltzea, gure Erri'aren txoko guztietaraño; ZABALERA'koa deitu dezakeguna; egikera ortan euskera *gaiaz* erabiltzekoa.

BIGARRENA, euskera ikasketan sartzea, asi lenengoetan eta goituenetaraño; SAKONERA'koa deitu ditekera; egikera ontan euskera *bidez*, gai guztiak ikasteko *bidez* erabiltzeko.

Bigarren egikera ori, eiki, luzaroko ta zallagoa izanarren, garrantzi aundienekoa, alegia; eta lenengoa ere bere laguntzaille ta atongarri.

Adardun zugatza gure arazo onena. Eziñezko itz gutxitan esan eta inguratzeko; eta bearrezkoa dugu alik eta zeaztasun aundienak, adar guztietan, aztertu, ikusi ta begiratzea.

Nire ustez, guztiz noraezeko *egitarau bat* gertutzea; arazoaren atal guztiak bildu ditzakeana; eta bein ontzat artu ezkerro, guziok burutzeko, gure alegin eta egintza guztiak aren erretenetik joan al izango dira.

Auzia bere osotasunean artzeko beartuak gaudenez, ordu onean gagoz, egitarau ori gertu ta lenengo urratsetik abiatzeko, gure egiazko kulturaz oraindik oso gutxi egin baita.

Nork egin, baña, egitarau ori? Nire ustez "Eusko-Ikaskuntza" k edo bere antzeko beste kulturazko bazkun batek, zar edo berri. Lan izugarria dugu, ta egitaraua egin ondoren ere, bera betetzeko ta Euskalerrri guziko ikasketaren zuzentza eramateko lana naikoa beti.

Bazkun ori ezin, nere ustez, Euskaltzaindia izan, onen xedea beste bat baita; ala ere idaroki dugun beste bazkunarekin beti ar-emanetan ari izan bear.

Ona emen nola ikusten dugun auxe, esate baterako: Kultura guzien lenengo oñarria irakurten eta idazten ongi jakitea da, ortarako gramatika dugu bearrena. Nun dugu gaur euskal-gramatikarik, naiz eta txikiena ere? Euskeraz oso egindakoa esan nai dut, noski. Bat gutxienez atondu bear; eta nun ditugu guziok ontzat ar ditzakegun gramatika-itz bereziak? Ontarako, nere ustez, beste aunitzen artean, Euskaltzaindi'aren lan egokia. Aspaldian antzer tirako egin zuena egin lezake orobat euskal-gramatikaren itz bereziak aukeratzeko: zar ala berri itz auek, danetara; baña guztiz hearrezkoa dugu itz berezi oiek eukitzea. Eta auek autatu ondoren Euskaltzaindi'ak berak idazleen artean gramatika egiteko baztaldiak eratu lezazke.

Gramatikari buruz lendabizi egin bear dana, beste gaietara gero edatu liteke, bear dan neurrian: Lojika, Kondaira, Kontuak, Geografia'rako eta abar, guziak beren lerroan.

Egunen batean, Yainkoa'k daki noiz, gure Erri'aren eskuetan izango da gure ikasketa guztiak antolatzeko almena, ta ordurako egitaraua gerturik eukitzea dagokigu; bai ta lendik bete al litezken bide-zati geienak. Gramatika ta beste liburu asko bear izango ditugu beti, ta oso egokia lenbailen astea antolatze ori.

Liburuez gaiñera, euskal-irakasleak ditugu beste auzi gogorra. Oiek eratzea, beraz, gaur bertan asi bearreko lana, lan zalla ta aundia benetan.

Len aipatu dugun lenengo egikerari buruz, al ditezken bide guztiak erabilli bear: Egunkariak, aldizkariak, irratia, umeentzako orri bereziak, bertsolariak antzerkia, ikastaldiak eta abar. *Zabalera* dijoan bide au, beti egitekoa bada ere, *sakorenaz* zuzendu bear dugunaren astapena ta antolabidea izan bear.

Zentzun bi oietako bideak ditugu, beraz, gure kulturaren arazorako. Orretxegatik biak osotu bear noraezeko dugun *egitarua*.

Bein edo bein, len ere esan da, gure gain izango dugu gure kultura ta ikasketa guztiak eratzeko almena. Lendik dagokigu, alegia, bearrezkoa dugun egitarau egoki bat zezt eta meatz antolatzea. Lan ori egiten oraintxe asi diteke; len aipatu dugun "Eusko-Ikaskuntza" k edo beste edozeñek: Egitaraua eratzen eta aurreko lanak egiten.

Onelako asmoa ontzat artu ezkeru, zabalkunderik aundiena egitea komeni litzake gure errialde guztietan. Gure Erri'ak jakin bear du, argi ta garbi, guziok eraman bear dugun bidea; ikus dezala beti, bere jakitun eta idazleak bide ortan barna dijoazela; erritarrak oien begira beti baitaude, beren atzetik joateko leiaz.

Euskaldun diranen artean, bertsolariak ditugu lan bikaña burutu dezaketenak, erritarrak euskeraz irakurtzen eta idazten ikastea bearra dala biotzeraño sarrarazteko.

Euskal'erri'ko erdaldunen artean, berriro euskaldun izateko yorana sortu bear, bide egokien bidez: Itzez, lumaz, irratiz, aldizkariz,...

Guziai gure xedearen asmo gorengoena jakinerazi bear dizkiegu: Euskal-gogoak, euskal-izakerak, Mundu guzian oso ontzat artzen duten erdiko euskaldun gizon jatorra sorrerazten duela; erdiko gizon ori beste edonungoa bezin gizon dala, ta beste aunitz eta asko baño ohea ere.

Gure Erri'an euskera galtzen danean, erdal-alderdi guztien erdiko gizona ura baño motelago dala; euskera baita aren gogo berezi ura eutsi dezaken bakarra.

Beraz, euskera dugu bear-bearrezkoena, leen-leena ta beste guzian gain, euskaldun bizitzeko ezinbestekoa dugulako.

Beste erriekin ar-emanetan bizitzeko, erdera ere bear dugu, alegia; baña erdera artzeko ez dugu, iñolaz ere, gure izkuntza au ezetsi ta utzi bear. Izkuntza bat baño geiago jakitea bear dugu gure bizirako: Euskera gure izakera berezia eutsi al izateko; erdera beste erriekin ar-emanetan ari izateko.

Ba-dugu guzti onen alboan dagoen beste auzi aundi bat: Euskeraren batasuna. Au ere ez da egun bateko lana, ta oni buruz iritzi batzuek ezagutzen ditugu. Guretzat Garitaonaindia ta Azkue apaiz jaun bizkaitarra dugu egokiena: Gipuzkera osotua'rena.

Jakiña, ezin iñork iñori au edo beste iritzia indarrez arrerazi. Ontan norberak bere eskubidea izan bear, idazleak batez ere; paña zillegi, bearra ta egoki euskeraren batasuneruntz eten gabe joan bear dugula esatea, nire ustez.

Eta nolako euskera erabilli? Garbi-garbia? Gaur guztiz erdal-kutsuturik ainbeste tokitan erabiltzen dana? Ene ustez, bi geiegi oietatik aldendu bear dugu guztiok eta erdiko bidea artu; gauza guztietan bezela, ontan ere erdikoa onena baiteritzaigu. Idazleak erritarren eredia izan bear; beraz egokiena berak eta irakasleak iritzi batekoak edo antzekoak bederik izatea.

Ona orain, amaitzeko, zeazki eta labur, ukan ditzakegun *el-buruak*:

- 1) Gure Erri'ak beti EUSKALERRIA iraun dezala.
- 2) Gure errialde guztiak euskal-gogoz bete ta inguratu, euskaldun biurtuz.
- 3) Euskal-gogoa eusteko euskera erabiltzea, bide bakartzat arturik.
- 4) Euskal-kulturarako euskera noraezeko izanik, gure kultura guzti ori euskeraz eratzea.
- 5) Orretarako, euskera kulturazko-izkuntza biurtzea.
- 6) Ondorioz, pizkanaka-pizkanaka, Euskal'erri'ko irakasketa guztietan euskera sartzea; irakasteko *gaiaz* lenengo, ikasketa guztietarako *bidez* gero.

A. URRESTARAZU.

Euskaltzaindiaren erabakiak irakurtzen dira gero. Ona emen.

Erabakiak

1. *Batzarre onetara ekarriak izan diren lanak Euskera-n argitaruko dira, zenbaki bereizi larriago batean.*
2. *Bearrezkoa dugu erri bakoitzeko izkera eta erri-jakintza-erekiko monografiak prestatzea. Emen irakurri diren lan batzuk eredutzat ipiñi ditezke orretarako.*
3. *Biziro poztu du batzarrea Aita Zabala bertso-berriak biltzen egiten ari den lan aundiaren berri jakiteak. Dei egiten die, beraz, euskaldun guzteri orretarako eska lezakean edozein laguntza emateko. Laguntza zor zaie, orobat, Arantzazu edo beste gaieri buruzko kanta zaarrak biltzen ari diren Frantzizkotarrerri.*
4. *Gogoko luke batzarreak eliz-gizonen batek euskal-sermoien zati aukeratuekin lorategi bat osotzea.*
5. *Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabilzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie, orretarako*

egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekagarriago izan.

6. *Atsegiñez ikusi dira saio-antzean euskeratu diren filmak, eta orien bidez euskeraren alde egin ditekera lan ederra. Gogoz ikusiko luke, beraz, batzarreak, magnetofonaren jabe diren euskaldun eta euskal-elkartasunak bide orretatik alegintzea.*

Jardunaldi ta eztabaida guzti auetan ikusi da argi ta garbi zenbait gaitan aritzeko itzen bear gorria dagoela.

Obe dugu euskera mordoilloan jardun burutaziñoak adierazi gabe ta ulergaitz utzi baiño, edo zeatz adierazi gabe.

Azkueren gorazarrez (Bilbon egin nai diren jaien berri eman da.

Gero Aita Iturriak irakurten du Arantzazuko sariketaren erabakia.

Arantzazuko euskal - sariketa

Arantzazu'ko Andre Mariaren urtea ospatzeko eratu dan sariketarako epaimaieko autatuak izan diranak, Antonio Arrue, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena jaunak, agertu diran idaz-lanak banan-banan irakurri eta aztertu ondoren, Agorraren amaseian Arantzazun bildurik, onako erabaki auek artu dituzte:

1) Olerki-saillean, lenengo saria, 1.000 pesetakoak, "Elorriko lorak" deritzanari ematea, eta bigarrena bosteunekoa "Tori Arantzazu" izenekoari. Egilleak: Gandiaga'tar Bitoriano Aita, Arantzazuko Prailea, ta Artola'tar Fernando, "Bordari".

2) Artikuluetan, lenengo saria, 1.000 pesetakoak, "Zotaletxe-ko artzaia" izena duenari, eta bigarrena "Euskal-sorgiñak eta Arantzazu" deritzanari. Egilleak: Urruzola'tar Estanislao eta Berasaluze'tar Sabin anaia gertatu dira.

3) Antzerti-lanetan bi lanik onenak, berdintsuak izanik 5.000 pesetako sari bakarra bien artean erdibanatzea erabaki dute. Antzerkien izenak, "Gabak zekarren eguna" eta "Mesederik aundiena". Egilleak Etzaniz'tar Nemesio eta Albisu'tar Anastasio jaunak, biak apaizak.

4) Olerkarien artean bertsolariak ere agertu diralako sari berezirik ezpadago ere orientzat, uste dute maiekoak ongi legokeala beste bi saritxo ipintzea, 500 eta 250 pesetakoak esate baterako. Lenbizikoa, "Arantzazu'ko Amaren edestitxoa" deritzana-

rentzat izango litzake eta bigarrena "Arantzazu'ko Amari" izene-koarentzat. Egilleak: Juan Baxurko eta Graziano Anduaga "Geltzakako Aitona".

Atsegin biziz ikusi dute maiekoak zenbat olerki (amazazpi eta lau beriso-berri sorta) eta nolakoak agertu diran norgeiagoka onetara. Aipamen berezia merezi duten guztiak aipatzea luzeegia litzakelako, lau aipatuko ditugu bakarrik, sarituez gañera: "Zaharraren kimu berria", "Bosteun urte ta...". "Elorriko lorea", eta "Kutunki" izenekoak. Egilleak: Berasaluze'tar Sabin anaia, Zugasti'tar Anizeto apaiza, Dorronsoro'tar Lukas apaizgaia ta Sagrazazu'tar Kauldi, "Satarka". Ederki legoke benetan guziek liburuxo batean agertzea, Arantzazuko Andre Mariaren gorazarrez.

Artikuluetan, beste batzuen artean, aipamen berezia merezi du "Arantzazu Pentekostes berri" deritzanak. Egillea Aranalde'tar Joxe Mari.

Antzerki-saillean "Arantzazuko Anai Patxi" deritzanak elkar-izketa bizi ta errikoia agertzen du. Egillea: Arkotxa tar Joxe Antonio.

Arantzazu'n 1956'ko Agorraren 16'an.

A. ARRUE, M. LEKUONA, L. MITXELENA

Euskaltzaindikoak

Gero eskatu da Nikolas Ormaetxea (Orixe) ta Bonifazio Etxegaray jauneri telegrama bat ipifii bear litzaiakela batzar-kide guztien izenean beren bizitzan egin duten lanagatik merezi dituzten eskerrak emanez, geixorik baitaude eta etortzerik izan ezpaitute. Ao batez onetsi da ta orrela egin da.

Arrue jaunak bukatu ditu jardunak azkeneko itz auekin:

Jaun-andreak!

Entzun ditugu egun auetan itzaldi ederrak. Baita asmo onak artu ere. Gure egun auetako lanak, txit onuragarriak izango dirala noski euskerarentzat, uste det.

Baña... nabaitu det egun auetan gure artean alako akats txiki bat. Alegia, batzuek geiegi negar egin ote duten, derizkiot. Eus-

kera gainbeera dijoala, euskera azken-arnasetan arkitzen dala, euskera laister ilko zaigula,... entzun degu.

Gudaldi batean, gerrate batean orrela mintzatzen diranei, badakizute zer egiten zaien: zigortu.

Guk ez degu emen iñor zigortuko. Guk egin bear degun gauza bakarra da, danok euskeraren alde aldegun lan guzia egin.

Nik ez dakit euskera laister ilko dan edo ez. Ori Jaungoikoa'k jakingo du. Baña nere iritzia da, euskerak iraungo duala munduak irauten duan bitartean!... Atzo Garmendia jaunak aitatu zizkigun liburuak noizbait ere saltzen badira edo ez, berdin...

Baña, jaunak —eta ondo entzun—, ez dezaiogun iñola ere euskerari, il baño len, illetarik egin, *entierrorik* egin!

Bukatzeko, itz bi. Gure egun auetako naitasun guziak, gure egun auetako asmo guziak eta gure egun auetako itxaropen guziak berengan laburkiro bildurik daramazkien itz bi. Auetxek: Gora euskera!!!

ANTONIO ARRUE.

Eta otordua eldu da. Bazkalondoa ere bai bere alaigarriekin. Arantzazuko frailekiak zenbait kanta ta txistu-soiñuarekin. Bertsolariak, Balendin Enbeita jaunak, bere ateraldi ederrekin. Garrow jaunak bere itz batzuekin, Bizkaiko erregeleri buruzkoak. Nafarrak beren kemena agertzearekin.

Ona emen bertsolariaren bertsoak:

I

Nere gorputza dar darka daukat
 Eta biotza kantari.
 Niretzat beintzat gaur Arantzazuk
 Zeru txiki bat dirudi.
 Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar,
 Zubero ta Lapurdi,
 Gaur Arantzazun besarkaturik
 Berba emonaz alkarri,
 Erabagia artuten dabe
 Laguntzeko euskerari,

Arantzazuko Ama jarten dabela
Batzar onen zaindari.
Eskerrak emon bear deutsaguz
Batzar au ein dabenari.
Euren alde eskatu deiogun
Arantzazuko Amari.

II

Arantzazuko Ama irri barreka
Dago arantza gaiñetik
Au batzar zoragarria
Arantzazun ikusirik.
Bere biotza gurekin dago
Maitasun garrez beterik.
Euskera maite izan daigula
Ezdau agintzen besterik.
Gaur egunian maitasun ori
Ia dakusta galdurik.
Zer jazoten dan itandu eta
Ezdago erantzunik.
Danok eskuak garbitzen doguz
Iñok ezdauko errurik,
Onexek dauka gure Euskera
Burua jaso ezinik.

III

Euskalerriko mendi ta zelai,
Uri ta baserriak,
Ibai, erreka, iturritxuak,
Lora ta lilitegiak.
Euskeriaren babez gozoan
Bizi zirian erriak
Zaindurik bere oitura garbi
Eta egizko legiak.
Galdu gordian ikusten doguz
Bere edertasun guztiak.
Jazoera onen errudun gara
Euskaldun erdelzaliak.

IV

Euskalduna naz entzun nai dogu
Eta gañera arrokeriz
Esaten dogu euskalduna naz
Izkuntzaz eta jatorriz,
Asko oi dira ospia edo
Aundi izateko egarriz,
Ama Euskera begi ta biotz
Negar malkozko iturritz.
Zapiok kendu ta jagi gaitzean
Euskeraren alde egiz
Eta maitatu Ama Euskera
Egizko maitasun garbiz.

V

Ezdot esaten erdera ere
Biar dogula baztertu.
Erderia be beste izkuntzak lez
Bardin goratuten dogu.
Erderaz ondo ikasi, baña...
Euskeriagaz ez aztu.
Euskalerririk ezdagoalako
Euskera galtzen badogu.
Besten gauzari bakian itxi
Norberarena ondo zaindu.
Euskalerrria ezda galduko
Olan egiten badogu.

VI

Emakumia mundu guztian
Dabil modiai begira,
Nundi edo andi elduko jaku
Modia dagoan lekura,
Jantziko jaku naiz da nabarmen
Izan modien jaskera.
Barre egin arren bere itxurari
Bape ezdautsa ardura.

Emakumetan sartuko balitz
Gure izkuntza modara,
Mundu guztiak egingo leuke
Aunditasunez euskera.

VII

Itxi daiguzan geure arteko
Eztabaidak ziero,
Alkartu gaitezan euskaldun danok
Anaitasunez maitero.
Euskerak galdu daben indarra
Zigur, astiro, astiro
Irabaziko maitasun garbiz
Guztiok lan ein ezkerok.
Ezda indarririk maitasunaren
Indarra menperatzeko,
Guk be euskera maite badogu
Ezda sekula galduko.
Itxartu ta jagi gaitezan
Belutu baño lenago.

Aita Agirretzek esaten ditu itz bi, Arantzazuko Amaren babesa gogoraturik eta bere zaindaritzea onartzeko eskaturik. Txalo franko entzun da.
Urrengoarte.